



XVIII. Idazlan Koaderno
DBH • BATXILERGOA 2019

Argitaratzailea

**Gernika-Lumoko Euskara Zerbitzua
eta Hezkuntza Saila**

Laguntzaileak

**Barrutialde Institutua
Gernika-Lumoko Institutua
Mertzedeko Ikastetxea
San Fidel Ikastola
Seber Altube Ikastola**

Postadaren egilea

Goizane Peña Ibañez (DBH4. mailako ikaslea)

Babesleak

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (HPS)
Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila
(Euskara Zuzendaritza)**



Maketazkoa

11barri (Markina-Xemein)

Inprimaketa

Lizaso Grafikak (Zornotza)

2019ko edizioa.

HITZAURREA


Mobil eta konputadora sasoian, ez gara konturatzen zein garrantzitsua den irakurketa eta idazketa erabiltzea komunikazio tresna bezala.

Aspaldion, garraiobideetan milaka telefono mugikor ikusten dira eta, oster, paperezko liburu gutxi. Whatsapa tresna baliagarria da musu eta txalo xingleak bialtzeko, esaldi laburrak egiteko... Benetan gure barru muineko gauzak azaldu gura ditugunean, pobre gelditzen jaku.

«Idazlan koadernoetako» protagonistek egin duzuen bezala, zeozer kontatu gura dozuenean, istorioren bat, sentimenduak azaldu, adiskidetasunaz aritu,... ezinbestekoa da idaztea, norberarentzat edo inorentzat izan. Horrek bai emoten dauala askatasuna!

Teknologiaren eskutik gizakiok aurrerabideari eutsi behar deusagu, baina ahaztu barik papera, arkatza eta liburua direla esperientzia zoragarriak, bizipenak eta asmakizunak jantzi eta hornitzeko aukera emoten deuskuezanak.

Jakingo bazendue zein atsegina dan zuon ahaleginaren lekuko izatea.... Eskerrik asko!



Marisa Aldamizetxebarria
Euskera Zinegotzia

egilea	maila	idazlana	orr.
Amaia Zubillaga Slaces	DBH 1.	«Nire lagun mina»	1
Sarai Arruti Bonilla	DBH 1.	«Markelen bizitza»	3
Ander Aransolo Olano	DBH 1.	«Iraneko familia txiroa»	6
Etxaun Amutio Fernandez	DBH 1.	«Sagarrondo bat naiz»	8
Ugaitz Martija Cerrillo	DBH 1.	«Johau»	11
Andoni Lezamiz Ojanguren	DBH 2.	«Egiptoko urrezko xaflak»	14
Ander Moreno Aurtenetxea	DBH 2.	«Bangkokeko bahiketa»	17
Mireia Otaduy Ugalde	DBH 2.	«Mahatsen misterioa»	21
Ekaitz Gutierrez Arana	DBH 2.	«Margolanetan»	25
Nikole Bermeosolo Rubianes	DBH 2.	«Kontu zaharrak»	29
Peio Enbeita Kaltzada	DBH 2.	«Zer idatziko ideiarik ez...»	33
Ane Mei Aspiazua Etxeandia	DBH 3.	«Begi errugabeen atzean ezkututzen»	37
Ander Ansotegi Arrien	DBH 3.	«Gomutan»	42
Ismene Lopez Mingo	DBH 3.	«Ni, ni naiz»	46
Jokin Agirre Urrutia	DBH 3.	«A zelako Gabonak!»	50
Laia Arriaga Lopez	DBH 3.	«Bizitzaren gorabeherak»	53
Itsaso Olea Urionabarrenetxea	DBH 4.	«Hegotik iparrera»	58
Ekaitz Martín Pérez	DBH 4.	«Itsasarteko amesgaiztoa»	63
Ciprian Marius Nicolae	DBH 4.	«Gidatu azkenera arte»	68
Araitx Zuntzunegi Dominguez	DBH 4.	«Martxoaren 8an denok kalera»	72
Eneko Orue Basterretxea	BATX 1.	«Munitibarko baserritar baten memoriak»	76
Alaitz Elgezabal Gonzalez	BATX 2.	«Kristalak hautsi»	80
Aitana Intxausti San Martin	BATX 2.	«Ate iluna»	84
Kattalin Urrengoetxea Uribarri	BATX 2.	«Zuretzako hitz ederrak»	86
Arlene Rementeria Akordagoitia	BATX 2.	«Oroitzapenak»	91
Leire Gordo Badiola	BATX 2.	«Hutsunea»	94
Ibai Zobarán Díez	BATX 2.	«Bizitzaren oinarria paperean idatzia»	98
Lierni Gregorio Zabala	BATX 2.	«Zerumuga»	101
Irantzu Idoiaga Zelaia	BATX 2.	«Bakardadea»	106
Markel Goitia Pertika	BATX 2.	«Errutina»	108
Olatz Robles Irigoien	BATX 2.	«Ispilu fidelena»	112
Dunixe Goenaga Cochón	HHI/EPA	«Maitasunaren debekuak gerra zibilean»	114
Julene Lauzirika Gutiez	HHI/EPA	«Azkenean dantzaria»	119



XVIII. Idazlan Koaderno
DBH • BATXILERGOA 2019



Amaia Zubillaga Salces
DBH 1. maila
“Danok gara bat”

NIRE LAGUN MINA

Kaixo, ni Mohamed naiz, 12 urteko mutiko bat. Izena aztertzen baduzue, konturatu ahal zarete ni ez naizela Euskal Herrikoa baizik eta Afrikarra. Senegalekoa naiz, Afrikako herrialde batekoa. Ume batzuk esaten duten moduan, ume beltza naiz, baina ondo esanda kolore iluneko pertsona arrunt bat naiz.

Jendeak pentsatzen du Euskal Herrian dauden beltz gehienak pateretan etorritakoak direla, baina hori gezurra da. Ni hegazkinez etorritakoa naiz, adibidez.

Euskal Herrira etorri nintzenean, konturatu nintzen dena oso desberdina zela: janaria, janzteko era, bizitzeko era, hizkuntza... Bilbo izeneko hiri handi eta polit batera joan nintzen bizitzera.

Pena handia eman zidan uztea, baina amak esan zidan noizbehinka laguna eta familiako kideak bisitatzera joango ginela, hala ere, konturatu nintzen seguruenik hoberena hori izango zela. Amak eskola berri batera eramanez ninduen.

Denek burla egiten zidaten, azalaren kolorearengatik, nire hitz egiteko eragatik, nire ile kiribilduagatik...Oso gaizki pasatzen nuen eta etxera heltzean, negarrez hasten nintzen ia egunero. Ez nion ezertxo ere amari kontatzen, bestela lanarekin, etxeko kontuekin eta abar askoz ere gehiago nahasiko zen.

Baina badakizu zer zen onena? Oso adiskide ona nuela, behintzat: Julen deitzen zen. Adeitsua, langilea, lagungarria....zen.

Burla egiten zidaten bakoitzean, berak kasurik ez egiteko esaten zidan eta eskutik hartuta beste toki batera eramaten ninduen.

Egun batean, klase kide batek burla egin zidan eta behin eta berriz esan ondoren, negarrez lehertu nintzen ikasgela guztiaren aurrean. Guztiek barreka segitu zuten Julenek eta nik izan ezik. Julen nazkatu egin zen. Pentsatu nuen nirekin haserretu zela, baina ez, guztiz kontrakoa. Besteekin nazkatu zen.

Gelatik irten bezain laster andereñoarengana eta zuzendariarengana joan eta gertatutako guztia kontatu zien. Andereñoa nirekin txundituta geratu zen eta zergatik ez nion arinago esan galdetu zidan.

Haritzekin ere pribatuan hitz egin zuen eta zein zen arazoa galdetu ondoren, elkarrizketa bukatutzat eman zuten. Haritzen erantzuna txarto jokatu zuela zen eta hori adierazteko ikasgela guztiaren aurrean barkamena eskatu zidan ez zuela berriro egingo esanez. Asko poztu nintzen, onartu egin zuelako zer egin zuen, bederen.

HANDIK AURRERA DENOK ITZEL konpontzen GINEN eta arazoren bat sortzen zen bakoitzean berba egiten genuen konpontzeko asmoz.





Sarai Arruti Bonilla

DBH 1. maila

“Ez ezazu inoiz utzi besteek esatea nolakoa izan behar zaren”

MARKELÉN BIZITZA

2000. urteko urriaren 6a egun zoragarria eta ahaztezina izan zen Josu eta Mirenentzat. Egun hartan jaio zen bere alaba zoragarria, beti nahi izan zutena. Maider beste edonor bezalako umea zen: jan, negar, kaka eta txisa besterik ez zuen egiten. Haren gurasoak harro eta pozik zeuden Maider nola hazten ari zen ikustean.

Bost urte zituenean, abenduaren erdialdean, Olentzerori gutun bat idatzi zion. Hor eskatzen zuena gehien bat, auto txikiak eta auto telegidatu gorri bat zen. Haren gurasoak, gutuna postontzian jarri baino lehen, irakurri egin zuten. Arraro iruditu zitzairen automobilak, panpinen ordezkaria. Egunak joan, egunak etorri, abenduaren 25a heldu zen. Maider poz-pozik altxatu zen opariak irekitzera. Familia guztia egongelan elkartu zen, bakoitzak bere opariak irekitzeko. Maider opariak irekitzen hasi zen eta panpinak eta orraziak zirela ikustean, negarrez hasi zen. Gurasoek, haurraren tristura eta mina sumatzean, panpina auto batengatik aldatzera joan ziren dendara hurrengo egunean. Ezin izan baitzuten bere haurtxoaren negarra jasan.

Urte bi geroago, zazpi zituenean, Maider lehen aldiz joan zen amarekin arropak erostera. Dendan sartu, eta berehala mutilen arropen tokira joan zen. Bere arropa aukeratzen hasi zenetik, beti janzten zen kolore ilunekin, ez zituen inoiz arrosa edo more koloreak zituzten arropak hartzen. Gainera, ez zitzaion bakeroekin janztea gustatzen. Beti janzten zen txandalekin eta kirola egiteko zapatekin; horrela sentitzen zen eroso.

Amak ez zion ezer esan baina momentu hartatik zerbait arraroa ikusten zuen Maiderrengan. Eskolan, beti ikusten zuen mutilez inguratuta futbolera jolasten, ez zuen inoiz neskekin jolasten ikusi.

Zazpi urterekin ez zion inori axola nola zegoen jantzita norbait, zer gustatzen zitzaion, eta askoz ere gutxiago, norekin eta zertara jolasten zuen. Maider horretan ez zuen inoiz pentsatzen. Ez zuen uzte horregatik arraro begiratuko ziotenik, normala iruditzen zitzaion. Oso pozik bizi zen. Konturatu zenean mutil guztiek ile laburra zutela, amari esan zion labur-laburra ebaki nahi zuela, eta baietz esan zion. Hurrengo egunean, poz-pozik joan zen eskolara bere look berriarekin.

Dena ederto zihoan, laugarren mailara heldu zen arte. Hor umeak nagusiagoak ziren eta norekin jolasten zuten axola zen. Maiderri beti uzten zioten bakarrik, ume txikiekin besterik ez zuen jolasten. Neskek ez zituzten Maiderren gustu berdinak eta mutilei lotsa ematen zien neska batekin jolastea. Hortaz, txikiekin soilik jolasten zuen. Miren horretaz ohartu zenean, tutoreari azaldu zion gertatzen zena. Amak horretaz zihoan ipuin bat idatzi zuen eta esan zion andereñoari klasearen aurrean irakurtzeko. Berehala ikasleekin hitz egin zuen, Maider pertsona normala zela azaltzeko. Ipuin horrekin, gai hori normalizatu zuten.

Urte hori oso zaila izan zen Maider eta bere familiarentzat. Umeak egun osoan zeuden Maider zirikatzen, marimutil esaten. Beti heltzen zen negarrez eskolatik etxera. Gurasoei hori ikusita bihotza apurtzen zitzaien eta ezin zuten jasan.

Nahiz eta bai irakasleek bai gurasoek gainontzeko ikasle eta gurasoekin hitz egin, ez zuten ezer lortu; egoerak berdin jarraitzen zuen eta Maiderrek asko sufritzen zuen. Beraz, egun batean, Mirenek eta Jonek Maider eskolaz aldatzea erabaki zuten. Maider horretaz pentsatzen hasi zen eta berriz neska izatea erabaki zuen. Horrela ez zuten berriz zirikatuko. Ilea luze utzi zuen, gona eta soinekoekin eta arrosa eta more koloreko arrokekin janzten zen, neskekin sokasaltora jolasten zuen...

Hurrengo urtean, eskola berrian, ez zion inork zirikatzen. Normal tratatzen zuten ume normala iruditzen zitzaielako, neska moduan egoten zelako. Itxuraz, Maider pozik zegoen bere bizitza berriarekin: neskekin jolasten zuen eta bazirudien oso gustuko zuela sokasaltoan eta goman jolastea. Baina barnealdean ez zen pozik bizi. Ez zen bera, ez zen inoiz berak sentitzen zuen bezalakoa eta ez zuen gustatzen zitzaiona egiten, beti ibiltzen baitzen besteez zer esango.

DBH 3. mailan, bere pentsamendua aldatu egin zen. Bere buruan esaten zuen: “mutila sentitzen banaiz, mutila izango naiz. Ez dut utziko besteez erabakitzea nor naizen”. Segurtasun osoz berriz egin zuen aldaketa: berriro moztu zuen ilea labur-labur eta txandala eramaten zuen egunero soinean.

Hasieran berriz zaila egin zitzaion aldaketa baina egunak joan egunak etorri, hobeago eta segurtasun gehiagoz sentitzen zen eta ezagunen artean normalizatzea lortu zuen. Ezagutzen zuten denei esan zien: “hemendik aurrera, dei nazazu Markel!”. Eta ordutik aurrera pozik bizi zen bera zen moduan izaten. Gainera ez zen inoiz bakarrik sentitu, beti izan baitzituen alboan bere guraso maiteak eta benetako lagunak.





Ander Aransolo Olano
DBH 1.maila
“Txikitik handira”

IRANEKO FAMILIA TXIROA

Iranen familia oso txiroa bizi zen, gurasoak nekazariak ziren eta lan asko eginez diru apur bat irabazten zuten. Astero barazkiekin joaten ziren hirira auto zaharrean diru apur bat lortzeko.

Familian bost lagun ziren: gurasoak, Jashid eta Ahlam, eta hiru semeak, Amir, Azuz eta Ciro. Familiako txikiena Ciro zen, ausartia, bihurria eta oso-oso jakintsua. Mutikoa eskolara joaten zen eta txikiena izan arren, notak oso-oso onak ateratzen zituen, hoberenak... Eskolako jakintsuena zen, horregatik gurasoak nahiz eta dirurik ez eduki, ahalegin handia egiten zuten berari liburuak erosteko.

Egun batean, gurasoak eta bi semeak, Amir eta Azuz barazkiak saltzera hirira joan ziren, autora bueltatu zirenean ez ziren konturatu, baina lehergailu bat zuten auto azpian; martxan jarri zutenean autoa lehortu egin zen. Laurak momentuan hil ziren eta Cirori berri txarra eman ziotenerako gaua zenez, gau hori bere bizilagunekin pasatu zuen. Hurrengo egunean hirian zegoen umezurztegi batera eraman zuten

Ciro umezurztegian sartu zutenean, hamabi urte baino ez zituen, lehenengo urtean oso-oso txarto egon zen, bere familia galdu zuelako, baina denbora aurrera joan ahala ikasten hasi zen eta lagunak egiten. Handik aurrera gero eta gehiago ikasi behar zuela pentsatu zuen, berari gertatu zitzaiona beste ume batzuei ez gertatzeko eta bakea lortzeko.

Cirotik umezurztegian lagun min bat egin zuen eta Anis zuen izena, hamabost urte zituen eta txikitan bere familiak bakarrik utzi zuen. Orduan Cirok, pena eman zionez, ea bere lagun hoberena izan nahi zuen esan zion eta Anisek baietz esan zion. Anis oso-oso ona zen, eta asko gustatzen zitzaion umezurztegiko traste apurtuak konpontzea, horregatik han konpontzaile lana egiten zuen.

Urteak pasatu ziren eta Cirok hamazortzi urte bete zituen, Ingalaterran Zuzenbide Internazional karrera atera zuen eta Holandan irakasle ikasketak egin zituen. Unibertsitatean umeen eskubideari buruz hitz egiten hasi zen. Hortik aurrera hitzaldiak gero eta gehiago egiten zituen, eta hitzaldiengatik diru asko irabazten hasi zen. Orduan, izugarritzko ideia izan zuen: bere lagun Aniseri deitu; lagunaren baietza lortu zuen.

Idea izan zen umezurztegi berri bat egitea CINIS izenekoa. Anis izango zen erabakitzen zuena gela nolakoak izango ziren, kolorea, tamaina... etab. Anis umezurztegiko zuzendaria izango zen, Ciroren erabakia izan zen, bazekielako Anisek bihotz oso-oso handia zuela umeak zaintzeko eta lortuko zuen familia giroa edukitzea.

Bi urte behar izan zituzten diru guztia lortzeko umezurztegia egiteko. Ciro mundu osotik ibili zen hitzaldiak ematen, gero eta famatuagoa egiten ari zen. Nazio guztietako zuzendariak berarekin hitz egin nahi zuten eta guztiek esaten zuten pertsona oso berezia zela eta berarekin hitz egiteak lasaitasun handia ematen zuela.

Ciro eta Anis, euren bizitza osoan, umezurztegian umeak zaintzen egon ziren. Ciro denboraldi batzuetan atzerrira joaten zen hitzaldi gehiago ematen. Bere helburua lortu zuen: umezurztegia familia oso handia izatea. Egindako guztiagatik "Bakearen Nobel Saria" lortu zuen.



ETXAHUN AMUTIO FERNANDEZ

DBH 1. Maila

“Kaixo ni kirol zalea naiz eta lagunekin egotea asko gustatzen zait”

SAGARRONDO BAT NAIZ

Bai, entzuten duzueenez, sagarrondo bat naiz eta hizketan dakit. Nire izena Gorri da eta 1974. urtean jaio nintzen, Bizkaian Muxikako lursail berde eta ongarritsu batean. Nire amaren adar batean hasi nuen nire bizitza, berde-berde eta txiki-txiki izatetik handi-handi eta gorri-gorri izatera pasatu nintzen, Hosto deitzen zen nire amaren beso batean eskegita. Entzuten duzuen bezala, “zen” hori lehenaldian esan dut, jadanik nire ama bizirik dagoelako. Horren arrazoia honako hau da: gure lurreko jabeak hosto ebakitzea erabaki zuen, bere erosotasun batzuk asetzeko, hau da, besaulki bat egiteko, ate bat, aulki bat eta horrelako beste gauza.

Gure berdeguneko jabea Maria Jose deitzen da, 80 urteko atso koitadu bat da, baina zoritxarrez, orain dela hogeit hamar urte alargun geratu zen.

Bueno goazen harira, gaur nire bizitzaren istorioa kontatuko dizuet, abenturak esperientzia on eta txarrak, ezustekoak eta abar.

Nire bizitza ez da izan beste sagarrondo arrunt baten modukoa; badakit denek esaten dutela hori, baina benetan nire bizipenak entzun ondoren ikusiko duzue nolako berezia naizen.

Izan nuen zoritxarra nahiko laster heldu zitzaidan, oraindik berdexka nengoenean.

Disfrutatzen nengoen herriko bistak ikusten, bat-batean xixare bat etorri eta jaten hasi zitzaidan arte. Minik ez zidan egin, baina nazka eman zidan. Zarataka hasi nintzaion eta sustoaren sustoz erori egin zen. Ordudanik ez dut ezer jakin berari buruz, eta ez pentsa jakin nahi dudarik ere.

Lehen gertaera eta pare bat astera banandu nintzen nire amatxorengandik, eta garai hartan pentsatzen nuena baino bizitza xebleareagoa eduki dut.

Esaten ari nintzen bezala, nire etxetik erori nintzenean, egun batzuk egon nintzen lurrian, usteltzen, ume moko batek futboleko baloi bat bezala erabili ninduen; lotsagarria ezta?

Seguru berari ez zitzaiola gustatuko sagar erraldoi batek berari ostiko bat ematea!

Eta ez hori bakarrik! Mutikoa bere lagunengana joan zen berarekin jolasteko esatera, eta denek jolastu zuten futbolera niri ostikoak eman eta ondo pasatzen; nirea bai zorte txarra, den-denak gozatzen eta ni zuloz beteta eta minduta. Ordu luze bat egon ziren jolasten, azkenean etxera joateko ordua izan zuten arte. Eskerrak, bestela ez nintzen istorio hau kontatzen egongo.

Pentsatzen baduzue hura izan zela nire esperientziarik txarrena oker zaudete, oraindik txarrena etortzear zegoen!

Kontua da, futbolarena gertatu eta egun bat pasa ostean bertan zegoen animalia batek jan ninduen; animalia hori behi bat zen eta egia esan behar badut, oso bizkor jan ninduen.

Normalean, behi batek sagar bat jaten badu sagarra ezin da zuhaitz bihurtu. Baina hori ez da nire kasua.

Ugaztun pisutsu horrek nire gauza onak digeritu ondoren eta ni gorotz bihurtu eta gero, oraindik nire hazia gelditu zen bizirik, hau da, nire bihotza. Oso txikia izan arren, nire ametsa betetzear nengoen, zuhaitz handi eta osasuntsu bat izatea. Banekien denbora asko iraungo zuela ni arbola bat izateak, baina hala ere ez nuen etsi eta zortean sinetsi nuen.

Ni ongarria bihurtu ostean eta gorotza deskonposatu ondoren, lurperatuta geratu nintzen. Uste nuen nire arazo guztiak bukatu zirela, baina oraindik beste bat geldituko zen nik nituen desioak aldrebesteko.

Arazo hori Maria Joserren txakurra zen, Hodei deiturikoa. Kasualitatez, berak ni nengoen tokian zulo bat egin zuen eta bertan hezur bat sartu zuen. Ezin nintzen mugitu eta zerbait egiten ez banuen egiten akabo landare indartsu eta handi bat izatearen ametsa.

Hau konpontzeko lur azpiko animalia asko deitu nituen ni laguntzeko. Lagundu egin zidaten eta nik esan nien ordainetan hazten nintzenean nire gorputzean bizitzen utziko niela.

Egun hartatik urte asko pasa dira; nire gorputzean animalia asko bizi da eta bizipen ez horren harregarriak bizi ditut urte hauetan, adibidez, txakur batek bere gauzak kanporatzea, badakizue.

Nire ama 2000. urtean ebaki zuten, baina nire barruan oraindik bizirik sentitzen dut, nirekin. Amona hil zenean zera esan zidan amak: “AMONA BETI EGONGO DA ZUREKIN”. Ama ebaki zutenean, berdina pentsatu nuen eta askoz hobeto sentitu nintzen.

Daukadan hurrengo erronka mende batera heltzea da, sagarrondo batentzat nahiko zaila bada ere.

Bueno, hau da nire orain arteko bizitzaren istorioa eta espero dut luzeagoa izatea. Hurrengora arte!



Ugaitz Martija Cerrillo
DBH 1.maila
“Bizitzaren gorabeherak”

JOHAU

Johau 10 urteko mutiko marokoarra zen. Gauzak ez zeuden ondo eta bere gurasoak bizitza hobe bat bilatzea erabaki zuten. Patera batean sartu ziren Kanarietara joateko bizi berri bat hasteko.

Bere etxea, bere lagunak eta bere bizitza utzi eta gau batean patera batean sartu zen bere gurasoekin eta beste askorekin. Ez zegoen ia lekurik eta bata bestearen gainean jesarrita zeuden. Astebete igaro zuen itsasoan, beldurra, hotza eta zer gertatuko zen jakin gabe.

Marokotik irten zenean, ez zuen pentsatu zein gogorra izango zen bidaia hori egitea. Bidaiaren laugarren egunean, gauzak okertu egin ziren, itsasoa haserretu egin zen eta txalupak ezin zuen aurrera egin. Olatuak handiak ziren eta haien gainetik igarotzen ziren, jendea oso urduri zegoen uretara jauzteko beldurrez. Eta hori zen gertatu zena, txalupak ezin izan zuen oreka mantendu eta jendea aldeetatik jausten hasi zen. Johauren aita eta ama itsasoan desagertu ziren beste askorekin batera.

Itsasoa baretu zenean, pateran ez zegoen jende askorik, erdia baino gehiago itsasoan desagertu baitziren. Bi egun igaro zituzten noraezean itsas-laguntzak aurkitu zituen arte. Johau-eta han zeuden etzanda, ez zuten indarrik. Hotz eta gose ziren. Lanzaroteko hondartzara heldu zirenean, guardia zibila eta Gurutze Gorrikoak han zeuden itxaroten.

Johaurekin, beste hamabost pertsona atera zituzten pateratik eta taldeetan banatu zituzten. Johau, beste hiru ume eta bi emakume, anbulantziak zeuden lekura eramane zituzten. Han mantekin tapatu eta medikuak aztertu zituen.

Nahiz eta bizirik egon, Johau oso triste zegoen; bere gurasoak ez zituen berriro ikusiko, ez zuen esaten ziotena ulertzen eta ez zekien zer gertatuko zen berarekin.

Handik hurbil zegoen kiroldegi batera eramane zituzten, hara eramane zituzten pateretan ia astero heltzen ziren pertsonak, lehen orduak igarotzeko. Han emane zizkieten arropa sikuak eta janaria. Hurrengo orduetan, mugimendu asko egon zen, haiekin zer egiten zen eta nora eramane zituzten erabakitzeko.

Johauk, Marta eta Adrian ezagutu zituen. GKE batean egiten zuten lan eta haiek lagundu zioten. Hortik aurrera ez zen bakarrik egongo, haiek zainduko zuten.

Johau eta beste hiru umeak zentro batera eramane zituzten, hori izango zen bere etxea. Han emango zioten behar zuen guztia, arropa, janaria, ohea eta hizkuntza ikasteko klaseak.

Zentroa, etxe handi bat zen. Beheko solairuan jantoki handi bat, sukaldea eta egongela zeuden, goiko solairuan ohatzez betetako logelak eta komunak.

Johauk lagunak egin zituen, eta ez zekienez bertako hizkuntza, beraiekin hitz egiten zuen. Ezin zuten ahaztu itsasoan pasatu zuten guztia eta ia gehienek amets gaiztoak zituzten gauero. Zentroan, Gurutze Gorriko eta GKEko boluntarioak egoten ziren ordu batzuk hizkuntza erakusteko.

Marta eta Adrian egunero joaten ziren eta tailerrak eta jokoak egiten zituzten haiekin. Johauk asko maite zituen. Hilabeteak igaro ziren, han zeuden ume batzuk, txikienak, familia batzuekin joan ziren eta nagusiagoak zirenak han geratu ziren.

Johauk nahiko ondo ikasi zuen hizkuntza, klaseetara pozik joaten zen eta arratsaldetan tailer ezberdinak egiten zituen.

Denbora igaro zen eta Johauk zentroan jarraitzen zuen. Joaten ziren familiak ume txikiak nahi zituzten eta gero eta zailagoa zen familia batekin joatea.

Hamahiru urte bete zituen egunean, Johauk egun guztietan egiten zituen jarduerak egin zituen: klasera joan eta patioan egon zen lagunekin jolasten. Arratsaldean, bisita bat eduki zuen; Martak sorpresa bat eman nahi zion bere urtebetetzea ospatzeko. Askok poztu zen Johau Marta ikusi zuenean.

Martarekin egongelara joan zen eta han berba egiten egon ziren. Ez zen asko geratzen afaltzeko ordua izateko eta Martak eskuak hartu zizkion eta beragana hurbildu zituen. Luzaroan egon zen Marta paperak konpontzen Johau bere etxera eraman ahal izateko.



Andoni Lezamiz Ojanguren

DBH 2. maila

“Zu zara zure buruaren jabe ez beste inor”.

EGIPTOKO URREZKO XAFLAK

Bazen behin Tom izeneko mutiko ingeles bat, Londresen bizi zena bere gurasoekin. Tomek aita eta ama kazetariak zituen CNN katean. Bere bizitza osoa albisteen munduarekin lotuta zegoen. Gazte ingelesak, kazetaritza ikasi zuen Cambridge-ko unibertsitatean eta ikasketa hauek burutu zituenean kate lokal txiki batentzat hasi zen lanean.

Arazo ekonomikoak zirela eta, hedabide honek itxi beharra izan zuen. Honen ondorioz, lanik gabe geratu zen Tom eta bien bitartean bere gurasoen lagun batek Egipton kazetari beharra zegoela komentatu zion (hango egoerari buruz berriak emateko). Egipton egoera zaila zen manifestazio eta liskar ugari zeudelako kaleetan. Honek toki arriskutsua bilakatu zuen non atentatuak ere ugariak ziren. Arazo hauez gain, lan kontraturik gabe Egiptorantz joatea beste oztopo bat izan zen zeren eta bertan atzerritarra izanda lana topatzea ez zen batere erraza. Azkenean asko kostata lortu zuen lana bertako kate txiki batean. Egiptoko bizimodua ezagutzen zioan heinean beste lan xume batzuk ere egiten zituen. Bitartean lurralde hartako egoera ez zen errazten, batez ere ezegonkortasun politikoarengandik eta manifestazioak ugaritzen zihoazen.

Egun batean, manifestazio bati buruz berri ematen ari zenean, soinu ikaragarria entzun zen eta hots izugarriaren ondoren, hauts eta kezko laino handi bat sortu zen inguruan. Jendea negarrez eta garrasika beldurtua noraezean geratu zen. Tom zer gertatu ote zen ikusteko gerturatu zen eta ikusi zuena erabat izugarria izan zen. Auto bonba bidez burututako atentatu baten erdian zegoen. Jende pila lurrean etzanda, zaurituta edota hilda. Anbulantzia eta polizia autoen soinuak nagusitu

ziren leku hartan. Tom harrituta geratu zen zer egin gabe eta bat-batean gizonezko bat ikusi zuen harrietan harrapaturik laguntza eske. Bitan pentsatu gabe, kazetariak berarengana jo zuen ausardia handiz eta palanka eginez bertako gizona askatu zuen. Gizona pozez zoratzzen zegoen baina biratu zenean Tom odolez beteta zegoela ikusi zuen, izan ere korrika zetorrela harri batek buruan kolpatu zuen. Gazte ingelesa lurrera erori zen konortea galduta.

Tom suspertu zenean, logela argi batean zegoen (urdin kolorekoa) eta noizbehinka leihotik zetorren haize bolada gozo batek bere aurpegia laztantzen zuen.

Segituan ohartu zen kazetaria, ez zegoela bakarrik zeren eta alboko ohean beste gizon bat zegoen. Berau hizketan hasi zitzaion, baina ez zen gogoratzen nor zen memoria berreskuratu zuen arte. Orduan, gizonak gertatu zena laburtu zion eta esan zion Asraf zuela izena eta gainera berak salbatu zuen pertsona zela bera. Egunak pasatu ahala, biak sendatzen zihoazen eta elkar ezagutzen jarraitu zuten. Asraf arkeologo egiptoarra zen eta Egiptoko historiari buruz asko zekien. Jakituria honi esker, 2020-an irekiko zuten “Egiptoko Museo Handiko”, arduradun izateko izendatu zuten. Eraikina ikaragarria izango zen, munduko arkeologia museorik handiena, bertatik Giza-ko piramideak ikusi ahalko zirelarik.

Ospitaleko egonaldia asko luzatu zitzaion Tomi eta ohean igarotako denbora luzeak bere muskuluak guztiz ahuldu zituen. Honen ondorioz, ariketa fisiko gogorrak egin behar izan zituen eta ariketa guzti hauek burutzeko, bere lagun mina Asrafen laguntza izan zuen. Arkeologoak kontatu zion nola antzinako egiptiar batzuek urrezko hainbat xafla gorde zituztela piramide baten barruan. Piramide hori Nilo ibaiaren goialdean kokatzen zela (leku bakarti batean) inork aurkitu ez zezan. Gainera aitortu zion orain dela gutxi papirozko dokumentu batzuk aurkitu zituela non koordinatu batzuk agertzen ziren.

Tomek gertatutakoaren ondoren bere lanarekin jarraitu nahi zuen, Egiptok (aztarna arkeologikoei esker) zituen aberastasun ekonomikoei buruz berri ematen. Asrafi esker, Tom Egiptoko kultura eta egiptiarrak hobeto ezagutzen hasi zen. Era berean pentsatu zuen albiste horiekin eta altxorra aurkituz gero, diru mordoa irabaziko zuela.

Azkenean iritsi zen unea non biak zeuden sendaturik eta forma onean eta orduan Nilorantz jo zuten. Heldu zirenean, txundituta geratu ziren biak bertako ikuspegi eta paisai politekin. Aurrera egin zuten bi lagunek asko ibili gabe iritsi ziren euren lehen helburu-arte.

Bertako tontor batetik, zonalde guztia ikusten zen eta koordenatuek ez zuten gezurrik esaten zeren eta deskribatutako tokian piramide itxurako eraikin bat ikusten zen. Nekea zela eta, erabaki zuten ez zutela bide osoa egingo eta bizirauteko zituzten ekipamendua (kanpin denda, linternak..) muntatu zuten gaua igarotzeko. Biharamunean, goizean goiz jaiki ziren ahalik eta azkarren heltzeko asmoz.

Ordu erdi bat ibili ondoren, Asraf aurretik zihoala, oihu egin zion Tomi bertan zegoela piramidea bere begien aurrean zutela esanez. Piramide aurrean zeudenean biak, Asrafek esan zion piramidearen beheko solairuan zegoela bilatzen zeuden altxorra. Tom ulertu ezinik zegoenez galdetu zion ea nola sartuko ziren atea sahatsez josita baitzegoen. Orduan arkeologoak izugarritzko labana atera zuen motxilatik eta belarrak ebakitzen hasi zen. Sartu zirenean, aurrerantz jo zuten eta gero eskailera zahar batzuk jaitsi zituzten. Sala batean bukatu zen bidea eta hormak hainbat hieroglifiko eta marrazkiz apainduta zeuden. Erdian kutxa bat zegoen eta ireki zutenean bertan aurkitu zituzten urrezko xaflak. Pentsatu baino handiagoak eta distiratsuagoak ziren xafla hauek. Biak pozez zoratzen zeuden baina irtetera zihoazela nabaritu zuten piramidea erortzen ari zela. Orduan korrika ihes egiten hasi ziren biak. Azkenik irten zirenean Asraf lurrera erori zen etsita egin zuen lan guztiaren ondoren ezin izan zuelako xafla bate ere ez hartu. Tomek ordea barre algaraka 6 xafla atera zituela esan zion eta korrika batean biak elkar besarkatu ziren.

Ondoren, Tomek albistea argitaratu zuen eta mundu guztian egin zen ezagun. Bestalde xaflekin ateratako diruarekin, bere albiste katea sortu zuen. Asrafek bestalde museoan jarraitu zuen eta urteak igaro ahala zuzendari izendatu zuten. Honetaz gain, bi lagunek etxe bat alokatu zuten elkarrekin bizitzeko eta inoiz elkarrengandik ez urruntzeko.





Ander Moreno Aurtenetxea

DBH 2. maila

“Kirola egitea eta lagunekin egotea asko gustatzen zait.”

BANGKOKEKO BAHIKETA

Kaixo, ni Jon Hormaetxea nauzue eta Gernika-Lumon bizi naiz. Itxuraz ez naiz argala, ezta lodia ere, baxua, esmeralda koloreko begiak ditut, sudur oso luzea, gaztaina-koloreko ile leuna, jirafa bat bezalako sama, iratxoak bezalako belarriak...

Haurtzaro oso gogorra izan nuen, nire ama ni jaio nintzenean hil zen eta aitarekin bizi behar izan nuen. Aita zen nire familia bakarra momentu horretan. Aita Ondarruko marinela zen eta Atlantiko itsasotik zehar nabigatzen zuenez, itsasontzi batean hilabete asko etxetik kanpo egoten zen. Hori dela eta, ez zuen ni zaintzeko denborarik izaten. Hark bi aukera zituen: lehenengo, ni berarekin itsasontzira bizitzera joatea; eta, bigarrena, ni umezurztegi batera eramatea. Pena handiz, bigarrena aukeratu zuen eta Bilboko umezurztegi batera eraman ninduen.

Eskolan oso ikasle txarra nintzen, irakasleekin eta ikaskideekin borrokak izaten nituen, portaera txarra nuen, ez nuen lagunik, egunero bakarrik egoten nintzen eta gelako serioa nintzen, ez nuen inoiz txiste edo broma barregarriez barre egiten. Umezurztegian eta eskolan hamazortzi urte izan arte egon nintzen.

Hamazortzi urterekin, ikasketak utzi eta Barakaldoko ontziteria egiten den fabrika batean hasi nintzen lanean. Ez zitzaidan lana gustatzen eta espero baino diru gutxiago irabazten nuen. Orduan, bi urte fabrika horretan lan egin ondoren, lan hori utzi eta detektibe lanetan hasi nintzen Bilbon. Hasieran, lana oso arriskutsua zelako lan horretarako oso

gaztea nintzela esaten zidaten. Hiru urte geroago, Euskal Herri eta Europa mailan ospea izan nuen. Gainera, Euskal Herriko hamar detektibe onenetako zerrendan sartu nintzen.

Egun batean, dei ezagun bat jaso nuen, Barakaldoko fabrikaren nagusiarena, hain zuzen ere. Deia hartzerakoan hurrengo esan zidan:

- *Kaixo Jon, Felix naiz, zure nagusi ohia, Barakaldokoa. Minutu batzuk dituzu?*

- *Bai. Zer behar duzu?* - galdetu nion.

- *Bada, orain dela hilabete bat, nire arreba Aroa, Thailandiara joan zen eta Bangkok-en turismoa egiten zegoen bitartean desagertu egin zen. - erantzun zidan kezka ahotsarekin.*

- *Eta nolako da zure arreba?* - galdetu nion Felixi.

- *Aroa, berrogeita bi urteko neska altua eta argala da. Begi urdin argiak, ile kizkur beltza, sudur luzea, belarri handiak... Nire arreba diruduna da, familia oso famatu eta boteretsu batetik zetorren mutil batekin ezkondu zen, baina dibortziatu egin ziren eta Aroa bere senarraren diruarekin geratu zen.* - erantzun zidan.

- *Nola desagertu zen Aroa?* - galdetu nion jakingurarekin.

- *Inork ez daki, bertako poliziak ez du aurkitzen. Gainera, bahiketaren susmorik eta erreskate notarik ere ez dago. Orduan zuri deitzea erabaki dut, kasu hau argitu dezazun.* - esan zidan aginte ahotsarekin.

- *Eskerrik asko, oraintxe hasiko naiz arropak maletara sartzen eta ahalik eta azkarren Bangkokera joango naiz.* - erantzun nion seriotasunez.

Bangkokera joateko unea heldu zen. Bilbotik Bangkokera hegaldi zuzena ez zegoenez, lau hegazkin hartu behar izan nituen: Bilbotik Parisera, Parisetik Bukarestera, Bukarestetik Pekinera eta, azkenik, Pekinetik Bangkokera. Bangkokera zihoan hegaldia goizeko zazpietan zen. Lo gutxi egin nuen gau horretan.

Bangkokera heldu eta minutu bat geroago, dei ezagun bat jaso nuen. Felixek berriro deitu zidan, eta hau ozenki esan nuen:

- *Jon, lagundu egin behar didazu! Oraintxe jatorri ezezaguneko mezu elektroniko bat jaso dut eta ez dakit zer egin!*

- *Eta zer jartzen du posta elektroniko horretan?* - galdetu nion.

- *Bertan hau jartzen du: "Bost milioi euro eman behar diguzu, bestela ez duzu zure arreba inoiz ikusiko eta ezta pentsatu ere poliziari deitzea, laguntza eskatzeko. Aste bat duzu guri dirua emateko".* - erantzun zidan.

- *Orduan, zuk dirua eman behar duzunez, etorri Bangkok hirira eta bertan nirekin elkartzeko zara. Nik erreserbatutako hotelean egongo gara. Ados zaude?* - galdetu nion.

- *Bai, ados nago. Baina zu, badaezpada, egon zaitez aireportuan nire zain. Baina ez zaitez hurbildu, ez dugu arreta deitu behar. Gaizkileak zelatan badaude, ni bakarrik nagoela pentsatu behar dute. Gaur erreserbatuko dut bidaia eta etzi helduko naiz Thailandiako hiriburura.* - erantzun zidan ziurtasun osoarekin.

Eta horrela gertatu zen, esan zuen egunean heldu zen Felix. Dirua emateko eperako lau egun geratzen zirenez, Felix eta biok hotelean gelditzea erabaki genuen. Egun horietan geletatik bakarrik gosaltzera, bazkaltzera eta afaltzera irten ginen. Elkarrekin inoiz, baina beti hurbil. Trukea egin baino egun bat lehenago gaizkileen dei bat jaso genuen eta hau esan ziguten:

- *Bihar goizeko hamarretan Bangkokeko kale handieneko hasierako lantegi abandonatuan itxarongo zaitugu, bakarrik etorri behar zara, bestela badakizu zer gertatuko den!*

Dirua entregatzeko eguna heldu zen. Felix eta biok gosaltzera joan ginen gertatu ahal ziren gauzetarako indarrak edukitzeko. Momentu horretan, Felixek Bangkokeko jendetzaren artean Aroaren senar ohia ikusi zuela esan zidan. Jarraian, fabrikara joan ginen, Felix oinez, eta ni, duela hiru egun alokatu nuen kotxe batekin, hura bere atzetik behatzen. Fabrikara heldu ginenean, Felixek dirua utzi zuen bertan zegoen zabor edukiontzi batean eta hotelera lasterka itzuli zen.



Ni fabrika zaintzen egon nintzen nire autotik, zer gertatuko zain. Minutu batzuk geroago, aurpegia estalita zuen gizon bat motor batean etorri, dirua edukiontzitik atera eta alde egin zuen. Hori ikusterakoan, autoa martxan jarri eta gizon horri jarraitzen hasi nintzen, distantziak mantenduz, hura

ez konturatzeke. Bat-batean, gizonak azeleratuz bira egin zuen eta kale oso estuan sartu zen. Nire autoa ezin zen sartu eta ezin izan nuen gehiago jarraitu. Dirua zuen gizonaren arrastoa galdu egin nuen.

Momentu horretan, oso atsekabetuta nengoen eta hotelera bueltatzea erabaki nuen. Heldu eta jarraian Felixekin elkartu nintzen gertatutako gauza guztiak kontatzeko. Biok triste geunden eta ez genekien zer egin. Lau ordu egon ginen hoteleko gelan eta gure buruak apur bat askatzeko hoteleko tabernara joatea erabaki genuen. Garagardo bi eskatzen egon nintzenean, Felix lasterka niregana etorri zen eta kasualitatez Aroaren senar ohia ikusi zuela baieztatu zidan. Biok bere atzetik joan ginen, hura konturatu gabe eta biltegi handi batera eraman gintuen. Biltegia 1500 metro karratu ingurukoa zen, borobil itxura zuen eta, gainera, erreka ondoan zegoen.

Bertara sartu zen eta minutu batzuk geroago, eztabaida ozen bat, oihuak, eta azkenik, tiroak entzun genituen. Jarraian, biltegira sartu ginen eta beltzez jantzita zegoen neska bat gugana etorri zen iheska. Eskuetan pistola eta diruaren poltsa zituela konturatu nintzen eta aurre egin nion kolpe bat emanez. Konortea galdu eta lurrera erori zen. Nik neska bizkarrean hartu nuen, eta Felixek dirua, eta gela handi batera sartu ginen. Bertan, beste hiru gizon lurrean hilda zeuden. Felixek gizon horietako bat Aroaren senar ohia zela esan zidan.

Neska suspertu genuen zer gertatu zen jakiteko:

- *Norentzat egiten duzu lan?*- galdetu nion.
- *Gizon horrentzako.*- erantzun zidan Aroaren senar ohia seinalatuz.
- *Orduan, zergatik hil duzue?*- galdetu nion berriro.
- *Hark Aroa bahitzeko kontratatu gintuen. Guk lan guztia egin dugu eta diruaren zati handiagoa nahi genuen. Berak ezetz esan digu eta horrela hasi dira tiroak. Nire bi kideak hil ditu eta, orduan, nik hura hil dut. Mesedez, ez nazazue kartzelara eraman.*- erantzun zidan tristurarekin.
- *Ez zaitugu kartzelan sartuko Aroa entregatzen badiguzu.*- erantzun nion seriotasunez.

Azkenik, neskak biltegiko egongela sekretu batera eraman gintuen, eta bertan, Aroa zegoen aulki batera lotuta. Felix eta ni oso pozik geunden Aroa salbatu genuelako. Bat-batean, polizien sirenak hurbiltzen entzun genituen. Laurok biltegiko atzeko atetik atera ginen ziztu bizian, gu hotelera eta neska auskalo! Hotelean geundela Felixek hurrengo komentatu zuen:

- *Azkenean, zurrumurruak egi bihurtu dira. Aroaren senar ohiak diru arazoak zituela entzun nuen, baina ez nituen sinesten.*

Hurrengo egunean, hirurok Bilbora bueltatu ginen eta Felixek ehun mila euro eman zizkidan, istorio bitxi honi amaiera emanez.



Mireia Otaduy Ugalde

DBH 2. maila

“Fantasiazko ipuinak irakurtzea gustatzen zait”

MAHATSEN MISTERIOA

Kanpai-hotsak entzuten eta aho guztia mahatsez beterik. Urte berria ospatzen. Urtea hasteko, azkenengo mahats hura gelditzen zen. Denok pozarren jaten, hori baita gehien gustatzen zaiguna.

Bat batean, sentsazio bitxi baina berezia sentitu nuen, inoiz izan ez nuena. Une batez, begiak itxi eta nire buruan milaka kolore ikusten nituen bueltaka. Irekitzerakoan, nire begietan aurora borealak islatzen ziren. Iluntasunaren menpean nengoen, bakardadean, hotzaren hotzez izozteko zorian. Ametsa zen, edo hori espero nuen behintzat. Ikuskizun liluragarria zen, kolore guztiak dantzatzen ikustea.

Orduan, atximur egin nuen eskuaren ondoan esnatzeko, baina, oraindik nire begietan islatzen ziren haiek. Nire burua nahastuta zegoen, nire oroitzapenak desagertzen apurka-apurka. Beldurrak eta urduritasunak ez zidaten lasaitzen uzten.

Burua gogor astindu eta ingurura begiratu nuen. Leku hori ezezaguna egiten zitzaidan, dena zuri zegoen, elurrez beterik, ingurutik jendea pasatzen ikusten nuen leretan eta haietatik txakurrak tiraka. Gorputz guztia dardaraka hasi zitzaidan beldurrarengatik, baina gehien bat hotzarengatik, pijaman bainengoen. Malkoak elur-maluta bihurtzen zitzaizkidan. Zerbait egin behar nuen agudo. Begirada jaso eta urrunean etxe batzuk ikusi nituen, ez zitzaidan beste gauzarik bururatu korrika haietarantz abiatzea baino. Han joan nintzen ni.

Heltzerakoan, ni baino zaharragoa zen neska bat ikusi nuen etxera sartzen eta aprobetxatu egin nuen ea non nengoen galdetzeko.

- *Kaixo.* -esan nion nik ulertuko ez zidan kezka.
- *Kaixo.* -erantzun zidan segituan.

Harrituta nengoen, ez nuen espero nire hizkuntza bera jakitea.
- *Sar zaitez etxe barrura, ez duzu itxura onik.* - esan zidan berak.

Eskertu egin nion izoztuta nengoen eta.
- *Ni Garbiñe Temati naiz, nire abizenak oso ondo deskribatzen nau egia esan* - aurkeztu nintzen.
- *Ni... Liroy Heikkinen naiz. Eta zer behar duzu?*
- *Bada, oso gauza arraroa gertatu zait, sinestezina.* - esan eta ondoren dena kontatu nion.

Amaitu nuenean, ez zidala sinesten edo ez nagoela burutik ondo esango zuela pentsatu nuen, baina bere erantzunak atentzioa eman zidan.
- *Eta, gogoratzen al duzu zerbait?*
- *Gogoratzen dudak bakarra etxean nengoela urte berriko mahatsak jaten eta bat batean hemen agertu naizela da. Ez dakit nola arraio iritsi naizen honaino. Hala ere, non nago?.* - aipatu nion.
- *Hau Laponia da.*
- *Laponia?* - galdetu nion nik txundituta.
- *Bai. Eta zu, Garbiñe, nongoa zara?*
- *Mmm... Ene bada! Ez dut gogoratzen!*

Nire burua zoratuta zebilen. Lasaitzeko, Liroyk mahaian zegoen urrutiko agintea hartu eta telebista jarri zuen.
- *Itsas txakurren desfilea?* - galdetu nion barreguraz.
- *Bai, oso ohikoa da hemen.*

Sofan eserita geundela, Liroyk esan zidan berak oso gustuko zuela leran ibiltzea txakurrekin, izatez paketeak banatzen zituela herri osotik. Niri ere egunen batean gustatuko litzaidake hara eta hona ibiltzea txakurrekin eta leraren gainean, elurraren gainetik.

Liroy bat batean zutitu eta sukaldera joan zen ziztu bizian. Bueltatu zenean pakete bat zuen eskuetan.
- *Ia ia ahaztu egin zait! Pakete hau entregatu behar dut. Nahi duzu etorri nirekin, Garbiñe?* - galdetu zidan Liroyk.
- *Jakina baietz.* - erantzun nuen pozarren.

Galtzetin beroak eta beroki handi bat eman zizkidan ez hozteko. Kanpora irten ginen eta elurra ari zen goitik behera, ume guztiak zeuden kanpoan elurretako panpinak egiten. Liroyk paketea hartu zuen eskuetan eta hark zuen eranskailua irakurri zuen. Honako hau jartzen zuen: "*debekatuta zabaltzea*".
- *Nork irekitzen ditu bada besteen paketeak? Nik ez behintzat* - esan zuen Liroyk.

Eranskailua alde batera utzi eta leraren gainean abiatu ginen. Zoragarria zen, kapitainen bezala sentitzen nintzen baina ura beharrean elurra zeharkatzen. Han zihoazen leraren aurrean tiraka zoriontsu txakurrak.

Helbidea jarraituz, egurrezko etxola txikitxo bat ikusi genuen. Horixe zen. Leratik jaitsi eta atea jo genuen. Amonatxo batek ireki zigun.

- *Kaixo neskatilok.* - esan zigun berak.
- *Kaixo andrea, pakete bat dugu zuretzat.* *Tori.* - erantzun nion.
- *Bai, eskerrik asko. Ongi etorri, sar zaitezte barrura berotan.*

Egongelara eraman gintuen eta sofán esertzeko esan zigun. Bitxi samar egiten zait jendeak etxe barrura sartzeko gonbidatzea baina suposatzen dut Laponian ohikoa izango dela itsas txakurren desfileen bezala. Amonatxoa ere gure aurrean zegoen sofán eseri zen paketea eskuetan zuela.

- *Eta zer dela eta du eranskailu hori?* - galdetu zion adinekoari.
- *Oso gauza berezia duelako barruan, edozeinek ezin duena ikusi.*

Barnean zer zegoen jakiteko irrikaz geunden. Zabaldtu zuenean eta hura ikusterakoan... Horixe bai ez genuela espero.

- *Andrea, eta hori zertarako behar duzu?* - galdetu nion.
- *Ez dira niretzako neskato.*

Isiltasun una sortu zen.

- *Eta norentzako dira orduan?* - galdetu zion azkenean Liroyk.
- *Zuretzako.* - erantzun zion niri adierazten.

Ez nuen ezer ulertzen. Alde batetik niretzako izango baziren, niretzako izango zen paketea eta bestetik, zertarako behar ditut nik hamabi mahats ez bada gabon zaharra?

- *Bai, oraintxe jan behar dituzu. Hara bada, nola heldu zara Laponiara? Mahatsak jaten, eta modu berdinean itzuli beharko duzu. Zaila egingo zaizu hau ulertzea baina mahatsak jan behar dituzu. Eta hurrengo istorio guztia zeuk asmatu beharko duzu.* - esan zidan amonatzak.

Ez dakit zer esan nahi zuen istorioarekin baina, ezinezkoa zen. Estralurtarrak agertzea baino ez zen falta.

- *Hartu hauek eta jan hamabiak.*

Mahatsekin batera, Liroyk gutun-azal bat eman zidan eta esana egin nuen. Azkenengo mahats hura gelditzen zen. Jaterakoan, sentsazio berezia sentitu nuen baina ez zen bitxia. Berrero ere. Begiak itxi, ireki eta... nire logela. Han nengoen, idazmahaietan jesarrita eta gutun-azala aurrean neukala. Lehenengo egin nuen gauza gutun-azalean zegoena ikustea izan zen. Atera eta... marrazkia?



Marrazki hori ezaguna egiten zitzaidan. Nire burua oroitzapenen bila hasi zen, haurtzarora. Azkenean gogoratu nuen baina ezinezkoa zen. Txikitan nik egindako marrazkia zen. Neskato bat, hobeto esanda, ni neu. Gaztaina koloreko ile luze kizkurra eta begi berde ilunak. Baina nolatan zuen berak? Nire burua zoratuta zebilen ez zuen ez aurrera ez atzera egiten.



Istorio hau guztia gertatu ondoren ametsa zela pentsatu nuen. Baina, egunetan gogoeta eginez, marrazkia gogoratu nuen eta hori eduki zezakeen bakarra neu nintzela konturatu nintzen ez niolako inori erakutsi, amari ere ez. Eta hori bazen erantzuna, Liroy delako hori neu banintzen etorkizunean? Horrek dena azalduko zuen, nire hizkuntza bera ulertzea, gertatu zitzaidan guztia arraro ez egitea eta batez ere marrazkiarena. Azken finean, berak ere esperientzia hori biziko zuen bere iraganean. Mahats horiek nolabait “etorkizunera” eramán nindutela nuen buruan. Egia ala ez nik hori sinesten nuen, ez nuen beste arrazoirik aurkitzen ametsarena izan ezik, baina, esperientzia hori benetakoa iruditu zitzaidan. Niretzako zentzu gehien zuen arrazoia mahatsak etorkizunera eramán nindutela zen. Eta buruan neukan hori egia bazen ere, oraindik bi galdera nituen. Nola zekien amonatzko horrek mahats horiek jan nituela? Eta zertarako nahi izango nuke nik iraganean etorkizunera joatea? Hamar urte barru egia osoa jakin nuen eta dardoekin erdi erdian jo nuen.



Ekaitz Gutierrez Arana
DBH 2. Maila

*"Nagusitu zaitez zure lekua baduzu".
(Zarena zarelako)*

MARGOLANETAN

Mikel izeneko mutiko bat Gernikan bizi zen, ama eta aitarekin. Zuri-zuria zen, itsasoa bezalako begi urdinekin, argala eta txikia. Etzi 13 urte egingo zituen, institutuan zebilen, baina desberdina zen, bere ikasgura oso handia zen. Edozein gauzaren gainetik, margolaritza gustatzen zitzaion, ez bakarrik marraztea, margolari famatuei buruz ikastea ere. Hoberena Leonardo da Vinci zela zeritzon, bisionari garrantzitsuena izan zelako, baina, margolan onena ez zen da Vincirena, baizik eta Pablo Picassorena, "Guernica".

Mikelen gurasoak institutuan zegoen zubia aprobetxatu nahian, bidaia bat antolatu zuten Madrilera, hegazkinez, eta Reina Sofia museorako hiru sarrera hartuta. Mikelen urtebetetzea heldu zenean, gutun-azal txiki bat ikusi zuen: "Madrileko Reina Sofia museorako hiru txartel", barruan zeuden. Mikel, oso pozik, besarkada handia eman zien gurasoei, eta opari guztiak zabaldu ondoren, familiarekin txokolatada egin zuen. Hurrengo eguneko hegazkina arratsaldeko bostetan irteten zen, Loiutik Barajasera, baina bidaia ordu batekoa zenez liburu bat eramane zuen. Aireportutik korrika ibili ziren, baina azkenean, hegazkinera sartzea lortu zuten. Mikelek liburua atera eta irakurtzen hasi zen. Margolanetan sartzen zen mutiko baten istorioa kontatzen zuen, mutikoak margolanez margolan salto egiten joaten zen, bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta, horregatik, Dalíren margolanak arriskutsuenak ziren, haien surrealismoa barruko mutikoari eragiten ziotelako. Liburu ederra iruditu zitzaion, baina ez zen sinesgarria.

Liburua amaitu eta Barajasera heldu ziren, baina Madriletik urrun zegoenez, auto bat alokatu zuten. Haien hotela Hotel Nuevo Madrid zen, ondo kokatuta eta museotik gertu. Logelara joan zirenean dutxatu eta kalera irteteko prestatu ziren. Arratsaldeko zazpiak emanda zeudenez, ez ziren asko ibili, taberna batzuetara joan, paseo bat eman... eta berriz bueltatu ziren, hoteleko buffetean afaldu eta gero, lo egitera joateko. Goizeko zortzietan jaiki eta prestatu egin ziren, hotelean gosaldu eta jarraian Reina Sofia museora joan ziren. Sartu baino lehen eraikina kanpotik ikustea pentsatu zuten, eta ordu erdi beranduago sartu ziren. Barruan zeudela, margolan guztiak ikusten zituzten, baina ez bakarrik Mikelek, gurasoak ere oso azkarrak eta jakingurakeriak ziren. “Gernika” margolana ikustean, Mikel asko hurbildu zen, nahiz eta margolanetara ez hurbiltzeko esan. Gero eta gehiago aurreratzen zuen aurpegia, baina atzetik, segurtasun zaindaria hurbiltzen hasi zen, oihuka, baina Mikelek ez zion jaramonik egin, eta bekokiak eta margolanak tope egitean desagertu egin zen. Gurasoak polizia deitu eta aurkitzen saiatu ziren, baina ez zen inondik agertzen.

Mikel esnatu zenean, gurasoak ikusi zituen, baina bera, margolanaren barruan zegoen, eta gurasoek ez zuten ikusten. Konturatu zenean jendea korrika zebilen, denak negarrez zeuden eta zarata handia zegoen, Gernikako bonbardaketan zegoen! Bera ere korrika hasi zen, baina ez zekien nora joan, orduan gogoratu zuen, Frankok eraikin batzuk apurtu gabe utzi zituela. Jendeari hau esanez korrika joan ziren Errenteriako zubira edo Andra Mari elizara. Azkenean gehienak bizirik bukatu zuten eta Frankoren hegazkinak joan egin ziren. Denek, egindakoagatik, Mikel eskertu zuten, ehunka pertsona salbatu zituen. Denen artean berreraikitzen hasi ziren, eta momentu hartan asmatuta ez zegoen teknologiarik buruz informazioa eman zien Mikelek, horrela, denbora gutxiago behar izango zuten. Mikelek asko lagundu zienez, haiek, Gernikako lurren jabetza eman zioten, baina Mikelek bakarrik hartu zituen 1000m². Mikel berreraikuntza egiten lagundu zien, baina egun batean eraikinak ikusten zegoenean, Lumora joatea bururatu zitzaion. Bidean zegoela, dena bukatzen zela ikusi zuen, ez zegoen arbolarik, ez belarrik, ez etxerik, ezer ere ez. Ikustera hurbildu zenean, atso batek hortik aurrera ezin zela pasatu esan zion, baina Mikelek, bere jakingura jarraituz, “ezer” horretara hurbiltzen hasi, eta bat-batean, desagertu egin zen. Poliziek ez zuten Mikel aurkitzen. Egunak igaro ahala, bere gurasoak Gernikara bueltatu ziren, denei gertatutakoa azaltzera. Poliziek Mikelen aurkikuntzaren edozein pista izanez gero deituko zietela esanez lasaiago gelditu ziren, baina ez zekiten haiek egun bat egiten zutenean, Mikelek minutu bat baino ez zuela egiten, margolanetan sartzeko denboran atzerantz egitean, beraren bizitzak atzerantz egiten zuen ere, hau da, Mikelen ordu bat, gurasoen bi hilabete ziren!

Mikel, Dali batean agertu zen, baina ez surrealista, “Leihoan dagoen neskatoa” margolana zen. Honetan, neskato bat agertzen da, leihotik begira, itsasorantz. Urrunean itsasontzi bat ikusten da, portutik irteten. Margolaneko protagonista, neskatoa, Daliren arreba da, eta nahiz eta errealista izan, gorputzeko atal batzuk desproporzionatuta daude. Horregatik, Mikel heldu zenean, oinak txikitu zitzaizkion, eta kontu handiarekin berriz ere hasi zen ibiltzen. Neskatoa harrituta gelditu zen, nola heldu zen mutiko hori haien uda etxera? Mikelek gertatutakoa azaldu zion, baina 1925eko margolana denez ez zuen ezer ere ez ulertu. Neskatoak pentsatu zuen Leonardo da Vinci bezalako bisionari bat izango zela, gustatuko zitzaion Mikeli, baina ez, eta neskatoa Mikelekin maitemindu zenez, hanka jo zuen. Asko urruntzen bazen, aurreko margolanean bezala, berriz margolanez aldatuko zela pentsatu zuen, eta itsasontzi bat hartu zuen portuan. Neskatoa berriz bueltatu zen etxera, baina leihotik begiratzen gelditu zen, Mikel desagertu arte. Denbora horretan, Dalik, margolana egin zuen, eta bere arrebari gustatu zitzaionez, bukatzeko eskatu zion. Mikel kapitain bati eskatu zion joateko baimena, eta eman egin zion, baina itsasontzia garbitu beharko zuen. Hiru ordu beranduago, berriz ere ikusi zuen “ezer” hori, baina kapitainak, ez zuela jarraitu nahi esan zion. Mikel, itsasoaz beldurtuta, salto egin, eta igeri egiten hurbildu zen, baina ez zuen kontutan hartu “ezer” hori igarotzean blai eginda egongo zela. Gernikan, Mikelen ama eta aita goibel zeuden, asteburu guztietan bueltatzen ziren Madrilera, baina ez zen agertzen. Sei hilabete igaro ziren, Mikelen hiru ordu, baina berriro bueltatzen zenean errealitatera, Mikelek errealitatean galtzen zuen denbora golpe batean jauziko zitzaion.

Orain Munchen “Oihua”n zegoen. Mikel konturatu zen margolan hura ez zela Reina Sofía museokoa, baina gogoratu zuen esposizio baterako ekarri zutela. Errekara hurbildu zen, handik irteteko, baina gizon argal eta burusoil batek laguntza eskatu zion, itotzen zegoelako. Mikel bustita zegoen, orduan, berriro egin zuen salto. Besapetik hartu eta kanpora atera zuen. Agureak eskerrak eman zizkion, eta bere etxera gonbidatu zion, Mikelek joan egin behar zela esan zion, baina nora galdetu zionean ez zuen jakin zer erantzun. Agureari erakusteko prest zegoela esan zion, eta hori egin zuen, “ezer” horretara hurbildu ziren, eta, agureak, beste aldeko margolan modernista ikustean, oihu egin zuen, eskuak aurpegira eramanez. Munchi ideia gustatu zitzaion, eta agureari horrela mantentzeko eskatu zion, horrela egin zuen, baina Mikeli eskerrak eman ostean. Mikelek ordu bat igaro zuenez, errealitatean beste bi hilabete izan ziren. Mikel desagertuta zegoen, gurasoak triste, poliziak amorratuta eta Reina Sofíako zuzendaria beldurrak jota. Mikel agertzen ez bazen, zuhurrenik epaitu egin beharko zuten, eta behar bada, isuna jarri. Gobernuak mota guztietako poliziak bidali zituen, eta hiritarren laguntza eskatu zuten. Reina Sofíaren zuzendariak laguntza ematen zihoazen guztiei sarrera dohaina ematen zien, horrela, zigorra, gutxiagotu egingo zen.

Mikel, Ángeles Santosen “Mundu bat” margolanera salto egin zuen, baina heltzean zorabiatu eta jauzi egin zen. Margolanean musikarekin dantzan dauden neska batzuk agertzen dira, eskailera batetik bajatzen, kubo bat ematen duen hiri baterantz. Musikari batzuk daude aurreko planoan, eta atzean, eguzki bat, hiria argitzen. Zerua lainotuta dago, baina izarrekin dantza egiten dauden aingeruak ikusten dira, eguzkiaren beste aldetik. Mikelek eskailerak bajatzen zituenean, triste zegoen neska-talde bat ikusi zuen. Zer gertatzen zen galdetu zien, baina ez zuen erantzunik izan. Berriro saiatu zen, baina oraingoan ere ez. Azkenean, baketan uztea pentsatu eta hirirantz abiatu zen. Gauza asko zeuden, dena oso arraroa. Berriro gorantz igotzen zegoenean lehengo neskak ikusi zituen, oraindik goibel, eta berriro galdetu ostean, erantzuna izan zuen: “Hiria oso polita da, baina guk musika behar dugu”. Egia zen, Mikelek hiritik egin zuen ibilaldi horretan ez zuen musikarik entzun, baina mutiko azkarra zenez, musika tresna batzuk egin zituen. Pertsona batzuei eman, eta erraz hasi ziren jotzen. Oso txarto jotzen zuten, baina neskak dantza egiten hasi ziren, eta horrela ibili ziren denbora luzez. Mikel etxera bueltatu nahian “ezer”erantz abiatu zen, baina heldu baino arinago, polizia bat ikusi zuen beste aldean, margolanetatik kanpo. Eta poliziak ere, Mikel ikusi zuen.

Denei deitu ostean, ideia bat izan zuten, margolana erditik irekitzea. Horrela egin eta gero Mikel irten egin zen, baina bat batean 10 zentimetro hazi, eta 4 kilogramo loditu zituen errealtatearen eraginagatik. Gurasoekin besarkada handia eman, eta etxera bueltatu ziren. Egun batzuk beranduago, museotik deitu zuten, margolana ordaintzeko. Mikelek Gernikako 1000m² zituen, eta saldu ostean, diru nahikoa lortu zuten margolana ordaintzeko. Egunkari guztietan agertu zen, eta barruan gertatutakoa jakin nahi zuten marrazketa fakultateetako unibertsitateak., beka bat emateko, eta horrela izan zen. Baina Mikelek oraindik 14 urte zituen, ezin zen unibertsitatara joan, horregatik, esfortzu handia egin zuen ikasketetarako, batxilerrean ere, eta, azkenean, ohorezko lizentzia atera zuen. Mikelek, institutua amaitzean, beka asko zituen, eta unibertsitate batera joan zen, Madrileko unibertsitatara. Honetan ere esfortzu handia egin zuen, azkenean, berak nahi zuena egiteko, bere ametsa jarraitzeko, eta, urte batzuk beranduago, marrazketa katedra atera zuen.



Nikole Bermeosolo Rubianes

DBH 2.maila

“Pianoan jotako melodia bakoitza istorio baten hasiera da”

KONTU ZAHARRAK

Azken bolada honetan nire sentimendu nagusia urduritasuna da. Ia-ia hile bat daramagu ikastolan eta azterketa garaia hasi berri da. Ohikoa denez, nire burua Fisikako formulez, izenondoez, Erdi Aroko erreginez eta pianoko sonatez beteta dago.

Horrela sentitzen naizenean nire txakurrarekin Eako talaia den herriko dortoka erraldoia bisitatzea dut gustuko.

Bertara joatean Walt Disney-ko printzesa ederrak bezain alai sentitzen naiz. Inguruko arazoak ahaztu eta Billy Elliot bezala, dantzan hastea eta hegaz amaitzea erraza da bertan. Ingurumarian, inurrien hiri bat da arreta pizten duena. Orduan ulertzen ditut gure arbasoak, mundua zapal-zapala zela aipatu zutenean. Aldamenean, harrizko ermita bat aurkitzen da, urrezko pultsera batek erdian duen diamantea dirudiena.

Baina egia esan, ez dira guztiak sentsazio alaiak. Hemendik goitik begiratzean tristeziaren sentimenduak itotzen nau amamaren kontakizunak gogoratzen ditudanean.

Duela bi aste amonari istorio berri bat kontatzeko eskatu nion baina erantzun zidan istorio batzuk bizi egin behar direla eta ez kontatu. Beraz, domekero-domekero azaltzen zidan istorio bera kontatu zidan. Antzina, Eako marinela itsasoratzeko ordua heldu bezain laster, ermitara igo eta talaiako Amari zorte ona eskatzen



ziotela. Talaiatik bajatzen zirenean, berak nire aitona denari musu eman eta ziztu bizian aldapan gora joaten zela ermitarantz, uste zuelako bere senarraren eta beste marinelen bidai luze eta amaigabearen lekuko izateko aukera izango zuela.

Marinelen bueltatzeko ordua heltzen zenean, herriko biztanle gehienak, arropa dotoreenak jantzi eta ermitara hurbiltzen ziren bertan elkartzeko. Itsasgizonak portura heldu bezain pronto, talaiaiko Amarengana hurreratu eta eskerrak emateko otoi egiten zuten, bazekitelako beraien joan-etorrien arduraduna zela eta hark zaintzen zituela. Horri esker dakit Eako talaiara joaten naizen bakoitzean, hark ondo babesten nauela.

Behin, Matematika azterketa prestatzeko ahaleginetan, zenbakiez nazkatuta, talaia ingurura gerturatu nintzen ordu bateko bueltatxo bat emateko. Artadi eta eukalipto artean nindoala, bat-batean ustekabe bat gertatu zitzaidan. Nire txakurra, El Corte Ingeleseko beherapenak urrunetik ikusi balitu bezala, korrika hasi zen. Nik ozenki deitu nion:

-Pintxo!!! Etorri hona!

Baina ez zidan kasurik egin; beraz, txakurraren atzetik korrika hasi nintzen. Zoritzarrez, euria bota ahala zen eta blai eginda utzi ninduen. Hurbileko koba batera sartzea pentsatu nuen. Hamabost minutu beranduago, kobatik irten eta Pintxoren bila jarraitu nuen. Zokondo guztiak arakatu beharko nituen. Eta haietariko batean muturra sartu nuenean, hura nire ezustekoa!

Ez nekien zer zen nire begiek ikuskatzen zutena. Etxeak kolore ilunekoak ziren eta bertako pertsonen arropak oso arraroak. Kalearen erdian ispilu antzeko bat zegoen, eta bertan neure burua islatu zenean ez nintzen izan gai ezagutzeko, beste pertsona bat zirudien. Soinean neraman jantziak etxeko kortina zaharren antza zuen.

Nora jo jakin gabe, tupustean taberna antzeko bat begiztatu nuen urrunetik eta bertara abiatu nintzen. Taberna hura ronezko botilaz, kalaberaz eta jendez gainezka zegoen. Guztien begiradak emakume eder batentzako ziren, hark aginduak ematen zituen bitartean. Ni andrearengana hurbildu nintzen laguntza eske eta gertatutako guztia azaldu nion. Berak, nire agerpenak harritu ez balu bezala, honela hitz egin zidan.

- Kaixo Anne, ni Miren naiz. Eskerrik asko etortzeagatik. Herri honen salbaltzailea zara. Zure laguntza behar dugu ekialdeko piratei aurre egiteko eta orain, tori ezpata hau. Zure buruarengan konfiantza baduzu, ezpata honekin mirariak egingo dituzu. Ametsen bat baduzu, egia bihurtuko da. Baina gogoratu ezpata honek Koa herrian soilik funtzionatzen duela

eta herri honetara ausartak direla sartzen diren bakanak. Zoritxarrez, behin bakarrik erabili ahal duzu.

Nik ez nuen ezer ulertu baina era berean aho zabalik eta apur bat izututa sentitzen nintzenez, Mireni eskerrak eman nizkion beste ezer erantzun gabe.

Bat-batean neskato bat tabernara sartu, atea kolpe batez itxi eta garrasika hasi zen esanez ekialdeko piratak han zeudela. Tabernako guztiak oso urduri jarri ziren, Miren izan ezik. Niregana hurbildu eta esandakoa gogoratzeko xuxurlatu zidan.

Pumm!!!Pumm!!!Pumm!!! entzun zen ate ostean ekialdeko piratak tabernara sartu baino lehen. Ostikada batez atea ireki eta haiek ikusterakoan oso urduri jarri nintzen. Zer egingo nuen? Nire odola izotz bihurtu zen eta nola ibili ere ahaztu egin zitzaidan. Baina Mirenen agindua gogoratu eta berehala, izoztutako odola su bihurtu zen. Beraz, ezpata eskuetan hartu eta nire ametsetan pentsatzen hasi nintzen. Une horretan neure buruari esan nion herri hura salbatu behar nuela baina nik amets asko nituen: Ilargira joatea, mediku izatea...Desio guzti horien artean Koa herria salbatzea ere bazegoen. Erabaki bat hartu beharra nuen bai edo bai. Zertarako erabiliko nuen ezpata?

Ingurura begiratzean herriak behar zuen laguntzaz ohartu nintzen. Koa herriaren deia zen hura. Salbatu behar nuen. Desioa egia bihurtzeko eskatu bezain laster, ezpatak agindua bete eta ekialdeko piratek alde egin zuten ziztu bizian.

Herritarrek, gertatutakoa ospatzeko, afari izugarri bat prestatu zuten hurbileko hondartza batean. Afarira joan baino lehenago Mirenekin hizketan aritu nintzen eta nire izena nola zekien galdetu nion. Honek Annen aurpegia nuela erantzun zidan. Nik harrituta begiratu nion gezurretan zebilela nabaria zelako. Hiruzpalau galdera egin nizkion baina ez zidan erantzunik eman. Istorio batzuk bizi egin behar direla eta ez kontatu izan zen aitortu zidan gauza bakarra. Esaldi hori lehendik entzunda nuela banekien, baina *dejavú* bat izan zitekeela ere pentsatu nuenez, ahaztu egin nuen kontu hori. Hamar minutuko hizketaldia eta gero, Miren eta biok hondartzan batu ginen herritarrekin. Hondartzaren erdian izugarrizko mahai bat zegoen, janariz beteta. Ume txikienak jaten hasita zeuden nagusiagoak hitz egiten zuten bitartean. Nik hamahiru urte nituenez, umeekin eseri nintzen mahaian.

Bat-batean euria hasi zuen barra-barra. Ni ez ezik, umeak ere hondartzan dantzan hasi ziren. Blai eginda geundenez, hurbileko koba batera sartu ginen. Bertan Zelai errea eta Izenik gabe delako jokoak egin genituen. Nire lagunak kobatik irten zirenean nik jarraitu egin nien atzetik. Baina irteterakoan, Eako talaia aurkitu nuen begi aurrean. Pintxo nire zain zegoen eta nik besoak zabalik hartu nuen korrika eta saltoka hurbildu zitzaidanean.

Buelta eman nuen kobari azken begirada emateko baina ikusi nuen bakarra lorez beteta zegoen landa berde bat izan zen. Zur eta lur geratu nintzen. Non zeuden Koa-ko herritarrek? Une horretan Miren eta bere irribarrea gogoratu nituen. Eskua poltsikoan sartu eta paper zati bat atera nuen.

Anne maitea:

Eskerrak eman nahi dizkizut egindako guztiagatik. Bizirik irauteko arrazoia uste duzuna baino askoz ere sakonagoa da. Sentitzen dut oraindik ezin azaldu izatea.



Ordu biak jo zutenean, amonaren etxe aurrean geunden Pintxo eta biok. Amonak goizean egindakoaren berri jakin nahi zuen. Gertatutako guztia kontatzeko irrikan nengoen baina ezer esan baino lehen, bi aldiz pentsatu nuen zer erantzun. Egia esaten banion, amonak txoratuta nengoela uste izango zuen. Beraz, herritik buelta bat ematen aritu ginela eta gose nintzela izan ziren nire hitzak. Amonak, janaria hozten ari zela eta esertzeko agindu zidan. Aurpegira begiratu nion eta Koa herriko emakumeaz gogoratu nintzen nire amonaren antz izugarria zuelako.

Istorio hau hemen bukatu dela uste duena, oker dago, bada, oraindik ez daki ni bizirik irautearen benetako arrazoia.



Peio Enbeita Kaltzada
DBH 2. maila

“Gero dioenak, bego dio”

ZER IDATZIKO IDEIARIK EZ...

Idazten hasi aurretik, hola guztioi, nor naizen esanez hasi beharko naiz beharbada, edo ez dut zertan, azken batean ni naiz honen idazle eta zer egin erabakitzeke ahalmena nik neu daukat. Eta pixkat antisistema naizenez, nire burua aurrerago aurkeztuko dizuet.

Egoeran jarriko zaituztet. Gaur igandea da, bero itzela egiten du, eta nire lagunekin batera hondartzara joan beharrean etxean geldituko naiz. Ez da joan nahi ez dudalako, baizik eta etxean gelditu beharra dudalako. Zerbait garrantzitsua izan beharko dela pentsatzen ariko zarete, dagoen beroarekin bainu eder eta freskagarri bat hartu gabe geratzeko. Agian, zuentzat ez da hain garrantzitsua izango, baina niretzat... Orain bertan lehentasun bezala daukat. Irrikan zaudete jakiteko, ezta? Oraingoan zuekin zintzoa izango naiz eta esan egingo dizuet, ipuin bat egin beharra daukat. Herenegun, gure euskara irakasleak, astebururako bidalitako lan hau egin beharra daukat. Eta momentu honetan damutzen naiz nire aitonari kasu egin ez izanaz, berak beti esan ohi didalako lanak lehen egunean egiteko, azken egunerako ez uzteko alegia. Berriz ere aitonak arrazoi... Eta nola ez, aitonak ez du bere aukera galdu, eta jabetu den segundo berean etorri da nire logelara, berari kasu egin ez izana aurpegiratzen.

Tira, hemen segitzen dut lanean, horri lan egitea deitzerik badago. Ur-jauzi bat ematen dut, burutik behera izerdia botatzeari utzi gabe. Erosi berri dudan haizagailuak ez dit fruiturik eman. Baina badago beroa baino gauza txarragorik, ez naizela lanarekin hasi ere. Hainbat eta hainbat alditan izandako arazoa berriz ere nirekin nago, oraindik ez dit agurrik esan eta, itxuraz nire alboan jarraitzeko gogoarekin jarraitzen du, zoritxarrez. Arazoa honako hau da, ez zaidala ezer ere bururatzen, zer idatziko ideiarik gabe nago.

Beste egoera batean kapaz izango nintzen arazo honi aurre egiteko, egongelara joan eta Olentzerok ekarritako Play Station 4ra jolasten hasi baino ez, baina nire ama madarikatuak (barnean maite dut baina...) ezkutatu egin dit, zigor bezala, lehengo egunean tutoreak idatzitako ohar bat heldu baitzen etxera, jarrera eta horrelako kontuak direla eta... Gaurkoa ez da lehen aldia honako zerbaite gertatzen zaidana, baina beste egunetan beste aukera bat izan ohi dut, plan B deituriko horietako bat. Ander nire auzokidearengana jotzen dut honako kasuetan. Ander goian bizi da, eta beti izaten da bakarrik, bere gurasoek lan-ordu asko baitute.

Lanean jarraitu beharko dut, ez daukat beste aukerarik, espabilatu beharra daukat, bestela ito egingo naiz eta. Buruari buelta eta buelta aritu naiz, ikuzgailu bat programa osoarekin aritzen den antzera. Azkenean bururatu zait, Athletic-eko jokalariek gol ziztrin bat sartzeko behar duten denbora baino gehiago pasatu dut gai hau bururatu arte. Bai, ni ere futbolzalea naiz, bai, baina honi buruz aurrerago hitz egingo dizuet. Bururatu zaidan gaia hurrengo hau da, errealitatean gertatzen ari zaidana azaltzea, igande bero honetan pasatzen ari zaidan hau kontatzea. Ez nau askorik konbentzitzen, baina ez dut beste aukerarik. Suposatzen dut, puntu honetara ailegatu bazarete, horixe egin dudalako izan dela. Ez zait arraro egingo gustatzen ari ez bazaizu baina..., ahal dudana egin dut eta punto!

Hori guztia esan ondoren, pixkat blokeatuta gelditu naiz. Dagoeneko idatzi dut orain arte pasatu zaidana, eta espero nuena baino hobeto noa, baina oraindik badaukat gauzak kontatu beharra, eta zu, irakurle kuttun, orain arte idatzi dudana gustuko izan baduzu, irrikan izango zara nire eguna nola bukatuko den jakiteko. Neure burua ederto ezagutzen dut, eta dudan zortearekin seguru nago bitxikeriaren bat edo espero ez dudan zerbaite gertatuko zaidala. Baina ez naiz ezer egin gabe geratuko, ezta? Zerbait idatzi beharko dut bitartean, ez naiz eskuzabalik geldituko. Daukadan denbora tarte gutxia aprobetxatu beharra daukat.

Baina lehen esan dudan bezala, blokeatuta gelditu naiz, momentu honetan berriro ere hasieran nuen arazoa nire buru barnera sartu da, arrazoi nuen nire ondoan segituko zuela pentsatzen nuenean.

Eta zer idatzi ez dakidalako momentu hau aproposa iruditzen zait nire burua aurkezteko, garaia da eta.

Nik Peio dut izena, horrela deitzea nahi izan zutelako nire gurasoek bere garaian. Ez nau guztiz konbentzitzen, baina gutxienez bost urte gehiago horrela jarraitu beharko ditut. Ez naiz kontu horretan gehiago nahaspilatuko, hori beste egun baterako utziko dut.

Benoa, buruari buelta batzuk ematen badizkiozue, dagoeneko jakingo duzue, bai nik 13 urte ditut, nire herriko ume guztiak bezala udaletxe aurrean dagoen ikastola txikira joaten gara. Herria oso txikia denez, guztiak ezagutzen gara, hori abantaila bezala ikusiko duzue, baina guztiak ez dira abantailak, gorroto dut kalean zeharkatzen dudana jende guztia agurtu beharra. Bideo-jokoak oso gustuko ditut, arazoak ahazteko oso erabilgarriak iruditzen zaizkit.


Eta bukatzeko, nire lagun guztiak eta ia mundu guztiak bezala, futbola oso gogoko dut, Athletic zalea naiz, eta nire herritik oso hurbil dagoen herri handiago batean jolasten dut nire lagunekin batera.

Arraioa! Mugikorra eskuan dut, 23:40 markatzen du, ezin da egia izan! Lo hartu dut, eta euskarako lana bukatu gabe daukat! Ezin dut sinetsi, ez dakit nola lokartu naizen lan hau egiten ari nintzen bitartean. Orain ezin dut bolumena altxatu, nire gurasoak ez izartzeko, eta denborarik ere ez, lokartzeko ordua da eta. Hori dela eta, ez daukat denborarik zer idatzi pentsatzeko. Horregatik, amestu dudana kontatzea erabaki dut.

Baserrian nengoen, hilero bezala, aitonari eta amonari bisita egitera; nahiz eta gero denbora osoa lanean ibili. Aiton-amonei bazkaria egiten laguntzen diet, piperrak lehortzen jartzen, baserria garbitzen, baserriko abereei jaten ematen, eta ortuko lanetan laguntzen. Baina oraingoan plan berezia genuen arratsalderako. Taloa askaltzeko ideia genuen, eta horretarako lanean ari ginen, artoa birrindu genuen irina lortzeko eta gatz eta ur pixka batekin oreka prest genuen amonak eta biok. Aitona bitartean txorizoa egozten ari zen, ondoren taloarekin batera jateko. Oreari forma eman eta zartaginean jarri genuen, eta ondo eginda zegoenean txorizoa sartu eta hirurok jatera. Nahiz eta momentu horretan ez konturatu, disfrutatu egiten genuen hirurok batera ginenean, oso gogoko genuen batera egotea, gure irribarrea ikusterik besterik ez zegoen. Baina guztia ez zen hain polita izan, bestela pelikula bat izango zen, igande arratsaldeetan telebistan ematen dituzten horietakoa. Taloa jaten ari ginela, aitonari txorizo zati bat bide txarretik joan zitzaien, eta ito egin zen. Momentu horretan amonak eta nik ez genekien nola erreakzionatu, eta dagoeneko nire aitona ia arnasarik gabe gelditu zen.

Une hartan esnatu naiz, mugikorrean ordua ikusi dudanean aluzinaturik gelditu naiz, eta hau idaztea bururatu zait. Oraindik ez dakit zer gertatu zaidan, edo eta nire aitona ondo dagoen. Horregatik erabaki dut momentu honetan idazteari uztea. Eta bihar goizean esnatzen naizenean, ikastolara joan eta nire irakasleari hau entregatuko diot. Ikastolatik irteterakoan arrapaladan joango naiz baserrira nire amona eta aitona ondo dauden ikustera, eta bukatzeko, bihar nire irakasleari eskatuko diot nire lana uzteko; lan honek ondo bukatzea merezi duelako, eta zuek, irakurleok istorio honen bukaeraren berri jakitea merezi duzuelako.

Dagoeneko asteartea da, eta bai, ikusten duzuen bezala, hau ez da oraindik bukatu, hau da, irakasleak istorio honi bukaera ematen utzi dit. Atzo joan nintzen baserrira, nire aiton-amonak ikusi nituen, eta ederki zeuden, ezin nuen emozioa gehiago eutsi, eta negar egiteari utzi gabe eupilako besarkada bat eman nien biei. Eta nire aitonari hitzeman nion berriz ez nuela lanik ez beste ezer azken egunerako utziko.





Ane Mei Aspiazu Etxeandia

DBH 3.maila

"Izan gaitezen munduan ikusi nahi dugun aldaketa."

(Mahatma Gandhi)

BEGI ERRUGABEEN ATZEAN EZKUTATZEN DENA

2013ko urriak 19a.

Jada pare bat hilabete pasatu dira institutua hasi zenetik, eta tamalez, gauzak asko aldatu dira hasieratik hona. Notak, azterketak, gurasoak... ez dira nire kezka nagusia momentu honetan, Arlette baizik. Uda igaro denetik ia ez dugu elkar ikusi, aurren klase desberdinetan baikaude; baina, ahala ere, uste dut zerbait arraroa gertatzen ari zaiola, orain ez nau lehen bezala agurtzen, beste pertsona batzuekin geratzen da niri abisatu gabe... gutxika-gutxika elkarrengandik banatzen ari garela sentitzen dut. Arlette beti dabil liburutegian sartuta beste "friki" batzuekin aldizkariak irakurtzen, eta nik, berriz, jende berri mordoa ezagutu dut, eta nahiz eta behin eta berriz errepikatu ez direla fidatzeko pertsonak, askotan beraiekin elkartzeko naiz patio orduetan. Hauei esker, Instagram kontu bat zabaldu dut eguneratuta egon ahal izateko, eta, saiatu naiz Arlette konbentzitzen berak ere berdin egiteko, baina ezinezkoa da, denbora galtze hutsa dela uste du.

2013ko abenduak 21a.

Lehenengo hiruhilabeteko noten txostena erakutsi diet gurasoei, eta izandako jaitziera ikusita, errieta txiki bat jaso dut, baina orain arte ikasle fina izan naizenez, hutsegite bat besterik ez dela izan uste dute. Inoiz baino hobeto sentitzen naiz, ikasketak alde batera utzi izan arren, egunero lagunekin kalera irteteak merezi duelako. Orain arratsaldeak inoiz baino dibertigarriagoak dira.

Arlette, berriz, gero eta aspergarriago bihurtzen ari da, ez du bizitzaz disfrutatzen, arratsaldero lanak egiten jarduten du eta asteburuetan bideo-jokoetan aritzen da mutilekin. Institutuan mari-mutil deitzen diete! Egia esan, mutilen gustuak besterik ez ditu: futbola, bideo-

jokoak... Ezin dut sinetsi pasa den urtean ni ere bera bezala ibiltzen nintzela, hori bai bizitza triste!

Abenduak 23 arratsaldean festa itzela izango dugu institutuko atzealdean dagoen landa antzeko horretan. Gurasoei Gabonetako lan bat aurreratzeko geratu naizela eta ziur aski berandu arte ezingo dudala etxera bueltatu esango diet.

2013ko abenduak 24a.

Atzo inoiz baino hobeto pasatu nintzen, ezagutzen ez nituen pertsona pila batekin elkartu ginen. Lehen aldiz takoidun oinetakoak eta makillajea erabili nituen, baina, egia esan ez dut ideiarik ere takoidun oinetakoekin ibiltzen, eta are gutxiago makillajea erabiltzen, ni beti joan bainaiz praka zabal eta zapatila erosoekin, baina lagun koadrila guztiak eramaten zituenetz eta mutilak erakartzeko momentu ezin hobeaz zenez, hauek jartzea erabaki nuen, eta bai! Sinestezina iruditu arren, funtzionatu zuen! Mutil asko hurbildu zitzaizkigun, gu baino nagusiagoak zirenak ere, eta horrez gain, zenbait konbinatuetara gonbidatu gintuzten. Ez dut ondo gogoratzen zenbat edan nituen nik, baina pare bat baino gehiago bai.

Gaueko ordu batakoa aldera, gurasoen dei bat jaso nuen, baina mutil batekin "liatzen" ari nintzenetz ez nion kasu handirik egin.

Noiz edo noiz mutilen bat gustatu izana gogoratzen dut, baina Arlettekin komentatu eta hori galditzen zen. Beraz lehen aldia zen norbait musukatzen nuela, momentu magikoa benetan. Mutilak Martin zuen izena eta oso gustura geundela ikusita, mugikor zenbakiak trukatu genituen.

Bigarreneguz mugikorra begiratzear, goizaldeko hirurak eta erdi ziren. Oso berandu zela ikusita, inguruko neskei joan egin behar nintzela abisatu nien, eta ulertzekoa zenez, beraiek parrandan segitu nahi zuten, beraz, lehen autobusa hartu beharra nuen etxera ahalik eta arinen bueltatzeko. Erdi mozkortuta egon arren, izugarritzko beldurra pasatu nuen bide ertzetik nihoala. Zorionez, sano eta salbu heldu nintzen geltokira. Jada laurak laurden gutxi ziren, eta autobusa ailegatzeko beste hamabost minutu falta ziren oraindik, eta hotzez hiltzen nengoen, jantzi deseroso eta mehe bat bainuen soinean. Hori gutxi balitz, oinak minbera neuzkan, momentu horretan galtzerdi eta zapatila eroso eta bero batzuk jarri ez izana damutu nintzen, baina esaerak dioen bezala: "para lucir hay que sufrir".

Azkeneguz, autobusa ez zetorrela ikusita, behartuta sentitu nintzen gurasoak deitzera.

Etxera ederki bueltatu nintzen, baina berebiziko liskarra jaso nuen, eta nire bizitzako lehen zigorra ere bai. Izan ere, nire gurasoek beti pentsatu dute izan ahal daitekeen alaba hoberena zutela eta gai zela bere arduren erantzule izateko, beti egon baitira oso harro nitaz, baina zituzten itxaropenak apurtzeko eguna ere, heldu dela ematen du.

2013ko abenduak 25a.

Gabonak ez dira Gabonak izango... Opor guztiak etxean sartuta eman behar ditut atzeratutako lan guztiak egiten, hau bai zigorra! Eta oraindik txarragoak izateko, gurasoek mugikorra kendu didate. Orain ezingo dut Martinekin kontaktuan egon... zer pentsatuko ote du? Berataz ahaztu naizela? Edo ez dudala gogoko?

2013ko urtarrilak 5a.

Egunero lanak egiten ihardun dudala esan diet gurasoei eta horren truk mugikorra bueltatu didate! Hau bai poza! Martinekin hitz egin ahalko dut, azkenean!

Mugikorra hartu bezain laster logelara joan naiz, korrika mezuak ikustera. Oso arraroa iruditu zait inoren mezurik ez izatea, aste guzti bat egon bainaiz mugikorrik gabe. Izandako festa izugarri haren ostean, ez du inork ezer komentatu Whatsapp taldetik eta Martinek ez dit kontaktu gisa erantsi oraindik, hau bai arraroa! Beharbada mugikor zenbakia txarto emango nion... Oraindik aukera bat dut, berak emandako zenbakia gehitu dut eta "hola" lagunkoi bat bidali diot.

Jada ordubete pasatu da mezua bidali diodanetik, eta ez dut erantzunik jaso, beraz deitzera ausartu naiz, arnas sakon bat hartu eta botoi berdean sakatu dut urduritasunez. Pare bat segundo itxaron ostean, makina baten ahotsa entzun dut: "este numero no pertenece a nadie". Etsipenez mugikorra ohe gainera bota dut eta orduantxe bururatu zait Instagrametik bilatzea.

2013ko otsailak 3a.

Asteak dira Martinekin hitz egiten daramatzadala, Instagrametik kontaktuan jarri ginenetik bideo-deiak eta guzti egin ditugu. Azkenean aurrez aurre ikusteko geratu gara. Otsailak hamarrean izango dut nire lehen hitzordua, inoiz baino urduriago nago! Lehen azterketak ziren urduritasuna eragiten zidatenak, baina orain dudan urduritasun eta ezinegona desberdina da.

Ametsetako mutila baita Martin: altua, ederra, gihartsua, kirolaria... Zer gehiago eskatu dezaket?

Nahiz eta bi urte nagusiagoa izan, eta beste etapa batean egon, begiz jo ninduen ikusi ginen lehen egunetik, eta hori kontuan izan beharreko seinale garrantzitsu bat da. Horrez gain, Martin ez da beste mutilak bezalakoa, desberdina da.

2013ko otsailak 12a.

Gurasoei lagunekin geratua nengoela esan nien eta ez zutenez ezer susmatu kalera irteten utzi ninduten.

Makillaje asko eta takoi oso altuak jarri nituen, ezin baitzidan akneaz beteriko aurpegi penagarria ikusi, a ze lotsa bestela! Horrez gain,

praka estuak jantzi nituen nire izterrak finagoak ikusteko, oso garrantzitsua baita itxura ona izatea lehenengo hitzorduan.

Autobusa hartu eta poztasunez Institutu atzealdeko landara abiatu nintzen.

Heldu bezain laster musukatu egin ninduen, baina ez lehen egunean bezala, samurtasunez eta geldiro, amorruz eta bortizki musukatu ninduen, eta pixka bat deseroso sentitu nintzen arren, segitu egin nuen. Musukatzeaz utzi genionean, hitz egiten hasiko ginela pentsatu nuen baina ez: “Badakizu zertara etorri garen”-esan zidan barre lerdetsu batekin. Egia esan ez nekien oso ondo zer erantzun, ez bainekien zertaz ari zen, baina ez nuenez txarto sentiaraztea nahi, aurrera jarraitu nuen. Gutxika-gutxika arropa gutxiagorekin geratzen joan ginen, guztiz biluztu arte. Orduantxe konturatu nintzen zertaz ari zen. Gero eta deserosoago sentitzen nihoan... bere esku hotzek nire gorputza ukitzerakoan sentitu nuen hotzikara... Hormaren kontra nengoen Martini begira: “Astiro egingo dut”-esan zidanean. Esaldi horrek ez ninduen asko konbentzitu, beraz, gelditzeko esan nion. Baina berak musukatzen jarraitu ninduen, eta halako batean sentsazio hotz bat sentitu nuen nire barruan, zerbait sartu izan balitz bezala. Berriz ere geratzeko esan nion, baina berandu zen jada, bere hazia nire barnean isurtzen zuela sentitu bainuen. Momentu horretan damutu nintzen Martinekin geratu izanaz. Amaitu bezain laster arropak batu eta korrika irten nintzen amorruz, objektu zikin bat izango balitz bezala sentitzen bainintzen.

2013ko otsailak 13a.

Burutik kendu ezinka nabil gertatutakoa. Nolatan da posible? Ezin dut sinetsi oraindik...

Goiz osoa nire logelan hausnartzen eman dut, eta kostatu arren, konturatu naiz haurdun geratzeko aukera dudala. Noski dakidala kondoia erabili behar dela, baina momentu horretan kalbario hura noiz bukatuko zen baino ezin nuen ezertan gehiago pentsatu. Ohean etzanda negar malkoak lehortu eta herriko erietxera hurrengo eguneko pilula bat eskatzera joatea erabaki dut.

Amak zerbait arraroa sumatu didan arren, lanekin estututa nagoela edo pentsatuko zuen, izan ere, ezohikoa da beratan ezer ez galdetzea.

Erietxera heldu eta ikusi dudana lehenengoari pilula bat eskatu diot, horrela egiten delakoan. Baina ez, antza denez ez da horrela egiten. Pilula hitza ahoskatu bezain laster, gela batean sartu naute galdera batzuk erantzun behar ditudalako antza. Baina lehenago gurasoei abisatu behar dietela esan didate. Jarraian, amaren zenbakia idatzi dut malko bat erori zaidan bitartean. Bi segundo ere ez dira pasatu amaren ahots larritua entzun dudanera arte. Momentu horretan, urduritasunaz eta kezkaz, nire aurpegitik gero eta negar malko gehiago isurtzen ari direla sentitu dut, baina ahala ere gertatutakoa azaltzen saiatu naiz ahotsa dardaraka nuela.

2018ko urriak 19a.

Bueno, bortxaketa argia izan zela esan ziguten erietxean, hala ere nik ez nuen Martin salatu nahi, baina amak behartu egin ninduen. Hortik aurrera, argi dago zer gertatu zen, telebistan bortxaketa kasu asko baitaude.

Azken gertaera honek guztiz aldatu ninduen eta hasieran nintzen pertsona bueltatzea lortu zuen.

Bai, irakurleok, hamabost urte zituen neska inuzente hau ni nintzen. Institutuan ospetsua eta ezaguna izatearren gustuko ez zituen gauza asko egin zituen, beste neska askori inbidia emateko maite ez zuen pertsona batekin egunak ematen zituen, zuen benetako lagun bakarra neska aspergarri batzuekin joateko utzi zuena, izaeraz eta itxuraz besteen berdin izateko aldatu zena ... Eta abar luze bat.

Bost urte pasatu dira urte ero hartatik eta egia esan, pertsona guztiz desberdina naizela esan ahalko nuke. Ez dut emakume perfektuaren eredua izan nahi, nire aurpegia eta gorputza diren bezalakoak maite ditut, nork maiteko nau ba nire burua ez badut maite?

Oso harro nago praka zabalak janzteaz, galtzerdi luzeak erabiltzeaz eta batez ere, takoidun oinetakoak alde batera utzi izanaz, askoz ere erosoago sentitzen naiz zapatilekin. Eta bai oso arraroa iruditzen arren, bideo-jokoak eta futbola gustuko ditut, baina horregatik ez naiz emakume gutxiago sentitzen.

Arlettekin orain dela pare bat hilabete adiskidetu nintzen, eta zorionez, lagunak izaten bueltatu dugu. Garai hartan izandako lagun multzoa, aldiz, ez dut berriz ikusi nahi, ez baitziren benetako lagunak, eta maitasunari deritzenez, ni naizen moduan maiteko nauten pertsonak hartzen ditut kontutan, neska edo mutil direlarik.

Beraz, azken gomendio bat nerabezaroan zaudetenontzat, mutil zein neskontzat, ez ezazue beldurrik izan zuek zaretena erakusten, desberdintasuna bertute bikaina baita, pertsona guztien artean berezi egiten gaituena.



Ander Ansotegi Arrien

DHH 3. maila

“Literatura amets gidatu bat baino ez da”

GOMUTAN

9:45

Unea zen jada. Unea zen hiri hau atzean uzteko. Unea zen zuk egindako promesak ahazteko. Astelehen goiza zen, udazkeneko azken eguzki izpi ahulek Atochako tren geltokiko leihoak zeharkatzen zituzten, egun argiei amaiera emanez eta negu hotza ekarriz.

Gogoratzen nuen tren geltoki hura zeharkatu nuen lehen aldia, demaseko oihana osatzen zuten zuhaitzei begira nengoen. Garai hartan ez nekien nolakoa zen mundua ni bizi izan nintzen herrixkatik kanpo. Madrilera heldu eta urte baterako nire bizikidea izango zen pertsonaren zain nengoen. Orduan, zuk deitu zenidan eta nik ezagutu egin zintudan. Maletekin lagundu ondoren, hiri hartako kaleetatik gidatu ninduzun inork ikusten ez zituen xehetasunak erakutsiz eta leku iskanbilatsu, goibel eta zuhaitz gabeko hura, mundu erogarri, izugarri bitxi eta interesgarria bihurtuz.

Hasieran oso ondo konpontzen ginen, ni ez nintzen oso berriak baina afaria elkarrekin jatea suertatzen zitzaigunean, une deseroso eta isil haiek zeure eguneroko kontakizunekin betetzen zenituen. Horrela, poliki-poliki, biok bata bestea ezagutu eta lagun bikainak egiten hasi ginen.

Ez genekien, ordea, bata bestearikiko sentitzen zuena, ez zela etxebizitza bat elkarbanatzen zuten bi unibertsitarioren arteko harreman arrunta.

...

10:00

Nire erabakia zen tren hura hartzea, bertan nengoela, ezin nituen atzean utzi zuk nigan sortutako irain eta zauriak, bertan nengoenean edozerk zu gogorarazten zidalako. Trena ez zegoen oso beterik eta horrek nire marrazketa bloka ateratzeko aukera eman zidan. Momentu hartan ez nuen ezer gehiago egiteko gogorik. Bidaia luzea zenez, zuk oparitutako liburua eskura utzi nuen, baina zeuk emandakoa zela pentsatze hutsak ez zidan irakurtzen ari nintzenarekin gozatzen uzten.

Argi eta garbi gomutatzen nuen egun hura. Nik uste nuen nire urtebetetze eguna ahaztuta zenuela baina etxera bueltatu zinenean poltsa bat zenekarren. Barruan, nik miresten nuen ilustratzailearen liburua zegoen.

Eskerrak eman nizkizun momentuan ez nintzen ausartu zu musukatzen, baina ustekabea zeu hurbildu zinen zure ezpainak neureekin lotuz.

...

11:00

Nekearekin aspertasuna etortzen zitzaidan minutuak pasa ahala, beraz tabletan nituen pelikuletako bat aukeratu nuen ikusteko. Arreta handia jarri gabe, *Amelie* filma aukeratu nuen, elkarrekin ikusi genuen lehenengo filma. Ezinezkoa zen zu ahaztea, inguruan nuen guztiak zeu gogorarazten zidan, baina filma ikusten segitzea erabaki nuen. Irudikatzeko orduan, beti jartzen nuen Yann Tiersen-ek *Amelie* filmerako konposatutako soinu-banda zoragarria.

Bi pertsonen arteko iskanbilak pelikuletan bezala, amaierako muxu batekin amaituko balira, dena izango zen errazagoa.

...

12:00

Ez nuen gogoko trenean bakarrik bidaiatzea, egiten nuen bakoitzean, pertsona batekin, momentu horretan izan ahal nuen hizketaldia galtzen nuen. Horrez gain, ez nuen gogorik inguruan nituen pertsonekin hizketan asteko.

Asteko zenbait egunetan, unibertsitatera joaten ginenean, bion ordutegiak oso desberdinak ziren. Egia esan, etxean bakarrik nengoen momentu haietan bakartasun handia sentitzen nuen. Zu etxean zeundenean, zure konpainiak asko pozten ninduen eta entregatu behar nituen idazlanak edo ilustrazioak hobetzen laguntzen zenidan. Zenbait aldiz eskerrak emateko, irudiak oparitzen nizkizun.

Orain, irudi haiek faltan botatzen nituen, baina egindakoa eginda zegoen eta ez zegoen atzera bueltarik.

...

13:00

Leihora begira, ni bizi izan nintzen lekuko antzerako paisaiak ikus nitzakeen, zoritxarrez oraindik ez zuen elurrik egin eta mendiek kolore ilunpetsu eta tristeak zituzten. Hanka lokartzen hasita nuen, beraz, lekuz mugitzea erabaki nuen bagoiaren beste aldera, leiho haietatik zehar ikuspegiak ederragoak ziren gainera eta. Urtero elurteak gero eta beranduago etortzen ziren eta mantu zuriz estalitako gainazal haiek lasaitasunez behatzeko denbora gutxiago zegoen..

Nire herrixkaren inguruan ez zeuden elur-jauzi edo elurte indartsuak, horrez gain, oso ondo nekien nola gertatzen ziren. Zentzugabea iruditzen zitzaidan nola elurraren mugimendu txiki eta garrantzi gabeko batekin, inguruan zuen guztia suntsituko zuen elurrezko olatu bat sortzen zen.

Horrela nengoen ni, elurra mugitu zenuen, elur-jauziak lurperatuta ninduen eta hain zen pisutsua gainean nuen elurra, ezin nuela nire gorputzeko atal bat ere mugitu.

...

14:00

Dena zen zure ingurukoek gure harremanari buruz pentsatzen zutenagatik. Dena zen zeu beldurtia zinelako. Dena zen niri entzuten ez zenidalako eta zeuk momentu hartan zenuen garrantzia ni baino handiagoa zelako.

Zer axola zuen elkar maitatzen zuten bi pertsona sexu berekoak izatea!? Zerk inporta zuen biok elkar maitatzen bagenuen?! Beranduegi zen, ez zegoen ezer nire esku, eztanda egin nuen eta negar anpuluak atera zitzaizkidan, komunera joan nintzen korrika eta atea ireki nuen, neure parean agertu zinen. Ezaguna egiten zitzaidan abestia entzuten zen bitartean, nire begietatik negarra ur-jauzi bateko ura bezain arin erortzen ari zen eta zuk nire arnas estua muxu batekin isildu zenuen.

*When you were here before
Couldn't look you in the eye
You're just like an angel
Your skin makes me cry*

Begiak zabaldu eta eserlekuan jesarrita nengoen. Begiak umel nituen eta musika-kaskoak mugikorretik kanpo zeuden. *Creep* abestia bagoi osoan entzuten zen.

*You float like a feather
In a beautiful world
And I wish I was special
You're so fuckin' special*

Bat-batean, bagoiaren atzean zegoen atea ireki zen. Ziztu bizian altxatu nintzen, bihozkada bat nuelako, eta horrela zen. Zu nire aurrean zeunden, geldi, nekatuta, zurbil, baina lehenengo aldiz ikusi zintudanean zenuen begirada argi berdinarekin.

*But I'm a creep, I'm a weirdo.
What the hell am I doing here?
I don't belong here.*

Beranduegi zen, nekatuta nengoen, haserretuta. Eman nizekizun bigarren aukera asko eta orain ikusten zenuela ni bertatik nindoala, beste aukera bat eskatzen zenuen.

Beranduegi zen, ez nuen zu bezalako pertsona batekin egon nahi. Beranduegi zen, momentu guzti hartan neu izan nintzelako sufritzen egon zen bakarra. Ez nintzen zurekin joango, agurra emateko ordua etorri zitzaidan eta ez zidan inork ere geldituko.



Ismene Lopez Mingo
DBH 3. maila
"Ni, ni naiz eta kitto!"

Ni, NI NAIZ

Kaixo, nire izena Unai da, edo ahatetxo itsusia, "orkoa"... 14 urte ditut eta DBH 3.mailan nago. Nire amarekin bizi naiz etxe txiki batean Arteagan. Ez dut lagunik, eta? Ez zait batere axola. Arraroa naizela esaten didate, eta? Ni, ni naiz eta kitto! Kokoteraino nago denetaz. Beti jotzen naute, iraintzen naute, molestatzeko naute... Bakarrik desberdina naizelako. Eta nortzuk diren galdetuko zarete, ezta? Orain kontatuko dizuet.

Ikastolarako bidean nago; nire amak beti eramaten nau autoz goiz-goizetik lanera joan behar delako. Berak ez daki zer gertatzen zaidan ez diodalako ezer esan. Ez dut nire ama arazo honetan sartu nahi. Leihotik nagoela begiratzen, amak galdetzen dit:

- *Zelan ikastolan? Arazoren bat?*
- *Ez, momentuz azterketa guztiak gainditu ditut eta gaur dudana matematika azterketarako ikasi egin dut.*
- *Hori jakitea ondo dago, baina zure gelakideekin arazoren bat daukazun galdetzen nengoen.*
- *Ondo nago.*
- *Ziur?*
- *Baietz...*

Elkarriketa bukatu bezain laster, ikastolara heldu gara. Amari musu pare bat eman eta autotik irten naiz. Gelara sartu bezain laster nire gelakide batek sakatu dit esanez:

- *Zer orkotxu! Gaur utziko didazu zure azterketa kopiaitzen, ezta?*

Gelako ikasle guzti-guztiak barrezka hasi dira. Benetan, nazkagarriak dira! Den-denak! Zergatik egiten didate hau? Zer egin diet? Negarrez hasi naiz eta beste batek irribarrez esan du:

- *Begira, begira! Haurtxo txikia negarrez ari da!*



Berriro barrezka daude. Irakaslea gelara heldu eta lurretik altxatzen lagundu ondoren, esan du:

- *Aski da! Utzi ezazue bakean behingoz! Ekaitz eta Markel, zuzendaritzara etorriko zarete nirekin. Azterketa datorren astean egingo dugu, bitartean, beste irakasle bat zaintzan geratuko da zuekin.*

- *Gero ikusiko duzu! Ez pentsatu ondo irtengo zarenik hemendik!*
- *Isildu zaitez behingoz!*

Matematikako irakaslea biekin joan da. Espero nuen bezala, denak xuxurlatzen ari dira. Espero dut amari ezer ez esatea...

Matematikako ordua bukatu eta irakaslea joan bezain laster denak hitz egiten hasi dira. Ekaitz eta Markel bueltatu dira gelara Matematikako irakaslearekin, esanez:

- *Unai etorri zaitez, mesedez.*

Gelatik irten, eta arduraturik, esaten dit:

- *Zergatik daude denak zure kontra? Zer egin diezue?*
- *Ez diet ezer egin... Beti honela izaten da nahi dutelako...*

Berehala irakasleak aurpegi arraro bat jarri du.

- *Zure amarekin hitz egin nahi dut. Honek ezin dezake horrela jarraitu!*

Irakasleak buelta eman eta joan egin da. Ezin dut sinetsi! Amari dena kontatuko dio. Zer egingo dut? Gelara sartu bezain laster, Ekaitzek heldu nau esanez:

- *Aizu! Esan dizut hau ez dela bukatu!*

Aurpegian jo eta lurrera bota nau. Markel segituan hankarekin jotzen hasi da. Denak barrezka daude. Gero eta min gehiago egiten didate. Markel jotzen dagoela, Ekaitzek gelan dagoen aulki bat hartu eta hurbildu da esanez:

- *Uste dut haurtxoak lotara joan nahi duela.*

Bere indar guztiekin jo dit buruan eta zorabiatu egin naiz.

- *Non nago?* -Galdetu dut.

- *Kaixo Unai.*

- *Non nago? Nor zara?*

- *Erizaina naiz. Ospitalean zaude.*

- *Zer gertatu zait?*

- *Esku bat eta hanka bat apurtu dituzu eta zorabiatu zara.*

Egia da, Ekaitzek aulkiarekin eman dit buruan. Larrituta, galdetu diot:

- *Non dago ama?*

- *Lasaitu zaitetz, zure ama laster helduko da, lanetik dator.*

- *Hobeto sentitzen zara?*

- *Fisikoki bai, baina...*

- *Beno, hori uste dut zure amarekin hitz egin behar duzula. Orain atsedena hartu ezazu.*

Nire begiak ixten ari zaizkit eta lo geratu naiz. Bat-batean, norbait negarrez ari dela konturatu naiz. Nor da? Buelta eman eta ama negarrez ikusi dut. Ez dakit zer esan. Oso lotsatuta nago. Gauzak nik bakarrik konpondu nahi nituen. Amak besarkada handi bat eman dit esanez:

- *Ondo al zaude? Zer egin dizute? Zergatik ez didazu ezer esan?*

- *Lotsatuta nengoen... Ez nuen zu honetan sartu nahi izan...*

- *Kokoloa zara edo zer! Zure ama naiz! Laguntzeko prest nagoela soberan dakizu! Orain den-dena kontatuko didazu.*

Eta horrela egin dut, amari den-dena kontatu diot. Oso harrituta geratu da, baina esan dit gauzak aldatuko dituela. Suposatzen dut irakaslearekin hitz egingo duela.

Bostetan, Matematikako irakaslea etorri da kezkaturik. Hobeto nagoela esan bezain laster lasaitu egin da. Nire amak berarekin hitz egin du. Uste dut amak erabaki bat hartu duela.

Amak eta erizainak lagundu didate gorpil-aulkian jartzen etxera joateko. Amak berriro lagundu dit autora sartzen eta orain etxerako bidean gaude. Leihora begiratzen nagoela, amak seriotasunez esan dit:

- *Erabaki bat hartu dut. Ez dakit gustatuko zaizun, baina ikastetxez aldatuko zaitut. Ez dut onartuko zu zure gelako gelakide horiekin egotea, ezta pentsatu ere! Ez dakit zergatik ez didazun ezer esan orain arte... Gauzak askoz errazagoak izango lirateke.*

- *Ondo iruditzen zait.*

- *Hori espero nuen zuk esatea.*

Etxera heldu eta lotara joan naiz. Ostirala da, beraz, zapatu eta domeka hauetan atsedena hartu dezaket. Egunak oso arin pasatu dira, eta astelehena da. Gaur nire gauzen bila joan behar naiz ikastetxera. Nire amaren laguntzarekin, ikastetxera joan naiz eta gelara sartu naiz. Ikasle guztiek aurpegi motzekin begiratu naute. Haserretuta daude, baina ez dute arrazoirik horrela egoteko. Haien erabakia ez zen egokiena izan, horregatik orain ondorioak onartu beharko dituzte. Nire gauzak batzen nagoela, Ekaitzek begiratu nau esanez:

- *Pozik egongo zara, ezta?*
- *Ekaitz isildu zaitez!* -Adierazi dio irakasleak.
- *Lasai egon zaitez.* -Esaten diot segurtazunez.
- *Gauza pare bat esan nahi ditut joan aurretik. Lehenengo eta behin, ez dakit zer egin dizuedan zuen portaera horrela izateko nirekin. Ondo geratu nahi zenuten Ekaitz eta Markelekin? Oso garrantzitsua da, hala? Eta bigarrena: haurtxo bakarrak hemen zeuek zaretela.*

Den-denak isilik geratu dira, Ekaitz izan ezik, noski. Kexaka hasi da, baina ez diogu kasurik egin eta joan egin gara.

Hurrengo egunean, asteartean, ikastetxe berrira joan naiz. Sartu aurretik, amak esan dit:

- *Badakizu, zerbait gertatzen bada...*
- *Bai, bai... zuri esango dizut.*
- *Hori da.*

Egunak pasatu dira eta oso pozik nago. Lagun asko egin ditut eta oso ondo nago nire gelakide berriekin. Errespetatzen didate eta oso atseginak dira, baita irakasleak. Ezin naiz ezertaz kezkatu, beno, azterketez bai. Ama ere oso pozik dago.

Nik izan ditudan arazoak konpondu ditut. Eta zu zergatik zaude oraindik hau irakurtzen? Joan eta konpondu itzazu zeureak!



Jokin Agirre Urrutia
DBH 3. maila
“Aupa Athletic!”

A ZELAKO GABONAK!

Abenduaren bosta zen, asteazkena. Gabonak urrun bazeuden ere, Udalak bazeukan zerbait prestatuta, hauteskundeetarako puntutxo batzuk irabazi nahian. Alkatea, egia esan, ez zen herritarren gustukoa, baina aisialdiaz gozatu nahiak erakarri egin zituen herritar asko jaialdira.

Gernikako nerabe gehienak, ordea, ikasten zeuden, zubiaren osteko berreskurapenak gainditzeko. Talde txiki batek bakarrik gainditu zituen ikasgai guztiak eta, horregatik, gabon arbolaren argiak pizteko ospakizunera joan ziren lagunak. Ospakizun horretan, txokolatea ematen zuten doan, eta gehienbat horregatik hurbildu ziren, zerbait beroa edateko.

Lagunak edari gozoa ematen zuen ilaran jarri ziren. Bertan geldirik zeudela, gizon arraro bat ikusi zuten. Hirurogei urte zituen gutxi gorabehera. Bizar luze eta zuria zuen. Ia-ia burusoil zegoen, buruaren eskuineko aldean bakarrik baitzuen ilea. Aurpegia oso zikin zuen, dena basaz beteta. Begi eder-ederrak zituen, Greziako kostaldean dagoen uraren kolorekoak. Sudurra oso okertuta zuen; ukabilkada itzela hartuta zeukala zirudien. Ezpainenetan ebaki sakonak zituen. Argalegia zen; seguruenik, ezer jan gabe egongo zen hainbat egunetan. Kamiseta tirantedun bat eta beroki zikin eta apurtu bat zeramatzan jantzita. Praka piratak eta zapatila zaharrak zituen aldean, bi zulo handirekin alde bakoitzean. Maleta bat zuen esku artean. Oso penagarria izan arren, maleta hura zen bere jabetza bakarra.

Bat-batean, gizon zahar hura lurrera erori zen eta bits zuri-zuria irteten hasi zitzaion ahotik. Hurbil zegoen jendea laguntzera joan zitzaion, baita gure protagonistak ere. Hurbildutakoek biribil bat egin zuten txiroaren inguruan. Halako batean, gizon zaharra mugitu egin zen eta bi segundotan zutik jarri zen. Haren begi urdin argiak zuri jarri ziren, ilargiaren antzera. Bertaratutakoak harrituz, hitz hauek esan zituen:

- *Kontuz! Laster etorriko dira soldaduak! Korri, ihes egin! Bestela, kapsula batean harrapatuko zaituzte eta!*

Hitz hauek entzun arren, herritar gehienak mugitu ere ez ziren egin. Momentu beldurgarri hartan, bi udaltzain agertu ziren eta txiroa besoetatik hartuta, Gernikako ospitalera eraman zuten.

Txiroa ospitalerantz zihoala, udaletxearen aurrean, tentsio itzela zegoen. Guraso askok, euren seme-alabak besoetan hartuta, leku horretatik alde egin zuten. Baina beste hainbat bertan geratu ziren, gure lagun-taldea barne.

Ez zioten txiroari sinetsi hark esandakoa. Askok esan zuten ero zegoela. Horregatik, ospakizunak aurrera egin zuen. Gure kuadrillako bik bihozkada txarra zuten eta besteei esan zien:

- *Ez da hobe izango hemendik alde egitea? Guk biok behintzat sinetsi egin diogu gizon horri.*

- *Ez horixe! Egon lasai, ez da ezer gertatuko eta* - esan zuten besteek.

Esaldi hau bukatu eta berehala, lau helikoptero agertu ziren Andra Mari elizaren gainetik. Helikopteroek zerbait zeramaten soka batzuekin lotuta: kapsula erraldoi bat!

Gernikarrak korrika hasi ziren: batzuk Pasealekura, eta beste batzuk San Juan Ibarrara. Baina beranduegi zen. Helikopteroek kapsula biribil hura udaletxearen gainera jaurti zuten eta bertan gelditzen zen jende apurra harrapatuta gelditu zen.

Kapsula barruan zeuden herritarrak zoro-zoro eginda jarri ziren: asko eta asko, negar eta negar; beste batzuk, irtenbidea bilatzen; eta gainerakoak, kapsula apurtzeko ahaleginetan. Gure kuadrillako kideak guztiz beldurtuta zeuden eta batzuk besteekin haserretuta, lehendik esanda eduki zutelako parke horretatik irtetea komeni zela.

Haserre horiek bukatuta, buruari bueltaka hasi ziren, kapsula hartatik zelan irtengo ziren asmatzekotan. Hainbat ideia elkarbanatu zituzten. Batek esan zuen, Don Telloren estatua lekutik ateraz gero, ariete baten antzera erabili ahal izango zutela kapsularen kristalari itzelezko kolpeak eman eta guztiz apurtzeko. Beste bati bururatu zitzaion lurrean zulo handi bat egitea eta zulo horretatik kapsularen kanpoko aldera iristea.

Eztabaidan zeuden denak eta eztabaida luzearen ondoren, konponbiderik onena erabaki zuten: estolda handi bat aurkitzea eta bertatik irtetea. Ideia horri ekin aurretik, bertako jende guztiari kontatu zioten beraien plana. Den-denak itxaropentsu bilaketa-lanak egiten jarri ziren, estolda handi eta zabal bat aurkitu nahian. Azkenean, bost urteko neskatala batek aurkitu zuen estolda aproposa. Guztien artean estalki pisutsua kendu eta handik sartu ziren kapsula barruko herritarrek.

Leku nazkagarria zen. Estolda barruko usain higuigarriak goralarria ematen zuen. Saguak zebiltzan batetik bestera eta, noizean behin, ilerik gabeko katuak ikusten zituzten. Hamar minutuko ibilaldia egin ondoren, irteera aurkitu zuten. Banan-banan hasi ziren igotzen. Denak irten zirenean, Gernikako alkatea agertu zen zuhaitz batzuen artetik, txiroa aldamenean zuela. Jende guztia harrituta zegoen. Denek zuten buruan galdera bera:

- *Zer egiten dute alkateak eta txiroak hemen gure zain?*

Agure adoretzu bat zerbait esatera ausartu zen, baina alkateak haren berbak isilarazi zituen. Denak haserretuta zeuden alkatearekin, eta berak hori nabaritutakoan, hitz hauek esan zituen:

- *Barkatu, arren, momentu hau pasatu behar izana. Bai, nik agindu nuen helikopteroen hegaldia eta kapsularena ere. Baina egin beharra izan nuen. Espainiako Gobernuburuak behartu ninduen astakeria hau egitera. Mehatxu hau egin zidan: plana bete ezik, kargua utzi behar izango nuen eta denboraldi luzea kartzelan egin, nire lankide guztiekin batera. Gobernuaren helburua soldaduak prestatzea da eta horretarako, herritarrek saio militarrek gaintitu behar dituzte. Txiroa Gobernuko agentea da eta ni kontrolatzera bidali dute. Barka iezadazue, mesedez.*

Herritarrek, haserre-haserre eginda, ez zioten egindakoa barkatu, eta txiroa eta alkatea, bi-biak, Gernikako erreka jaurti zituzten biluzik eta lepoan pisu handi bat jarrita.

[...] Txomin ohean blai-blai eginda esnatu da, amets gaiztoak izan omen dituelako. Gosaria jatera abiatu da lasai. Abenduaren bosta da eta laguntaldea kalera irtengo da txokolate beroa edatera...



Laia Arriaga Lopez

DBH 3. maila

*“Nahiz eta batzuetan dena ilun ikusi,
positiboki pentsatzen jarraitu behar dugu”*

BIZITZAREN GORABEHERAK

Goizeko ordu biak dira. Nire logelako leihorantz begira dagoen mahaian eserita nago. Dena ilun-ilun dagoenez mahaiko argi txikia piztuta daukat. Nire marrazkien koadernoak daukat aurrean, arkatza eskuan irudiak marrazten ari naiz. Hau da eguneko momentu bakarra irudietan kontzentratu eta nire inguruko dena ahazteko gai naizena. Hau ez da beti horrela izan, izan ere, orain dela hiru hilabete hasi zen dena.

Nire gurasoek gero eta gehiago eztabaidatzen zuten. Eta ni, lasaitasun pixka baten bila, amonaren etxera joaten nintzen. Amona bakarra dut eta pilo bat maite dut. Amonaren egongelan eseri, etxeko lanak egin eta telebista pixka bat ikusten nuen berarekin etxera joan baino lehen. Hasieran, normala zela uste nuen, bikote guztiek edukitzen zituztela denboraldi onak eta txarrak, arratsalde hura heldu zen arte.

Nire ahizpa txikia eta ni institutua bukatzerakoan etxerantz abiatu ginen. Atarira heldu, auzoko bat agurtu eta eskua poltsikoan sartu nuen giltzen bila. Atea irekitzerakoan konturatu nintzen zerbait ez zegoela ondo, begibistakoa baitzen hura ez zela normala. Sarreran bi maleta marroixka zeuden, nahiz eta lehenengo aldia izan maleta horiek ikusten nituena, ez nien kasu handirik egin. Aurrerago, egongelara sartzerakoan, sofaren gainean ikusi ahal zenituen aitak gauero erabiltzen zituen manta eta burukoa, izan ere, bi aste eta erdi zeramatzan sofan lo egiten. Egongelan pentsakor nengoela ama etorri zitzaidan sukaldetik:

- *Kaixo Marti, zeri itxaroten zaude? Ahizpa eta biok mahaian gaude jateko prest* - esan zidan.
- *Oraintxe noa* - erantzun, motxila logelara eraman eta segidan sukaldera joan nintzen, gosez hiltzen nengoen eta.

Bazkaria beti bezala joan zen. Aitak lanean bazkaltzen zuenez, ama, Irati eta ni bakarrik geunden. Iratik egunean zehar egin zituen gauza guztiak kontatu zituen. Eta amak berriz, bere lanean, hau da, ikastolan umeak nola portatu ziren kontatu zigun. Prestatu zituen babarrunak amaitu bezain laster hauxe esan zigun:

- *Gaur ostirala da, baina lehenago itzuli beharko zarete etxera. Aita lanetik bueltatzerakoan laurok batera hitz egin behar dugu. Bederatzietan hemen nahi zaituztet. Puntualak izan mesedez, garrantzitsua da eta.*

Iratiri begiratu nionean, bere urduritasuna sentitu nuen. Zertaz hitz egin beharko genuen? Hura esan eta gero bigarren platera jateko gosea kendu zitzaidan. Amari baimena eskatu eta nire logelara abiatu nintzen. Liburua hartu eta irakurtzen pasatu nituen bi ordu, nire mugikorrak jo arte. Nahia zen, nire lagunik onena. Hiru urte genituela ezagutu genuen elkar eta geroztik batera jarraitzen dugu. Hauxe esan zidan:

- *Kaixo Marti! Gaur arratsaldean geratzeko asmorik badaukazu?* - galdetu zidan.
- *Bai, betiko orduan betiko bankuan ondo?* - galdetu nion.
- *Bale. Gero arte!* -erantzunez eskegi zidan Nahia.

Irakurtzen nengoen liburua alde batera utzi eta dutxatzera joan nintzen. Prestatu ondoren ama eta ahizpa agurtu eta betiko bankurantz abiatu nintzen. Lehena heldu nintzen eta pare bat minutu beranduago heldu zen Nahia. Urrunetik ikusi nuen eta normalean baino serioago zegoela sumatu nuen.

- *Kaixo Nahia!*
- *Arratsalde on Marti! Bueno, on edo..., notizia bat eman behar dizut*

Notizia ona edo txarra zen galdetzera nindoan, baina bere aurpegian argi ikusten zen notizia txarra zela, beraz, entzuten jarraitu nuen.

- *Dakizunez nire amak bulego batzuetan lan egiten du eta enpresak goragoko lanpostu bat eskaini dio.*
- *Ze ongi! Zorion...* -hitza bukatu baino lehen moztu zidan.
- *Baina beste hiri batean izan beharko zen* -esan eta begietara begiratu zidan.

- *Zer? Beste hiri batera joango zara bizitzera?* -esan nuen harrituta. Ezin nuen sinetsi. Nire lagunik onena asteburu batzuetan bakarrik ikusiko nuela.
- *Bueno oraindik ez gaude ziur. Nire gurasoak pentsatzen ari dira. Baina seguruenik bai.* -esan zidan-. *Mugikorre hitz egin ahal dugu. Eta gainera astebururo etorriko naiz* -esan zidan nire erreakzioa ikustean.

Erlojua begiratzea bururatu zitzaidan eta bederatziak hamar gutxi ziren. Nahiari etxera joan behar nintzela esan eta etxera itzuli nintzen. Ibilbidean zehar Nahiak esandakoari bueltak ematen egon nintzen. Iritsi nintzenean, aita, ama eta Irati sukaldean zeuden. Berokia sarrerako besaulkian utzi eta sukalderantz abiatu nintzen. Espagetiak tomatearekin zeuden afaltzeko. Irati eta nire gogokoenak. Laurok batera afaldu genuen. Jarraian Iratik eta biok mahaia jaso eta berriro eseri ginen.

- *Martina eta Irati, amak eta nik zuekin hitz egin behar dugu* -hasi zen aita.
- *Ez dakit konturatu zareten baina aita eta nire artean gauzak ez doaz oso ongi* -jarraitu zuen amak. Batzuetan bikoteen maitasuna amaitu egiten da, eta hori da guri gertatu zaiguna.
- *Horregatik amak eta nik denontzat hoberena dena egitea erabaki dugu, hau da banatzea* -esan zigun aitak.
- *Honek ez du esan nahi ez zaituztegu maite, ezta zuek duzuela errua, bakarrik oraindik aurrera bi etxe desberdin izango dituzuela* -argitu zuen amak.

Isiltasun momentu bat eta gero, Irati eserlekurik altxatu eta gurasoengana joan zen, besarkatzera. Jarraian ni ere altxatu eta laurok besarkatzen amaitu genuen.

Nire gurasoak banatuta? 15 urtetan eredutzat izan dudana bikotea banatuta? Eta hori gutxi balitz, Nahia beste hiri batera joango zen. Sinestezina da. Hurrengo bi asteetako arratsalde guztiak amonarekin pasatu nituen. Ez nuelako ezta etxean egon nahi, ezta Nahiarekin geratu ere. Gainera, amonak oso ondo zaintzen nau eta konfiantza handia daukagu elkarrengan. Nire arazo guztiak entzuten ditu eta esperientziaz betetako aholkuak ematen dizkit. Bakarrik bizi zen, aitona hilda zegoelako, seme-alabak independizatuta eta ez zuelako inor zaintzeko beharrik. Osasuntsu zegoen, nahiz eta normala den moduan, batzuetan gauzak ahazten zitzaizkion. Bi aste horiek amaitu bezain pronto, aitak etxe berria zuen. Aste bete amaren etxean pasatzen genuen eta beste aste bete aitarenean. Baina nik oraindik ezin nuen sinetsi nire bizitzan gertatzen ari ziren aldaketak.

Aitaren etxe berrira iritsi ginen Irati eta ni. Polita zen, ez oso handia eta gu biontzat logela zeukan. Sukaldera joan ginen eta papertxo bat zegoen mahai gainean. Hurbildu nintzen, eta zerbait zuen idatzita. Iratik hartu eta irakurri zuen. “Irakurtzen bazaude institutua amaitu eta etxera iristekoan ni ez nagoela konturatu zaretela esan nahi du. Ez

zait gustatzen honelako gauzak papertxoetan idatzita uztea, baina amona ospitalera eraman behar izan dut. Bazkaria mahaian daukazue, bueltatzerakoan kontatuko dizuet nola joan den dena. On egin bioi!”. Mahaian eseri nintzen. Iratik armairutik bi edalontzi hartu eta batera bazkaldu genuen. Platerak batzen genbiltzala, sarrerako atea irekitzen entzun genuen. Biok korrika joan ginen sarrerara eta han zegoen aita. Egongelan eseri eta gertatutakoa kontatu zigun:

- *Bueno dakizuenez amonak gauzak ahazten zituen. Baina azkenaldian gero eta gauza gutxiago gogoratzen zituen eta badaezpada medikuarengana joan gara* -esan zuen aitak serio-serio.
- *Eta zer esan dizute?* -galdetu zuen iratik urduri.
- *Ba, zoritxarrez medikuak %90eko probabilitatea daukala Alzheimer edukitzeko esan digu. Proba batzuk egin behar dizkiote konfirmatzeko, baina ia seguru Alzheimerra izango da.* -esan zuen aitak triste.


Nire amonak Alzheimerra? Ezin da izan. Bat-batean presio izugarria sentitu nuen. Hamabost urtetan hainbeste maite izan dudan pertsonak ez nau ezagutuko? Berarekin bizitako momentu guztiak nire burmuinean bakarrik gordeko dira? Sinestezina zen. Ordutik aurrera, nire lagunik onena asteburuetan bakarrik ikusi ahalko nuen. 15 urtetan eredutzat izan dudan bikotea bananduta. Eta hori gutxi balitz ere nire amonak Alzheimerra. Amesgaizto bat zela pentsatu nahi nuen. Begiak irekitzerakoan dena nire imajinazioak sortutako fikziozko istorio bat izatea nahi nuen. Begiak irekitzerakoan nire benetako bizitza berreskuratu nahi nuen. Nire lagunik onena beste hainbeste urtez nire ondoan egotea, gurasoak maiteminduta, eta azkenik, nire amona beti bezain alai egotea nahi nuen.

Urte bete pasatu da azkeneko drama hau idatzi nuenetik. Momentu hartan dena nire kontra jarri zela sentitzen nuen. Baina ez zen horrela.

Izan ere, Nahiaren amari lanpostu hobea eman zioten hemen. Bai horixe da, azkenean ez zen beste inora bizitzera joan eta lagunik onenak izaten jarraitzen dugu. Nire gurasoak berriz, banatuta jarraitzen dute, baina oraingoan nik aldatu dut pentsamenduz. Lehen nire gurasoak batera egotea bakarrik nahi nuen. Beti zeuden haserretuta eta umore txarrean. Gainera, Iratiri eta niri ez ziguten behar genuen atentzioa ematen. Adibidez, batzuetan, ahaztu egiten zitzaien guretzako bazkaria prestatzea. Bakoitzak bere janaria prestatu eta gutaz ahazten ziren. Orain, berriz, oso pozik bizi dira. Bakoitzak bere bizitza du. Eta amankomunean duten bakarra gu gara. Nire oraingo pentsamenduak ez dira lehengoak bezalakakoak. Bizitza on bat edukitzeko garrantzitsuena pozik egotea da. Bater a do banatuta, baina pozik.

Eta azkenik amona. Hurrengo kontsultara familia dena batera joan ginen. Amona bakarrik ez sentitzeko. Notizia hura ematerakoan denok lagunduko geniola sentitzeko. Medikua irribarre handi batekin sartu zen gelara. Gu berriz, serio-serio geunden. Bere eserlekuan eseri eta amona sano-sano zegoela esan zigun. Alzheimerren probek ezezkoa eman zuten. Amonaren ahazteak adinarengatik zirela eta osasuntsu zegoela esan zigun. Oso pozik jarri ginen eta denak batera jatetxe batera bazkaltzera joan ginen.

Honetatik guztitik gauza bat ikasi nuen. Zu eta zure ingurukoak pozik eta osasuntsu egotea dela garrantzitsuena. Azkenean amesgaizto hark hiru hilabete bakarrik iraun zituen. Begiak irekitzea lortu nuen eta dena arrosa kolorekoa bihurtu zen berriro.





Itsaso Olea Urionabarrenetxea

DBH 4. maila

“Ez al dakizu euskera dala euskaldun egiten gaittuen?”

HEGOTIK IPARRERA

Lo nagoela konturatu baino lehen, jo du berriz ere nire ametsik ederrenak oztopatzen dituen ditzosozko aparatuak. Kontuan jausi orduko, goizeko sei eta erdiak dira. Dirutza ordainduko nuke berriz ere neure ohe goxoan sartu eta lanera joan gabe geratzeagatik. Baina zoritxarrez, lanera joan beharra daukat.

Zazpi urte dira jada Gernika-Lumoko okindegi honetan lanean hasi nintzenetik. Baita Euskal- Herrira etorri nintzenetik ere. Ez dut sekula ahaztuko nire bizitzako egun hura, batez ere aireportuan familiari eginiko agurrak.

Askotan, nire burutik pasatzen dira aspaldiko garaiak, gehien bat etxean izandako eztabaidak. Garai latzak izan ziren haiek. Ahaztezinak, hitz batean esanda. Zazpi urte dira nire senideak ikusi ez ditudala. Zazpi, bai, arin esaten da, baina urte mordoa dira etxetik kanpo bakar-bakarrik bizi izateko.

Ahizpa txikia izango nuela jakin genuenean, hasi ziren gora behera guztiak familian. Marokon bizi ginen, egurrezko oholekin eginiko etxola antzeko batean; egia esan, leku hartan ehun bat biztanle bizi ziren soilik, beno, bizi edo... ez zuten etxebizitzarik ere, batzuk kartoizko kutxetan bizi ziren eta beste askok hori ere ez zeukaten. Jendeak eskean egonda lortzen zuen diru apurrarekin egiten zuen aurrera, zelan edo halan. Iluntasunak eta izugarrizko beroak herri txiki eta miserable hura hornitzen zuen.

Gure familiarengana haur txikia heldu zenean, aita langabezian geratu zen zoritxarrez. Orduan, zulo ilun batean sartu ginen denok, denboraren poderioz, zoritxarrez, gero eta handiagoa egiten zena. Beraz, erabaki gogorrak hartu beharra izan genuen. Momentu haietan, neu nintzen familiari argi izpi txiki bat ekartzen ziona. Gurasoek konfiantza osoa zeukaten nigan. Beharrezko ikasketa gutxi batzuk nituen eta horrez gain, hemezortzi urte bete berriak. Egunak joan eta egunak etorri, gure familian zegoen argi izpi txiki-txikia ere motelduz joan zen, eta pixkanaka-pixkanaka itzali egin zen. Garai latzak igaro genituen. Noraezean genbiltzan, argitasun pixka bat lortu nahian.

Udako egun bero eta nekagarrietako batean, erabaki bat hartu genuen. Nire bizitza goitik behera aldatuko zuen erabaki mingarria. Nire herri maitetik urrundu eta beste herrialde batera joateko erabakia. Bertan, bizi berri bat hasi eta lanean jarduteko. Horrela, nire soldataren hiru laurdena nire familiari bidaliko nion, eta zulo ilun eta amaigabetik irteteko beharrezko argi izpiak emango nizkien.

Eta halaxe egin nuen. Orain hemen nago, nire etxetik milaka kilometrotara. Munduko beste kontinente batean. Nire etxekeogandik lanean, jo eta ke.

Gauza batek kezkatzen nau ordea. Ondo egongo ote dira nire falta susmatzen dutenak? Behin eta berriz etortzen zait burura galdera hori. Baina ezin jakin erantzuna. Zazpi urte luze eta nekagarri igaro dira hitzik egin ez dugunetik. Neure buruan irudikatzen ditut beraien aurpegi irribarretsak eta nire herrixka txikia. Baina ezin jakin benetan irribarretsu ote dauden.

Iraganeko kontu horiek guztiak alde batera utzi eta nire lanera bueltatu naiz, okindegian nago berriz ere, animaliak kortetan egoten diren antzera. Milioika ogi saltzen ditugu Euskal-Herri osoan zehar. Egia esan, gustura nago nire lanarekin, izan ere, bizitzan ezagutu dudak gizonik maitagarriena, lanean nengoela ezagutu bainuen. Egun hartan, nire munduko laino eta euri tanta guztiak desagertu eta ostadar erraldoi bat eta eguzki ederra agertu ziren. Euskal-Herrian igarotako egunik zoriontsuenak izan ziren dudarik gabe. Orduan, gizon zoragarri bat sartu zen nire mundura, eta nire bizitza goitik behera aldatu zidan. Berak nire kezka eta estutasun guztiak ulertzen ditu. Inor ez bezala maite dut, pozez zoratzen nago. Lau bat urte daramatzagu elkarrekin, eta beste mordoa emango nituzke bere alboan. Baina bera Hernanin bizi da, Gipuzkoan. Eta honek gure arteko harremanak murritzten ditu. Horregatik, asteburu guztiak aprobetxatzen ditugu elkarrekin egoteko, eta honek nire asteko egunik gogokoena bilakatzen ditu zapatu domekak.

Lau bat egun falta dira soilik urte zaharrari agur esan eta berriari ongi etorria emateko. Nik zerbait berezia prestatu nahi dut, baina aldi berean, nire ekonomia egoera dela eta, ez diot nahi nire poltsikoari aparteko kalterik egiterik. Gabon jai hauek bereziak izatea izan nahi dut aspaldiko partez. Berezia? Galdetu diot neure buruari. Segundo batzuez, nire familiaren argazkia etorri zait burura. Baina ezinezkoa dela pentsatu, eta alde batera utzi dut ideia hori.

Aste luze oso bat gaurko eguna itxaroten egon ondoren, gaur, nire mutil-gunarekin elkartuko naiz. Heldu da nire asteko egunik gogokoena, domeka. Irrikan nago nire ametsik ederrenetako heroia ikusteko.

Arratsaldeko laurak dira. Kezkatzen hasia naiz jada. Bi ordu igaro dira nire mutil-lagunarekin geratu nintzenetik. Zerbaitek esaten dit nire barnean, ez behar bat gertatu zaiola, bihozkada da. Ez dut horrelakorik pentsatu nahi. Ezin dezaket imajinatu nolakoa izango litzatekeen nire bizitza bera gabe. Sakon arnastu eta beste apur bat itxarotea erabaki dut. Ez da denbora luzerik pasatu, etxeko txirrinak jo duenetik. Nik bakarrik dakit nolako lasaitua hartu dudan! Atzamarrak gurutzatu, eta atarira hurbildu naiz.

Bera izan da, Jaungoikoari eskerrak! Ia ito dut eman diodan besarkadarekin. Orduan konturatu naiz, zerbait daramala esku artean. Kartoizko karpeta txiki bat dela esango nuke, baina ezin dezaket ziur esan, plastikozko poltsa baten barruan baitago. Etxeko sofan eseri gara biok, bata bestearen alboan. Gure asteko gertaerei buruz hitz egin ondoren, pare bat minutuko isilunea. Deseroso nago. Badirudi bera ere urduri dagoela. Orduan konturatu naiz zerbait esan nahian zebilela, baina ematen zuen ez zela ausartzen. Halako batean, zera bota du:

- *Urtea bukatzeaz dago eta... elkarrekin igaro ditugun urte hauek ahaztezinak izan direnez...* - Mutu geratu naiz momentu batez, baita bera ere. - *Zera... beste hainbat urte zoriontsu igaro ditzagun bata bestearen alboan! Azken hitz hauek esan ondoren, nire albotik altxatu eta egongela bazterrean utzi duen plastikozko poltsa txikiaren bila joan da. Urduri jartzen hasia naiz.*

- *Urte zaharra ondo agur dezagun, hau zuretzat maitea.*

Begietara zuzen begiratu diot eta plastikozko poltsa hartu dut. Bai, karpeta txiki bat da. Bi gomatxoak alde batera luzatu eta zabaldu egin dut. Mutu geratu naiz, ez dut sorpresa handiagorik hartu bizitza osoan. Bi hegazkin txartel ditut begien aurrean, bai, Marokora bi hegaldi. Shock egoeran nago. Hitzik esan gabe. Nola eskertu ere ez dakidala. Orduan, irribarre egin eta muxu erraldoi bat eman diot.

Oraindik ere kosta egiten zait sinestea, egun pare bat barru, azken zazpi urteotan desio izan dudan ametsa egia bihurtuko da. Orain bai, orain nire senideengana joango naiz, nire bizitza aldatu duen mutila aurkeztuko diet eta denok elkarrekin sekulako momentu ahaztezinak igaroko ditugu!

Gaur ez du nire ametsik ederrenak oztopatzen dituen aparatu ziztrinak jo, gaur, aspaldiko partez, ez ditu inork nire ametsak oztopatu. Pozez lehertu beharrean nago, maletak prestatuta ditugu jada, eta lau ordu barru da hegaldia.


Heldu da ordua, nire bizitzan ahaztuko ez dudan bidaia hastear gaude. Loiuko aireportuan gaude biok, eserleku luze batean eserita, pantaila handiari begira. Leihatila batera hurbildu gara eta maletak zinta luze batean utzi ondoren, nire jaioterrira eramango gaituen hegazkinean sartzeaz gaude. Berrehun bat eserlekuk betetzen dute hegazkina, gu biok, haietako bi okupatuko ditugu.

Bidaia luze baten ondoren, heldu gara beste kontinente batera, Afrikara, hain zuzen ere Marokora. Hau guztia oso desberdina da, izugarri aldatu da nik alde egin nuenetik. Badirudi ekonomia egoerak hoberantz egin duela, baina oraindik ere egurrezko etxola zahar ugari ikusten dira herri bazterretan.

Ordu pare batean, heldu gara ehun bat biztanleko herri miserablara. Zenbat oroitzapen on bat-batean. Nire etxetxoa ikusteko desiatzen nago. Hantxe dago! Urrunean. Lehen baino egoera hobean dagoela esan daiteke. Kezka eta beldur bolada bat pasatu da nire barnetik, urte asko pasatu dira, eta beldur naiz. Sentsazio arraro hauek guztiak alde batera utzi eta nire mutil laguna eta biok eskutik lotuta hurbildu gara. Atea jo baino lehen, besarkada handi bat eman diogu elkarri. Orain prest gaude...

Neure gogo guztiekin kolpekatu dut egurrezko atetxoa. Norbaiten pausuak nabaritzen ditugu. Badirudi hurbiltzen dagoela. Atea suabe-suabe ireki da, eta bertan ikusi ditut denak, afaltzen, mahai inguruan eserita. Nik irudikatzen nituen bezalaxe, aurpegietan irribarre handia zutela. Nire masailetan behera, negar malko bat erortzen nabaritu dut, pozaren-pozez.

Ni Khira naiz, hogeita sei urteko neska gaztea, etxe honetan hazia, eta bizia. Hemezortzi urterekin Euskal-Herrira (munduko herririk ikusgarrienera) emigratu beharra izan nuena. Azken zazpi urteotan zuen falta handia sumatu dudan arren, oso zoriontsua izan naiz. Batez ere, Martxel ezagutu nuenetik. Bera mutil zoragarria da eta izugarri maite dut, izan ere, berari esker gaude hemen. Zazpi urte hauetan zehar zenbait bizipen eta gertakizun bizi izan ditut etxetik urrun, eta zuekin elkarbanatzeko irrikaz nator. Gozatu dezagun momentu bakoitza elkarrekin Euskal Herri maitera itzuli orduko!





Ekaitz Martín Pérez
DBH 4.maila

“Artea kaleko jendeari mezu bat helarazteko modurik ederrena da. Arteak beste mundu eta persona batzuk ezagutzeko ahalmena ematen digu. Arteak mundua alda dezake eta ezinbestekoa da hau defendatzea”.

ITSASARTEKO AMESGAIZTOA

Gaueko hamaikak ziren. Zahara eta ama lotan zeuden jada. Ni zerura begira nengoen, helmugari buruz amesten; gauero egiten nuen bezala. Hotz izugarria egiten zuen gau hartan. Argeliako desertuko gauak beti izan dira oso hotzak, baina egun horretakoa, beste 78 egunetakoa baino hotzagoa zen.

Luze zen etxetik irten ginenetik, eta hala ere, oraindik gogoratzen ditut Bouhessa-ko kaleak. Harezko geruza fin batez estalita zeuden eta, normalean, herriko 3000 biztaleak kalera irteten ginen beti elkarrekin hitz egiteko edo batek abereak zaintzen zituen bitartean besteek konpainia egiteko.

Ondo gogoratzen dut. Saharako desertuan geunden eta hobe nuen lo egitea hurrengo egunean Marokotik gertuago egotea lortzeko ... Hurrengo goizean, egunsentiarekin batera ibiltzen hasi ginen. Amak gaua oso txarto pasatu zuen beti bezala. Oraindik ez zituen ahaztu pairatu behar izan zituen tratatu txar guztiak. Imran pertsona nazkagarria izan zen amarekin eta ez zuen merezi ezta aita hitzarekin deitzea ere. Zorionez, ama indartsua zen eta aurrera jarraitu ahal izan zuen Imran gure aurreztutako diru guztiarekin Italiara joan zen arren.

Bestetik, nire arrebak, Zaharak, oso ondo zeramatzan bidaia. Bere ustez abentura bat bizitzen ari ginen eta ez zuen ia negar egin bidaia osoan zehar. Ume baten ikuspuntutik denak dirudi zoragarria, baina, berak ez zekien beharbada ez zela bidaia hartatik bizirik aterako. Aitzitik, probabilitate handia zegoen gure itsasontzia itsasartean hondoratzeko.

Aste bat igaro ostean, Atlas Mendikatera heldu ginen. Zahara, ama eta hirurok guztiz harrituta geunden. Gure bizitzan zehar ikusi genituen mendi bakarrak desertuko dunak ziren eta altuenek 20 metroko altuera zuten asko jota. Gure aurrean zeuden mendi erraldoi horiek, aldiz, ehundaka metroko altuera zuten eta euren gailurrak kolore zuri batez zeuden estalita. Amaren arabera, hori elurra zen, izotzaren antzeko zerbait. Hori entzutean Zaharari tontorrera igoteko gogo handiak sartu zitzaizkion. Halere, mendi-hegalean egun bat atsedean hartzea erabaki genuen; ama haurdun zegoen eta erraz nekatuko zen ziur aski.

Hurrengo goizean, Atlas Mendikateko gunek baxuenetik zihoan bide bat aurkitu genuen. Zorionez, Fez hiria aurkituko genuen bidean zehar. Nire amaren ustez, hiria erraldoia zen eta bertan bere anaia bat bizi zen, Misbah. Dirudienez, orain dela asko papeltxo batean idatzi zion non egingo zuen lan hirira heltzean.

Bidea ez zen oso gogorra izan hasiera batean. Ama nahiko ondo zihoan eta Fadi-k, nire amaren sabelean zihoan anaia, ez zuen eragozpenik sortu, baina, hiruzpalau ordu igaro ostean ostikoak ematen hasi zen eta amak atsedean hartu behar izan zuen. Nik espero nuen gauza bakarra Fadi bidaia ez ostopatzea zen. 8. hilabetea zen ama haurdun zenetik eta edozer gerta daiteke 7. hilabetetik aurrera ... Amak Fadi izena jarri zion, Fadi hitzak “salbatzaile” esan nahi duelako arabiarrez, gure familia “salbatu” ahalko zuelaren itxaropenarekin. Amaren asmoa Espainiara heltzean erditzea zen, horrela gure familia bertan geratzeko. Ideia hori oso arriskutsua zen nire ustez, baina ondo funtzionatu ezkeror Europatik mugitzeko askatasuna emango liguke.

Eguzkia zeruertzean ezkutatu zen orduko, bidearen erditik geunden gutxi gorabehera. Agian, hurrengo gauean Fez-en egongo ginen osaba Misbah-rekin zerbait afaltzen. Gauero bezala izarretara begira gure etorkizunarekin amesten hasi nintzen: egingo nituen lagun berriak, ikasiko nuen hizkuntza berria, etxebizitza berria, non ura edateko ez den herriko putzura joan beharko ezta abereak hazi jan ahal izateko ...

Eguzkia irten berria zen eta mendiaren malkar batetik paisaiari begirada bat botatzea erabaki nuen. Harrituta geratu nintzen! Inoiz ez nuen nire begiekin horrenbeste berde ikusi aldi berean! Orain bai esan ahal genuen desertutik irten ginela. Ama eta Zahara prest egon zirenean menditik jaitsi ginen bidea jarraituz, Fez-erantz.

Iluntzean, Fez-era heldu ginen. Zahara eta biok harrituta geunden jende guzti hori ikustean. Milaka pertsona zeuden norabide guztietatik. Biok antzeman genuen lehen gauza izan zen biztanleak ez zutela ezta elkar ezagutzen ezta komunikatzen ere. Bakoitza bere kabuz zihoan alde batera edo bestera, hau da, ez genuen sentitzen Boughessan sentitzen genuen komunitate- edo elkarbizitza-sentimendua.

Amak Misbah-k emandako papeltxo atera zuen eta jendeari helbideagatik galdetzen hasi zitzaion. Pixkanaka bazirudien nire osabaren lantokira hurbiltzen ari ginela. Azkenean, “Tawabul Almisbah” izeneko denda batera heldu ginen. “Tawabul Almisbah” “Misbah-ren espeziak” esan nahi du arabiarrez; orduan, ziur geunden osabaren denda aurkitu genuela. Denda itxita zegoen, beraz, hurrengo egunera arte itxarotea erabaki genuen.

Goizean, 50 urte inguruko gizon bizardun bat hurbildu zitzaigun, ni ikaratu egin nintzen, baina, amak bere gainera salto egin eta besarkada handi bat eman zion. Suposatu nuen nire osaba zela.

- *Zuek nire ilobak zarete, ezta? Zelan hazi zaren, Namir! Ez zaitut ezta ezagutu ere egin!* — familiako guztiek esaten duten gauza bera esan zidan, betikoa ...
- *Zelan zabiltza hemen?* — galdetu zion amak — *Denda zurea da, ezta?*
- *Bai, jabeak denda utzi zuen orain dela urte batzuk eta nik denda erosi nion. Sartu barrura eta hartu lekua!* — esan zuen, sarrera seinalatuz.

Misbah-ren denda ez zen batere txikia. Toki hartan 4 gamelu sar zitezkeen erraz. Barruan mahai bat zegoen aulki batekin atzean. Ziur aski hor jesartzen osaba. Alboan bi besaulki zeuden. Ama batean jesarri zen eta ni bestean Zahararekin gainean. Misbah-k espeziak dendaren kanpoaldera atera zituen eta jendea dendan sartzen hasi zen. Batzuek piperbeltza eramaten zuten, beste batzuek ziapera ...

Eguerdian, jateko eten bat egin zuen osabak eta orduan kontatu zion amak gertatutako guztia ...

Jan ostean, osaba hurbildu zitzaidan nola lagundu ahalko gintuen azaltzera. Bere ustez, ni nagusia nintzen jada familiaz arduratzeko. Orduan, Marokoko mapa erakutsi zidan.

- *Gu hemen gaude* — esan zuen Fez jartzen zuen tokia markatzen — *Espainiara iritsi nahi baduzue, bi bide posible daude: Ceuta edo Melillan sartzea edo Gibraltarreko Itsasartea zeharkatzea* — hiru tokiak seinalatu zituen eta jarraitu zuen —. *Ceuta edo Melillan sartzea gaur egun ia ezinezkoa da, egia esanda. Ezagutzen ditudan bi lagun, Qasim eta Salah, hori egiten saiatu ziren eta egin zituzten zauriez aparte, Marokoko poliziek oso txarto tratatu zituzten hesitik jaitsi zirenean. Beraz, gaur egun Espainiara heldu nahi diren guztiek itsasartea zeharkatzen dute. Horretarako, Eddalya izeneko herri batera joan beharko duzue; hemendik 3 egunetara dago gutxi gorabehera, zure ama haurdun dagoela kontuan hartuta* — orduan kostaldean zegoen herritxo bat markatu zuen, gauero amestu izan nuen momentua mapa horretan zegoen, nire begien aurrean.

Gero, jarraitu behar genituen errepide guztiak orri batean idatzi zituen eta maparekin batera motxilan sartu zidan. Fruitu lehor poltsa ugari, hiru ogi eta bost ur botila sartu zituen ere bai.

- *Honekin Eddalya-ra heltzeko nahikoa duzuela uste dut. Hala ere, amari 1000 Dirham eman dizkiot zerbait erosi behar baduzue, erosteko eta zuek daukazuen diruarekin batera bidaia ordaintzeko. Gainera, 250€ daukazue ere bai Espainiara heltzean diru pixka bat edukitzeko.*

Jan ostean, Eddalya-rantz abiatu ginen. Ama inoiz baino pozago zegoela zirudien eta Zahara energiaz beterik zihoan gure aurretik. Hirurok geunden kostaldera heltzeko irrikan. Ez nekien nola erreakzionatuko nuen itsasoa ikustean. Nire bizitzan ikusi nuen itsasorik handiena desertuko oasia zen eta ezin nuen irudikatu neure buruan hainbeste ur toki berean pilatuta.

Osabak esandako errepideak jarraitu genituen eta berak esan zuen bezala 3 egun igaro ostean herri txiki, polit horretara heldu ginen. Ez zegoen guztiz kostaldean. Hondartza kilometro batera zegoen bide-seinaleen arabera. Suposatzen da hurrengo eguneko gauean bi gizon egongo zirela gu itxaroten hondartza hartan. Orduan, atsedean hartzea erabaki genuen gau hartan gertatuko zenerako prest egon gintez.

Eguzkia desagertu orduko, hondartzarantz abiatu ginen. Bertan, 15 pertsona inguru zeuden. Oso urduri nengoen ez baikenekien igeri egiten eta zerbait pasatuz gero ito egingo ginen. Itsasertzean itsasontzi bat zirudiena ikusi nuen. Bi pertsona zeuden bertan osabak esan bezala. Ez zen ia ezer ikusten, baina eurei hurbildu gintzaizkien.

- *Salam ealaykum!* — esan ziguten — Dirua ekarri duzue? 200 Dirham dira pertsona bakoitzeko eta zure ama haurdun egoteagatik berak bikoitza ordaintzen du — *biak barrezka hasi ziren egoera hura barregarria izango balitz bezala* —. Dirua ez badaukazue, itzuli ahal zarete etorri zareten lekutik!
- *Ongi da* — esan nuen 800 Dirhamak emanez. 2 gizon horiek beste une batean aurkitu izan banituen aurpegian ukabilkada bat emango nien, baina, orain beraien aginduak bete behar nituen Espainiara iritzi nahi banintzen.

Beste 7 pertsona etorri ostean, itsasontzira igotzeko agindua eman ziguten. Banaka-banaka geure tokia aurkitu genuen ibilgailu txiki horretan. Itsasontzia toperaino beteta zihoan eta hasieratik oso ezegonkor ikusi nuen. Orduan, motorra piztu eta itsasartea zeharkatzera abiatu ginen. Olatuek etengabe astintzen zuten ontzia. Gure aurrean zegoen familia bateko seme gazte bat ia uretara erori zen, baina, zorionez, bere aitak eskutik eutsi zion jausi aurretik.

Bidaia amaigabea egiten ari zitzaidan. Etengabe begiratzen ari nien ama eta Zaharari ea ondo zeuden ikusteko. Zahara urduri zegoen, ama bezala. Egia esan, itsasontzi osoa zegoen urduri; inork ez zekien igerian ...

Ordu bat igaro ostean, kostaldeko herrietako argiak ikusten hasi nintzen. Bat batean, soinu ozen bat entzun nuen itsasontziaren alde batetik zetorrena. Gero, itzal erraldoi bat ikusi nuen guregana etortzen. Soinua etengabe errepikatzen hasi zen, gero eta hurbilagotik zetorren. Auto baten klaxona zirudien baina askoz baxuagoa zen.

Itsasontzi bat zela konturatu nintzenerako berandu zen. Gure itsasontzi ziztrina erditik apurtuko zuen erremediorik gabe. Orduan, jendea itsasontziaren aurrealderantz joan zen, salbatuko ziren itxaropenarekin. Asko uretara jausi eta ito ziren. Ama, Zahara eta ni ontziaren erdian geunden eta kontu handiz mugitu ginen aurrera. Kolperako prestatu ginen.

10 segundotan guztiok geunden uretan, zerbait hartzen saiatu nintzen. Zorionez, itsasontziaren alboetan zihoan buietariko bat hartu nuen. Zitzu bizian ama eta Zahara bilatzen hasi nintzen. Nigandik 4 metro ingurura zeuden. Orduan, nire bizitzako erabakirik zailena hartu nuen: lortutako buia eurei jaurtitzea. Pixkanaka, hondoratzen ari nintzela konturatu nintzen eta zerbait eusteko ahalegina egin nuen. Ez nuen ia ezer ikusten eta orduan konturatu nintzen bertan bukatuko zela bidaia.

Gutxienez, hiru bizitza salbatu nituela banekien. Apurka-apurka itsasoak irensten ninduela, begiak itxi nituen, heriotza onartuz.



Ciprian Marius Nicolae
DBH 4. maila

“Saiatuz gero, munduan gehien desio duzuna lor dezakezu.”

GIDATU AZKENERA ARTE

Bazen behin Jorge Prado izeneko mutil bat. Jorgek 10 urte zituen, ile beltza zuen, begi berdeak, altua eta indartsua zen. Jorge Jesus aitarekin, Cristina amarekin eta arrebarekin, Laurarekin, bizi zen Coruñan.

Jorgeren aitonak bere semeari, hau da, Jorgeren aitari, motorrean ibiltzen irakatsi zion bost urte zituenean. Jesus oso ona zen ibiltzen; hamabost urte zituenean hobby moduan motokross egiten zuen. Hurbil zeuden lasterketetan parte hartzen zuen, bere aitak mekaniko bezala lan egiten zuen eta bera laguntzen saiatzen zen. Lasterketa batean, Ereñoko motokrossean begiraleak zeuden eta Jesusek ondo zekien. Lasterketa hori baino arinago oso urduri zegoen baina primeran egin zuen. Lasterketa amaitu eta ordu batzuetara deitu egin zioten, KTM enpresatik (Konreif Trunkenpolz Mattighofen) zen, esatko motokrossean zeukaten taldean sartu ahal zela. Jesus oso pozik sartu zen. Jesus hamasei urterekin KTM enpresaren pilotu ofiziala zen eta tituluak lortzeko egin ahal zuen guztia egiten hasi zen.

Berak ez zuen inoiz pentsatuko motokrossa lanbide modura izatea eta ez zuen pentsatzen patrozinatzaileak izango zituenik, ez zuelako askorik entrenatzen eta oso garestia zelako. Urteak pasatzen joan ziren eta Jesusek lehiaketa eta txapelketa asko irabazi zituen. Munduko lehiaketa heldu zen. Neguko zapatu bat zen eta astelehenean lehiaketa zen. Jesusentzat bere bizitzako egun garrantzitsuenetako bat. Dena prestatu zuen eta Frantziara joan ziren. Tyrossera heldu zirenean domeka gaua zen eta heldu bezain laster ohera sartu zen. Hurrengo egunean dena eman behar zuen, ez zuen inoiz txapelketa hori irabazi, ez zen inoiz munduko onena izan eta irabazteko dena emango zuen.

Ordu batzuk zituen deskantsatzeko eta ondo aprobetxatu zituen. Hasteko ohe bigun batean lo egin zuen, nahiz eta hasieran lokartzea kostatu zitzaion. Behin esnatuta, lasterketan parte hartzeko eta irabazten ahalegintzeko beharrezko energia hartu zuen. Horretarako, sagar bat jan eta edari isotoniko bat edan zituen.

Behin prest zegoela, lasterketako pistarantz abiatu zen. Bertan, gainontzeko lasterkariekin elkartu zen eta lehenengo kronometratuak hasi ziren egiten. Jesus oso urduri zegoen, oso garrantzitsua baitzen berarentzat irabaztea, baina hala ere, ondo hasi zen eta bigarren geratzea lortu zuen.

Lasterketa nagusia hasi zen eta Jesus ondo hasi zen, bigarren postuan zegoen eta gogo biziz ondo pasatzeko eta batez ere, irabazteko. Azken biran, bere aurkariarekin parean joan eta gero, lehenengo jarri eta irabazi zuen. Bere biziko egun onena izan zen eta gaueko ordu handira arte geratu zen ospatzen.

Jesusek berdina nahi zuen bere semearentzat eta txikitatik motorrean ibiltzen irakatsi zion. Denborarekin Jorge hobetzen joan zen eta hamahiru urtekin motokrossa hasi zen praktikatzen. Hasieran ez zen oso ona, beti egoten zen azkenetarikoa. Jorgek bere aitaren modukoa izan nahi zuen eta oso gogor hasi zen entrenatzen eta horrek fruituak eman zizkion. Ikasketek uzten zioten denbora libre guztietan motorra hartu eta praktikatzera joaten zen; batzuetan bakarrik eta bestetan aitarekin. Asko gustatzen zitzaion aitarekin joaten zenetan, honek aholku eta laguntza asko ematen ziolako. Lan horren guztiaren ondorioz, podiumean bukatzen zuen beti, nahiz eta lehenengo postua inoiz ez zuen lortu. Jorge ez zen pozik geratzen hirugarren postuarekin, ezta bigarren postuarekin. Berak benetan nahi zuena, lehenengo postua zen, hori zen bere ametsa! Beraz, gogorrago entrenatzen hasi zen, eta azkenean heldu zen lehen postua lortu zueneko. Hortik aurrera, lasterketetan lehenengo postuan geratzen zen ia beti.

Denboraldiko azken lasterketaren hasieran mutil bat hurbildu zitzaion esaten KTM enpresako begiralea zela eta interesatuta zegoela Jorgerengan. Lasterketa horretan bera onena izan zen eta asko estutu zuen motorra, lehen postua lortu zuen eta. Begirale honek horren lehiakor eta gogotsu ikusi zuen, KTM enpresa ordezkatzeko kontratatu zuela.

Jorgek ezin zuen sinetsi! Apurka-apurka bere ametsa egia bihurtzen hasi zen eta oso zoriontsu sentitzen zen. Ahal zuen guztia egin zezakeelako ustea zuen eta aitaren urratsei jarrai ziezaiekeela uste zuen. Aita harro egongo zen.



Jorge aurrealdia KTM enpresa ordezkatzan hasi zen oso pozik. Lau urte egon zen KTM enpresarekin eta titulu asko irabazi zituen. Hain ona zenez, KTM enpresako buruak proposamen bat egin zion: familia osoa Holandara joatea. Holandan leku gehiago eta hobeak omen zituen entrenatzeko eta bertan motorren kultura handiagoa zelako. Gurasoentzat oso zaila zen, Jorgek DBH 4. maila hasiko zuen eta bere arrebak DBH 1. maila. Gainera lan berri bat topatu beharko zuten eta gaitzena, hizkuntza berri bat: holandarra. Hala ere, familian hitz egin zuten eta Holandara joatearen alde onen eta txarren zerrenda egin zuten. Eta azkenean, nahiz eta oso gogorra egin zitzaien, beraien etxeko gauza guztiak bildu zituzten eta Holandarako bidaiari ekin zioten. Atzean, Galizian, lagun guztiak, lana eta familia utzi zituzten eta bizi berriari ekin zioten. Dena atzean utzi eta Holandara joan ziren, lehen hilabeteak oso gaitzak ziren laurentzat, baina batez ere Laura eta Jorgerentzat, Holandara iritzi eta lagun barik topatu ziren, eskolara iristean ez zuten norekin hitz egin edo jolastu. Iada ez ziren mutil eta neskato koskorrak eta adinaren zailtasunari, hizkuntzarena gehitu behar izan zioten lagun berriak egiterako orduan. Baina beraien izaera zabala eta adeitsuari esker, aste gutxiren buruan lagun berriak egin zituzten. Gainera beraien Galiziako lagunekin kontaktuan mantentzen ziren. Azkenean egoera berrira ohitu ziren.

Motokrossari zegokionez, aldi berria hasi zuen Jorgek eta enpresa-buruak esan zion bezala, bertan leku pila zituen entrenatzeko eta motorren kultura hori Galizian baino asko barneratuago zutenez, gauza berri pila ikasi zituen. Oso gustura ibiltzen zen. Ondorioz, gero eta ospetsuago hasi zen bihurtzen motocross munduan.

Lagun berriekin ere, motorraz edo bizikletaz ibiltzen zen eta horrek ere eragina izan zuen bere ospean. Holandara joateak bere fruituak ematen hasi zen. Heldu zenetik zortzi lasterketa irabazi zituen jarraian eta sailkapenean lehengoa zihoan. Urteak joan urteak etorri, Jorge munduko onenatarikoa bihurtu zen eta mundu osotik hasi zen bidaiatzen. Jorge orain denboraldi ona ari da egiten baina, lortuko ote du urte honetan munduko onenaren titulua?



Araitz Zuntzunegi Dominguez
DBH 4. maila

*“...Txikitan isilik maite gintuzten,
gaztetan argal eta buru gabe...”*

Martxoaren 8an, DENOK KALERA!!

Munduan emakumeak zapalduak eta jazarriak gaude, baztertuak egoteaz gain. Indarkeria, bortxaketa, sexu jazarpena eta hilketak zabal dira han eta hemen. Adibideak askotarikoak dira, hurbilean gertatzen dira maiz, eta inguruan daudenek beste aldera begiratzen dute. Baina, posible al da beste alde batera begiratzea?

“Maite naiz. 22 urte ditut, eta Lekeition bizi naiz. Duela pare bat urte Eriekin ateratzen hasi nintzen, eta zeharo maitemindu. Haren atzaparretan erori nintzen, eta guztiz harrapatuta nago. Eriekin ez naiz zoriontsu eta Erik barik ezin izango naizela bizi sentitzen dut. Erikek nire mugimendu guztiak kontrolatzen ditu, eta edozein aitzakia da ona ni gaizki tratatu edo jipoitzeko. Batean gona laburregia jantzi dudala, bestean mutil batekin hitz egiten ikusi nauela, Instagramen jarri dudan argazkian arropa estuegia daramadala, eta hainbat kontu asmatzen ditu. Azkenaldian, Eriken paranoiak larregizkoak dira, eta bizi dudan sufrikarioa jasanezina. Eguna negarrez igarotzen dut, eta zulo horretatik ihes egin nahi dudan arren, ez naiz ausartzen, beldur naiz, hain nago engantxatuta”.

“Irene naiz eta 42 urte ditut. Gasteizen bizi naiz Ander nire senarrarekin eta bi alabekin. Gaueko bederatziak dira, eta alaba txikiak lo daude dagoeneko. Iratik bost urte dauzka eta Maddik hiru. Afaria prestatu dut, eta Ander noiz etorriko zain nago. Iritsi da Ander guztiz hordituta. Azkenaldian sarriegi edaten duenez, eta hala ikustea gustatzen ez zaidanez, logelara joan naiz eta bakarrik utzi dut sutean. Nonbait ez dago ogirik mahai gainean, eta afaria hotz dago. Eta Anderri ez zaio batere gustatu halako “hutsegitea”, eta oihuka hasi zait bere onetik aterata. Kolpeak eman dizkit han eta hemen, ileetatik tiraka sukaldera arte eramanez nau oihu egiten zidan bitartean, eta afaria beroarazi dit. Beldurra sentitu dut. Ez da lehen aldia, eta badakit ez dela azkena izango, baina ez daukat handik ihes egiteko adorerik”.

“Otxandioko jaiak dira. Herrian alaitasuna da nagusi, eta kalean naiz lagunekin. Bat-batean ohartu naiz mutil batek keinuak egiten dizkidala, ez diot kasurik egin eta koadrilan jarraitu dut ezer gertatu ez balitz bezala. Hurrengo tabernan, mutil bera ikusi dut berriz ere. Neska batzuekin berbetan ari da, harroko samarra dirudi eta ez zait irudituko oso tipo normala, zerbait arraroa somatu diot baina pasatzen utzi dut. Lagunekin dantzaz nabilela, mutila zelatan ikusi dut, nik egiten ditudan mugimendu guztiak kontrolatzen balego bezala. Orduan urduritzen hasi naiz, baina ez dut ezer esan. Ordu batzuk geroago, etxerako bidea hartu dut. Ez dabil inor kalean, eta bat-batean mutil hura agertu zait berriz ere. Ikaratu egin naiz, eta lasterka bizian hasi naiz. Mutilak atzetik jarraitu dit, baina ez du harrapatzea lortu. Atari batean ezkutatuta nago, negar malkotan, dar-dar”.

“Haurdun nago. Hiru hilabete barru jaioko da Nile, eta gaur nagusiak gutun bat eman dit. Gutun horretan dio datorren hilabetetik aurrera ez dutela nire beharrik izango lana gutxitu baita azkenaldian. Ni baino beranduago hasitako hainbat lagun dago enpresan, kasualitatea ote da denak mutilak izatea? Mutil horiek ez dute gutunik jaso, nik bai, ordea. Beldurra sentitu dut, gehien behar dudanean geratuko bainaiz lanik gabe”.

“Rosemiren naiz. Aspaldidanik egiten dut lan herriko enpresa batean, administrari lanetan. Azkenaldian Mikelek, jefeak, tratatu “berezia” egiten dit. Bakarka gaudenean ukituak egiten dizkit, eta gustu txarreko piropoak esaten dizkit. Baina ez diot inori kontatu. Gaur, lan asko daukagula eta arratsaldean ere lan egiteko eskatu dit gainera. Ez zait ideia ona irudituko, egunero seme-alaben bila joaten bainaiz ikastolara, baina ez naiz ausartu ezetz esaten eta lanean geratu naiz. Denak joan direnean, Mikel agertu zait bulegoan irribarrea aurpegian duela. Atea itxi, eta nire mahai gainean eseri da. Haren begirada zikinak ikaratu egin nau, eta urduri jarri naiz. Bulegotik ateratzen saiatu naiz, baina ez dut lortu. Mikelek bulegoko mahai gainean bortxatu nau. Kupidarik gabe. Orain bakarrik nago bulegoan, beldur naiz, izututa nago zer egin ez dakidala”.

Gaur martxoaren 8a da. Euritan eta goibel esnatu da eguna. Maitek, Irenek, Rosemirenek eta Euskal Herriko milaka eta milaka emakumek beldurrak atzean utzi, eta kalera ateratzea erabaki dute. Herriko plazara bidean doaz, gaur haien sufrimendua konpartituko dute, eta bidean dira, bizimodu hobe bat lortzeko bidean. Pankartaren atzean doaz. Halaxe dio pankartak: “Gora borroka feminista!”. Zapi lilak besoan lotu dituzte, eta gaur kalea eurena dela sentitzen dute. Ez dira beldur, behingoagatik ez dute beldurrik.

Manifestazioan emakumeak dira nagusi. Haien borrokarekin bat egiten duen gizon batzuk ere hurbildu dira, baina ez asko. Herriko kaleetan zehar doaz, oihuka, lotsarik gabe, eta buruak tente. Gaur egun handia da. Bat-batean espaloietako jendea ere sartzen hasi da. Gizon eta emakumeak, heldu eta gazteak gehitu dira itsaso zabalera, eta plaza gainezka dago. Euskal Herriko kale eta plazak gainezka daude. Mundua irauli egin dela dirudi. Gaur ote da eguna? Gaur ote da martxoaren 8ko azken greba? Hala balitz!

Gauean Maite, Irene, Rosemiren eta borroka egun horretan mobilizatu diren emakume jipoitu eta zapaldu guztiek lasai egin dute lo. Ez dute lortu injustiziak bukatzea, ez dute lortu munduko emakume guztiak salbatzea, baina gauza bat erakutsi dute, adorea. Haien etsaiaren aurrean altxatzeko adorea izan dute, eta itsaso zabala gero eta zabalago egiten lagundu dute. Gero eta gutxiago falta dela sentitzen dute, eta horrek bizitzeko eta borrokan jarraitzeko gogo piztu die.





Eneko Orue Basterretxea

BATX. 1. maila

“Gora gure bihotzeko euskerie”

MUNITIBARKO BASERRITAR BATEN MEMORIAK

1922ko martxoaren 19a zen, San Jose egun eguzkitsua. Beti bezala egunsentian jaiki nintzen baserriko lanak egiteko. Lehenengo eta behin gosaldu egin nuen, gure amamak esaten zidan bezala, lehenengo Jainkoa zela eta gero Santuak. Gero kortara joan nintzen. Egun bat lehenago Gorri izeneko behi gazteak txahala egin zigun, eta hura ondo zegoen ikustera joan nintzen. Han zeuden biak elkarri mimoak ematen. Baina kortan beste animalia gehiago geneuzkan: beste hiru behi eta zezen bat, zaldi bat, 2 katu eta untxiak solte. Ardiak ere geneuzkan, 50 buru. Etxe gaineko landetan zebiltzan poz-pozik. Animalia guztiei jatekoa eman eta gero sasoiko ortuaria hartu nuen. Haiek bai baba eta aza buruak! Lanak bukatu orduko hamaiketakoa egiteko sasoia zen.

Irratia piztu nuen eguneko albisteak entzuteko. Berriak bai onak, bai txarrak ezan zituen lokutoreak. Onena izan zen Markinar batek bere etxeko gelan urrea aurkitu zuela, 200.000.000 pezetako balioarekin. Notizia txarra izan zen Franko diktadoreak soldaduska egitera deitu zituela espainiar gazte guztiak. Ni euskalduna sentitzen nintzenez, luze eman nuen pentsatzen egingo ez nuela. Gainera, gure aitak esaten zuenez, soldaduska egitea urteak galtzea zen, zeren eta soldaduska eginez gero gerrara joan behar zinen bai ala bai, zure familia, herria eta lagunak utzita.

Astebururo Adolfo, Jose Luis, Esteban eta ni herrira joaten ginen, poteoan eta neskak ezagutzera. Juan noizbehinka zetorren gurekin herrira, gehienetan baserriko lanak egin behar zituelako. Asteburu hartan denok joan ginen. Hondamendi tabernara joan ginen kontuak kontatzera eta bide batez poteoan ibili ginen. Ardiak bezala geunden jesarrita, denok mahai inguruan. Lehenengo solasaldia soldaduskari buruzkoa izan zen; besteei ez zitzaaien axola egitea edo ez egitea, baina nik argi eta garbi utzi nuen ez nuela egingo. Hori entzutean besteak ere zalantzan jarri nituen, baina bat-batean neska koadrila bat sartu zen. Aulestikoak ziren eta urdaiazpikoa jaten zetozen. Gu ere eurengana hurbildu ginen nahiz eta lotsa pixka bat eduki. Geure adinekoak ziren eta zirudienez mutil bila zebiltzan. Elenak, denetatik ederrenak, nirekin bueltatxo bat eman nahi zuela esan zidan, baina ezetz esan nion, berandu zen-eta.

Biharamunean Juan etorri zitzaidan ortura laguntzera. Juan eta ni auzokoak ginen eta horretaz gain lagun minak ere. Hitz egiten geundela gauza batek harritu ninduen: eskakizun bat egitea agindu zidan. Berak bazekien ni beldurti samarra nintzela gerra asuntuetan eta oso sentibera ere. Eskakizuna Colusara joatea izan zen, bere identitatea harturik, artzain moduan lan egitera. Lehenengotan ezetz esan nion baina gero konbentzitu ninduen. Orain arazo bakarra gurasoei eta neba-arrebei kontatzea zen. Afaltzen geundela soldaduska kontu hori atera nuen. Aita haserretu egin zitzaidan, baina gero Juanek esan zidana kontatu nienean apur bat lasaitu zen. Ordu erdi igaro ondoren, azkenean baimena eman zidaten. Hurrengo egunean Juani esan nion eta hura ere poztu egin zen.

Hamaika hilabete beranduago, otsailaren 20an Kaliforniako Colusara joateko garaia iritzi zen. Bilboko portura joan behar nintzen New Yorkera zihoan itsasontzia hartzeko. Gero, New Yorken trena hartu behar nuen Colusara joateko. Nire familia eta Juan agurtu nituen eta autobusez joan nintzen Bilboko portura. Itsasontzia hartu eta Ameriketarako bidaia hasi zen. Bidaian hainbat pertsona ezagutu nituen. Gizon bat ezagutu nuen eta lagun onak egin ginen. Jabier deitzen zen, gizon altua eta morrosko samarra zen. Lekeitiokoa zen eta seme bat zeukan Eneko deiturikoa. Ni baino zaharragoa zen, 35 urte inguru edukiko zituen.

Azkenean, New Yorkera iritsi ginen 15 egunez ozeano Atlantikoa zeharkatzen egonez. Egun sendian iritzi ginen. Hura bai zeru polita! Bakearen dorretik pasatu ginen. Ez nuen ikusi halakorik bizitzan! 27 metro zeuzkan behetik gora eta eskuan sua zeukan. Ameriketako lurra zapaldu bezain pronto, miatu egin gintuzten goitik behera. Niri laster utzi zidaten pasatzen. Kaleetan galduta nenbilen. Bertakoek hizkuntza arrotzean hitz egiten zuten. Ezin nintekeen komunikatu! Baina laster hizkuntza arraroa ikasi nuen, "ENGLISH" deitzen zioten. Zaila zen ikastea baina denborarekin ez nuen euskalduna ematen hitz egiterakoan.

Tren geltokira iristea asko kostatu zitzaidan. Zorionez, Ziortza-Bolibarko batekin egin nuen topo. Bost urte zeramatzan bertan bizitzen eta New Yorkeko berriak ezagutzen zituen. Fermin zeukan izena eta hark gidatu ninduen tren geltokira. Trena arratsaldeko bostetan hartu nuen. Bidaia luzea izango zen baina dena neukan eskura. Transiberiako tren baten itxura zeukan, bai kanpoaldetik bai barrualdetik. Lehenengotan harritu egiten nintzen zelan emakumeak eta gizonak jatekoa ekartzen zidaten, mahaia jartzen.... Ni beti nengoen laguntzeko prest. Bertakoek, berriz, lasaitzeko esaten zidaten. Trenean ere jende asko ezagutu nuen. Denak amerikarrak ziren, gutxi batzuk frantsesak ziren, haiek ere artzain izateko emigratu zuten.

20 egun geroago, azkenean Colusara heldu nintzen. Herri nahiko handia zen, Markina-Xemeingo tamaina zeukan. Herriaren erdialdean eliza zegoen, San Pedro Santuaren izenarekin; elizaren aurrean plaza bat zegoen, zorionez, asteazkena zen eta merkatua ikusteko aukera izan nuen. Herriko tabernara joan nintzen Michaelen bila. Michael nire nagusia izango zen ondorengo urteetan. Nire lana artzain izatea zen. Bertakoekin zegoen kontu kontari whiskya edanez. Gizon nahiko altua zen, 50 urte inguruko morroia eta txapel harekin bakeroa ematen zuen. Hurbildu ondoren nire burua aurkeztu nuen, baita berak ere. Poztu egin zen ni ikustean, kezkatuta baitzegoen.

Colusako lehenengo gaua bertan egin nuen, Michaelen etxean. Etxe handia zen eta hainbat gela zituen. Bost seme-alaba zeuzkan: Rick, Elisabeth, Helen, Steve eta Donald deiturikoak.

Hurrengo egunean Fein mendira joan ginen. Colusatik 15 kilometrora dagoen mendia da. Tontorrean, egurrezko borda bat zegoen, bertako giltzak eman zizkidan, aholku batzuk eman eta astebate ingururako janaria eman ondoren herrira bueltatu zen. Ni, berriz, artzain geratu nintzen. Bi mila eta erdi ardi zeuzkan eta bi txakur ere Nabar eta Muscle deiturikoak. Border Colly arrazakoak ziren, beraz arraza onekoak.

Lehenengo egunetan landari begiratzen nioenean elurrez beteta zirudien. Dena zuri-zuri zegoen ardiz jantzita. Hura bai paisaia polita!

Hasieran egunak azkar igarotzen zitzaizkidan, baina asteak joan asteak etorri gero eta luzeagoak egiten zitzaizkidan. Ez nuen inorekin hitz egiten ezta ere irabazten nuen dirua gastatu ere. Ez nuen jairik izaten, bakarrik herriko jaietan eta nahiz eta giro ona izan, nahiago nuen bordan egon.

Neguan ardiak herrira eramaten genituen, hotzetik babesteko. Baserri zahar batean zaintzen nituen. Oraingoan, Michaelen etxean egiten nuen bizitza. Libre izaten nuenean beren seme-alabei euskara irakasten nien. Udaberria heldu bezain pronto, ardiak mendira eraman behar ziren. Mendira igotzeko lagun batzuk etortzen ziren laguntzera. Gero hamaiketakoa jaten genuen.

Horrela 17 urte eman nituen. 1939ko maiatzean, ez banaiz erratzen, buruzagiak ardiak saldu egin zituen; adina ere bazeukan-eta, 67 urte. Orduan nire jaioterrira bueltatu behar izan nuen, lan gehiagorik ez zegoelako. 17 urte horietan diru mordoa irabazi nuen. Berriro ere 17 urte lehenago egin nuen bidaia egin nuen. Herri guztia agurtu ondoren New Yorkerantz abiatu nintzen trenez 1939ko ekainean. Oraingoan ez nenbilen galduta. New Yorken hartu nuen itsasontzia Euskal Herrira itzultzeko.

Bilboko portura heldu nintzenean, dena kez beterik zegoen. Kea Oiz mendi ingurutik zetorren. Arranopola! Zer gertatuko ote zen ni kanpoan nintzela? Bizkaia zapaldu nuenean kontrola egin zidaten, dena guarda zibilez beterik zegoen. A ze arraroa! Gernikara joateko taxi bat hartu nuen. Muxikan geundela ezin zitekeen ez aurrera ez atzera egin. Aurrez aurre Gernika ikusten zen, dena suntsituta eta sutan. Paisaia hura ikustean, negarrez hasi nintzen ...



Alaitz Elgezabal Gonzalez

BATX 2.maila

“Banatzen gaituen kristala hautsi nahi dut”

KRISTALAK HAUTSI

Gaur, berriz ere, kotxea hartu eta milaka kilometro egin behar ditugu. Ordu askoko bidaia egin eta zuregana helduko gara, 40 minutuko denbora izanik zu ikustera. Gaur ezin zaitut ukitu, bisita bat delako, kristal ziztrin batek banatzen gaituelako. Kotxean noan bitartean, kristalera begiratu eta zure isla ikusi dut, zure betiko irri bihurria ikusiz, izandako bisita guztietan bezala. Eta beti bezala zu ukitzeko gogoak etorri zaizkit, eskua kristalean jarri eta zure islak berdina egin du nire parean eskua jarritz. Momentu eder honen ostean, itzelezko sustoa hartu dut zure isla desagertuz. Kotxe batek ia zuzenean jotzen gaitu. Denak isilean geratu gara, ikaratuta, hitzik esan gabe, bost minutu isilean, musika gabe... Zugan pentsatzen jarraitu dut, baina oraingoan zure aurpegi harritua, ahots ezezagun batek hitz hauek entzunaraztean: zure familiak istripu bat izan du. Zure aurpegi harritua eta begietatik jausten zaizula malko txiki bat imajinatu dut. Bost minutu horiek pasatzean amak nola gauden galdetu eta zuri ezer ez esateko agindu digu. Eta normala da, nahikoa daukazulako jasan behar duzun guztiarekin.

Goizeko zazpiak dira, bi ordu pasatu dira etxetik irten garenetik. Aitak atsedean hartu behar du, batez ere pasatu dugun momentua ahazteko. Euskal Herritik atera gara jada eta kotxetik irtetea betiko usaina etorri zait bat-batean. Milaka bidai eginda ere ez naiz inoiz oroitzen usain txar honetara, jasan ezina da. Gainera bistak ez dira bat

ere atseginak, etxe itsusiak daude inguruan laranja kolorekoak (beti desertua etortzen zait burura) eta mendi sikuak daude, kiskalduta egongo balira bezala. Buelta txiki bat egin beharra daukagu hankak luzatzeko eta beste bidaia erdia egiteko. Herria hutsik dago, ez dago pertsona bakar bat ere ez, normala, oso goiz da kaletik ibiltzeko eta gainera itzelezko hotsa dago. Taberna batera sartzea erabakitzen dugu, zaharrez beteta dago, denak erretzen eta alkohola edaten, harritzekoa ordu hauetan, kartekin jolasten ari diren bitartean. Beti bezala ertz baten esertzen gara, nik kola-kao bat eskatu dut gorputza berotzeko. Ama tabernako barrara hurbiltzen da eta eskatzen du. Langilea nahiko atsegina da, baina alboan zeuden zaharrek guri begira dabiltza. Esan beharra dago, nahiko ohituta gaudela eta ez diegu kasurik egin. Eskatutakoa edan eta bagoaz, berriz ere kotxera. Barrura sartu eta berriz ere martxan jartzen gara. Aitak falta den denboran lo egiteko esan digu. Albo batera jarri eta begiak itxi ditut. Musika entzuten ari naizen bitartean berriz ere pentsatzen hasi nahiz. Oraingoan, bisetan egiten diguzun bihurrikerietan. Txiki-txikiak garenetik gu baino txikiagoa zara, eta urte asko pasa ala berdin jarraitzen duzu. Orain dela gutxi izandako bisean egindako barrabaskeria etorri zait bat-batean. Itzelezko beroa egiten zuen, ur botila handi bat ekarri zenuen bisera eta edaten zeuden bitartean, botilaren tapa aldatu eta zure txabolatik ekarritako tapa bat jarri zenion. Ekarritako tapa horri zulo txiki egin zenizkion eta goitik behera busti zenigun. Zu bai zu. Horretan pentsatzen egon naizen heinean, loak hartu dut.

Esnatu naizenerako, ordu erdi bakarrik falta zitzaigun heltzeko. Bitartean, kantari ibili gara, ozenki kantatzen. Kantatu ditugun abesti haietako bat Ken Zazpiren “Hemen gaude” izan da. Beti gustatu izan zait abesti hori. Batez ere esaldi hau: “maite genituen gauzengatik erori ginen preso, baina gure maitasuna oraindik ez dago preso”. Askotan izaten ditugun bisita gogorarazten ditut, kristal ziztrin horrek ez duela gure maitasuna geldituko, eta gure arteko kilometroek gutxiago. Haiek hori nahi dute, gure arteko maitasuna apurtu nahi dute, baina ez dute lortuko.

Azkenean, leku honetara heldu gara. Milaka kilometro eginda gero heldu gara azkenik. Espetxe aurrean itxaron beharra daukagu, ordua heldu arte. Negua denez denak izoztuta gaude, espetxeari begira, eraikin baten dauden leihoei begira ia ikusten zaitugun. Sarreran zure izena esan eta atea zabaltu digute. Espetxe barrura sartu eta nortasun-agiria eman dugu harrera-lekuan identifikatzeko. Gudan hurbilago zaudela sentitu dut, horma zikin hauen atzean zaudela. Minutu batzuk itxaron (niretzako

ordu bat izan da), eta ate bat zabaldu dute. Betikoa egin behar genuen, metalezko objektuak kendu, alde batera utzi eta metal-detektagailutik pasatu gara. Makinatik pasatzen ari garen bitartean funtzionarioak guri begira daude. Mila aldiz egin badut ere, beti urduri jartzen naiz, ez dakidalako makina horrek txilibitua joko duen. Gure inguruan jende asko dabil, gu bezala bisita bat egiten. Baina nabaritzen da preso arruntei ikusten doazela, Euskal Herrikoak ez direla. Noiz behinka Euskal Herriko norbait ikusten dugu, baina gaur ez da eguna. Guztiak makinatik pasatu eta aurrera jarraitzen dugu, funtzionarioak esaten digun bidetik. Ingurura begiratzen dut, eta ikusten duda gauza bakarra kristal beltzez betetako ateak dira. Atzean funtzionarioak daude, guri begira. Bisiten lekura heltzen gara, azkenean. Orduak pasatu eta gero heldu gara. Gela oso txikiak dira eta denak alboan kristal gardenez beteta, beti bezala. Atetik sartu eta hurbilen dagoen gelan sartzen gara, lau izanda ere birentzako delako. Beste guztiak bakar batentzako da, baina normalean bat baino gehiago sartzen dira.

Zuri itxaroten gaude, ea noiz agertzen zaren. Pixka bat urduri nago, beti bezala, ea nola zauden arduratuta. Bat-batean ikusten zaitut, beti bezala, eta asko pozten nau horrek. Denak poz-pozik jartzen gara eta instintiboki eskua kristalean jartzen dugu zuri ukitzeko asmoz, baina ez, ezin dugu, zu gure aurrean zaude zure aurpegi bihurriarekin eta ezin ukitu, ezin besarkatu. Hitz egiten hasten gara zuk telefonoa hartuta. Beti bezala ikusi garenetik gertatu zaizkigun gauzei buruz hitz egiten hasten gara eta zuri barruan zaudela pasatu zizkizun gauzak. Gauzak beti irribarre baten kontatzen dizkiguzu baina nik oso ondo dakit arazo ziztrin horiek txarto egiten zaituela. Gainera egun guztietan gela txiki horretan egoteak burua apurtzen du. Gure gauza guztiak kontatzean gustura entzuten ari zara beti, baina batzuetan txarto sentitzen naiz, zuk ezin dituzulako pasa barruan zaudelako.

Apurka-apurka minutuak pasatzen hasten dira, konturatu gabe, zure irribarreaz eta ahotsaz gozatzen ari naizela. Inoiz ez diguzu esan txarto zaudela, beti telefonoz amari kontatzen dizkiozu dituzun arazoak guri ez arduratzeko. Baina nahiko nagusiak gara eta ezin gaituzu engainatu. Amak iraganean izandako arazo larri guztiak kontatu dizkigu eta harrituta utzi naute. Beti esaten digu zuri horrelako gauzei buruz ez hitz egiteko, eta arrazoi guztia dauka. Min gehiegi daukazu gainean eta gutaz arduratzea gehiegi da.

Minutu hauek pasata, gizon batek gure aldeko atean jotzen du, honek esan nahi du 40 minutuak pasatu direla. Agur esan behar dugula. Hurrengo hilabetera arte ez garela ikusiko. Denak altxatzen gara eta hasieran egin dugun bezala eskuak kristal ziztrin horretan jartzen dugu, zuri ukitzeko asmoz, baina ezin. Urteak daramagu zuri horrela ikusten baina ez nahiz inoiz oroituiko beti makoren bat jausten zait eta frustrazioarekin irteten naiz, zu kanpora eramanezin zaitudalako. Kristal zitrina apurtu, zuri eskutik hartu eta Euskal Herria bueltan eramateko.

Kristalean eskua daukadala buelta erdia eman eta banoa, zuk nire malkoa ikusi baino arinago. Leku ziztrin horretatik irten eta berriz ere kotxera. Barrura sartu eta berriz ere ordu askoko eta milaka kilometroko bidaia. Bidaia hasten garenean denak isilik geratzen gara hamar minutu. Ezer esan gabe, lehen izandako ia istripu horren momentuan bezala. Frustrazio hutsez, zu berriz ere hor itxi zaitugulako. Bidean gaudela, berriz ere kanta polit hori jarri da, begiak itxi eta bisita guztia etorri zait burura, baina oraingoan, kristala apurtzen imajinatu dut eta zurekin korrika ibiltzen. Begiak zabaldu eta kotxeko leihora begiratu dut, gela ziztrin horretako kristala izango balitz bezala, eta ukabilkada bat emateko gogoak etorri zaizkit. Arnasa hartu eta apur bat lasaitu naiz.

Egunak luzeak egingo zaizkit zu berriz ikusteko egunera arte, baina helduko da, eta zu kalera irtengo zaren eguna ere. Kristalak apurtuko diren eguna, betirako gurekin egongo zaren eguna. Benetan helduko da.



Aitana Intxausti San Martin

BATX.2. maila

“Bide okerrak hartzen zuzenak aurkitu nahian”.

ATE ILUNA

Bizitzaren helmuga

Iluna edo argia izatea

Norberaren esku dago.

Bihotzen taupaden antzekoa da bizitza;

Egunak gorabeherez beterikoak.

Goian alaitasuna, behean tristura.

Eskailerak behera dagoen ate misteriotsua,

Nora eramaten gaituen ezin jakin dezakeguna.

Dakigun bakarra zeharkatuko dugun ate hura,

Azken atea dela da,

Ateak markoa ukitzeaz batera
gure pertsona
irudi bat besterik ez da.
Batzuetan paperezkoa,
besteetan irudimenezkoa.

Azken ate madarikatu hura,
Askoren ikara nagusiena,
Inork pasatu nahi ez duena;
Ezta beste inork pasatzea ere.

Hala ere, maite dugun norbaitek,
Azken atea pasatzean,
Egunak beltz sentitzen ditugu.
Agur hotza ahoskatzean
Begiak ur-jauziak balira bezala,
Oihu eginez malkoak isuri
Eta bakardadea barneratzen dugu soilik.

Eta, belarriek hil hitza aditzean
Gorputza olatuak bezala mugitzen da,
Izugarrizko hotzikara jasaten dugu.
Norberaren bukaera iristean,
Gura ez duguna
Besteek tristura ikustea da.
Joan denaren desioa izan ez arren
Hori da egia;
Tristura da sentimendurik indartsuena.



Kattalin Urrengoetxea Uribarri
BATX 2. Maila

“Istorioz beteriko jendea omen da ederrena”

ZURETZAKO HITZ EDERRAK

Lehiaketa amaitu eta berriz naiz Gernikan. Hotzik egiten ez duen arren, izotza nabari dut neure bizkarrean eta hotzikara izugarria eskuetan. Garajerako bidean dauden eskailerak igotzen ditudan bitartean mutilari eman behar dizkiodan azalpenak buruz errepasatzen saiatzen naiz, baina ezpaineak ez didate laguntzen, dardarka soma ditzaket. Hozka egin diot beheko aldeari eta bat batean berotasun puntu bat igarri dut ahoan. Odola da.

Iritsi bezain laster aldaketarik nabarituko ez banu bezala hasi naiz hizketan, bere seriotasunari garrantzia kenduz. Alferrik. Ez du ezertxo ere esan. Nik hizketan jarraitu dut nire barnean, oso barnean den arren, badakidalako ezer txarrik egin ez dudala, eta egoera hau barregarria dela esaten ari natzaio neure buruari. Barregarritzat, ordea, ez du ezta puntu txikirik ere. Hotzez itotzen nago eta sabelean zerbait sumatzen dudana bitartean nire atzamarrek berenekin bat egiteko ahaleginetan nabil, horrela, bion arteko kontaktua nire alde izango dudalako esperoan pertsona heldu bezala jokatzeko hasi eta berak emango dizkidala azalpenak imajinatu dut.

Eskua baztertu du eta momentu berean nik kolpe txiki bat sentitu dut ezkerreko bularraren inguruan. Kolpe txikia zirudienak lurrera itsu-itsuan aurpegiz erortzeak besteko mina egin dit eta bihotza urduri jarri da.

Lehiaketan hasi da dena. Taldekide batek argazki bat atera eta sare sozial batera igo du. Baimena eskatu dit, noski, eta ahots ez oso seguruarekin erantzun diot baietz. Bion argazkia izan da, irribarrez, eszenatokira igo baino lehenagoko urduritasun eta zirrarara aurpegian nabari zaizkigularik. Body beltz bat daramagu jantzita, guztiok ia berdinak, kolore biziko lumekin apainduta; hegaka hastera doazen koloredun txori indartsuak irudikatuz.

Body-a izan da arazoa, ordea. Neure burua gorrotatu dut momentu horretan body-aren orde zergatik ez daramatzagun praka luze eta zabalak ulertu nahian. Dantza egiteko axola al du arropak, bada? Ez al da dena dantza egiteko moduan geratzen? Beraz, zergatik jantzi behar dugu body probokatzaille hau eta ez kiroleko arropa arrunta? Body madarikatua, Elorriotik soma dezaket bikotea haserre argazkia ikustean. Hain da nabarmena sentiarazten didan beldurra non bere pentsatzeko erek nireen gainetik egiten duten. Horregatik madarikatzen dut body-a, lehiaketa, egun hau, eta batez ere neure burua, mutilaren aurrean nik uste dudanak pisu eta balio gutxiegi izango dituela dakidalako. Istorioari bira osoa ematen eta ni errudun sentiarazten onena da. Eta hori gutxi balitz, ni isilik geratzea eta bere arrazoiak ulertzea lortzen du. Burmuinean leherketa bat senti dezaket; ni edo bera. Nire desio bakarra ez haserretzea da, ez dut berriz txiki sentitu nahi.

Berandu da dagoeneko. Isilik gaude biok baina oso ongi dakigu bakoitzak bestearen barnean pizten ari den gerraren arrazoa. Gutxi falta zaio lehertzeko, masailean nabari diot, hortzak estutzen ari baita eta horrek sua adierazten du, berotasuna, zerbait egin behar dut erre baino lehen.

Berriz hurbildu natzaio. Oraingoan egoeraz ahaztu eta maitagarriagoa izaten saiatu naiz. Musukatu eta bere masaileko berotasuna nabari dut. Ez da zentimetro bat ere mugitu eta nire pazientzia agortzear dago. Laztanak baino ez zaizkit burura etorri eta praketako botoia askatu eta zirriren bat edo beste egin dizkiot. Ez dirudi deseroso dagoenik, alderantziz alegia, prakak askatzeko bere esku handiak erabili baititu. Hau, aprobazio moduko keinutzat hartu dut. Isilik eta hortzak estutzen darrai. Nire barnean sugea dabil, eztarritik gora eta behera bizkor mugituz. Halako batean ahoraino igo da, potagura etorri zait, jarraian egingo dudanaren déjà vu bat izan da. Begiak gogor itxi eta ahoa irekiz bere zakila sartu dut ahoan. Oraindik ez du hitzik egiten. Plazer soinu bat entzun dudala iruditu zait. Bitartean ni, nazkaz betetzen ari naiz, ahotik hasi eta bururaino. Ez dakit zenbat iraun dezakedan.

Ez da beharrezkoa izan kalkuluak egitea, nire pentsamenduetan murgilduta nengoelarik hau noiz bukatuko delako esperoan, bultzada zakar batez beragandik urrunduta naudelako. Akabo bion arteko kontaktua.

Isilik gauden denbora-tarte honetan gero eta errudunago sentitzen naiz eta dagoeneko ezinezkoa da nire gorputzarentzat hotz naizela disimulatzea. Hankak mugitzen zaizkit eta kontrolatzen saiatu arren neure buruarekiko kontrola galdu dudala uste dut. Begiratu egin dit. Badakit begira dagoela. Hizketan hasi da baina paperak galdu eta oihuka jarraitu du.

Ez dakit nola ausartu naizen argazki hori ateratzen.

Bere aurpegia nigatik gero eta hurbilago dago, jan egingo nauela dirudi.

- *Zakilak berotzea gustatzen zaizu ezta? Argazki hori eta gero mutil guztiak zure atzetik dabiltzanez denekin joan zaitezke larrua jotzera! Puta halakoa!*

Hitz horiek barneko sugea, izotza eta beldurra usatu dituzte eta sentitu dudak hutsaren emaitza izan dira begietatik isuri ditudan malkoak. Eskuak aurpegia estaltzeko erabili ditut malkoren bat ikustean gehiago haserretuko dela suposatuz. Zerbait esan dut, oso seguru egon ez naizen arren, baina berak entzuteko beste balio izan du.

- *Min egiten didazu. Ezin dut gehiago. Amore ematen dut.*

Negarrez hasi naiz baina oraingoan hutsuneak barnetik ihes egin eta kanpora atera nahi izan du, zotinka hasi arte.

Niregana hurbildu eta besarkatu egin nau “Zure onerako egiten dut, ez zaitez berriz ere ausartu min egiten dizudala esaten. Gainontzekoek zure edertasuna ez ikustea baino ez dut nahi” belarrira xuxurlatu didan bitartean.

Momentu hau onespen moduko bat izan dela imajinatu behar izan dut zeren eta nik bere bularraren gainean negarrez jarraitu dudak bitartean bere eskua nire bularretatik praketaraino jaitsi da. Bere atzamarrak nire barnera sartu ditu baina antza denez ez dut plazer-keinu edota soinurik egin eta horrek sumindu du. Atzamarrak gogor eta indarrez sartu dizkit bigarrenaz, oraingoan min egin dit eta ondo ez portatzearen ondorioz jasan beharreko zigorra dela dakit.

Badaki min egiten ari dela eta azkenik oso derrigortuta plazer soinu ahul batzuk atera zaizkit ahotik, horrela sentitzen ez badudan ere. Neure buruari diodan nazka ulergaitza da. Zakila igurtzen ari natzaio, bere jolasa noiz bukatzen den dakidalako eta une hori zenbat eta bizkorrago iristen bada hobe.

Leher eginda nago, ezin dut eskua bizkorrago mugitu. Zergatik ez du bukatzen? Nik gehiago sufritzea nahi ote du? Oso polita izan daitekeen une hau zapuzten ari da. Nik, behintzat, ez dut gozatzen berak gozatzeko egin behar ditudan gauza guztiekin. Hau al da emakumeak sentitu behar

duena gizonarekin sexu harremanak izatean? Non geratu da plazer hitzaren benetako esanahia?

Besoa lokartzen ari zait. Gauza hauetarako balio ez dudanaren seinale dela uste dut. Besoak erantzun ez eta ahoa baino ez zait geratzen ondoan dudana dragoiak berriz suaz erre ez nazan. Oraingoan estuago itxi ditut begiak eta bere eskua gogor sentitu dut nire aluan. Atera egin dut, berak lasai gozatzea baino ez dudala nahi ulertaraziz eta nik nahikoa plazer sentitu dudala helaraziz.

Ez nago bat ere eroso. Begiak itxita ditudalarik ama agertu zait, lotsaz begiratzen nau; ondoren aita, ezin izan dut bere begiekin bat egin laguntza eskatzeko, ni ohartu baino lehen harenak uko egin baitidate; lagunak ere ikusi ditut “jakinaren gainean egon zara” esanez; azkenik, neba-arrebak gertatzen ari dena ulertu ezinik, harri eta zur. Arrebak pistola bat atera du nire burura seinalatuz. Nik ez dut gorrotatu egitera doanagatik, izan ere, fabore hori egiteko erregutzen ikusi dut neure burua. Pistolatik, ordea, balen ordez ura irten da presio handiz eta begiak ireki ditut izuturik. Ahoa likido zuriz beteta dut.

Segituan altxatu eta hura botatzera abiatu naiz.

Bueltatzean, biok isilik egon gara. Paper zati batekin bere zakila handitua garbitzen ari da, kontu handiz, bere altxor preziatuena izango balitz bezala. Niri ordea ez dit paperik eman.

Bere ondoan eseri naiz, azken batean, ondo portatu naizela uste dut eta opari gisa dena ondo dagoela adierazten duen musu bat baino ez dut amesten.

Ez da musurik egon. Izan ere, nola pentsa nezakeen semenez betetako ahoa musukatuko zukeela? Txoriburu halakoa. Merezia dut, begiak itxi eta lehenago ez ohartzearren.

Serio xamar jarraitzen dugun arren, arazoari garrantzia kentzeko nire ahaleginek zerbaitetarako balio izan dutela dirudi; ezer gertatu ez balitz bezala hasi da hizketan futbolaz. Ez dut uste munduan futbola baino gutxiago interesatzen zaidan beste ezer dagoenik. Buruaz baietz diotsot, esaten ari denaz tutik ere ulertzen ez dudana arren. Berriz ez haserretzea baino ez dut desio, eta, edozer egiteko gai naiz hori ekiditzeko.

Begietara begiratu diot eta nire begiekin aurkitu naiz. Bada beste zerbaite ere baina ez dut garbi ikusten, begiak txikitu ditut enfokatzen lagunduko didatelakoan, zera da: gorrotoa. Gorrotoa dago bere begietan eta aldi berean kafe koloreko aintzira horretako nire isladan beldurra ageri da. Oso txikitxo sentitzen naiz, badakit bera gabe ez naizela bizitzari aurre egiteko gai eta eskerrak eman behar dizkiodala bidaia zital honetan nire ondoan dagoelako beti niri laguntzeko eta babesteko prest. Izan ere, bere haserrealdi guztiak nire onerako dira. Garrasi edota oihu egitean,

mehatxatzean eta nire barnea beldurrez betetzean, lortu nahi duen gauza bakarra ni bere emakume ideala izatea baino ez da. Nola ez naiz ba berekin zorretan egongo?

Musu eman dit. Malkotan busti naiz eta gogor besarkatu dut. Maite dudala xuxurlatu eta bion arteko haserreek onik ez didatela egiten esan diot.

- *Zure onerako egiten dut.*

Ez da egia, bere buruagatik baino ez du egiten baina nik ez dut horrela ikusi nahi.

Esaldi madarikatua.

Musuka jarraitu dugu. Ipurditik estu heldu dit. Badakit gustuko duela eta utzi egin diot sabelean zirrara sentitzen dudalarik. Gorantz doa, bularralderantz eta bat batean beroa. Bero naiz. Hau ote da maitasuna? Beroz betetzen nauen zirrara kilikagarria?

Etxera heltzean dena ohi bezala dago. Seguru sentitu naiz atmosfera lasaian. Amak afaltzera behartu nau mehatxu aurpegia jarritz. Azkenaldian ez dut askorik jaten, baina ez lodiegi ikusten naizelako, sabelean dudak sugeak ez didalako lasai jaten uzten baino.

Bainugelara joan naiz. Kuleroak erantztean ia sugeak ihes egin du nire barnetik. Odola da. Berriz. Ez da hilerokoa, hori argi dago. Gaizki portatzeak dakarren zigorra da. Konortea galtzera noa baina ispiluari begiratzuz neure onera bueltatzea lortu dut. Odolez beteriko barruko arropa ahalik eta azkarren garbitu dut, amak ezer susma ez dezan. Dardarka nago berriz ere, ezin dut gorputza kontrolatu, burua biraka sentitzen dut. Kito. Afaria, hotza, beldurra, gorrotoa, sugea, koloretako txori askea, dena bota dut komunetik behera.

Bada beste zerbait. Kolpeak dira nire barnean. Sabelean, berriz ere. Hau bai ezinegona. Oihuak senti ditzaket burua lehertu eta arima urratzen zaidan bitartean. Ni naiz, laguntza eske. Eta sabelean, tratu txarrak jasaten dituzten emakume guztiak oihuka, munduak ezikusiarrena egiten duen bitartean.

Botaka egin dut, berriz ere.



Arlene Rementeria Akordagoitia.

BATX. 2. maila

“Oroitzapenetatik disfrutatzea bi aldiz pozik bizitzea da”

OROITZAPENAK

Goizero legez iratzargailua gorroto guztiz itzali dut. Jarraian ohetik jaikitzeke hainbat ahalegin egin ditut; geure buruan omen dauden deabruaren eta aingeruaren arteko elkarrizketa burutzen zegoelarik:

- *Jaikitzeke garaia da, lanera joan beharra duzu!*
- *Minutu bat gehiago besterik ez ...*

Jaiki bezain pronto gosaltzera abiatu eta ohartu gabe katilukada bat esne zerealekin jaten nengoela paretari begira-begira geratu natzaio. Hipnotizatuta. Loak hipnotizatuta. Halako batean, begiak antxintxika kliskatuz hipnosi hartatik irten eta bizitzara bueltatu naiz. Arrapaladan lanerako prestatu ostean, ordubeteko auto bidaiari ekin diot. Ordubete luzea, laneko egun gogaitsuaren aurretik egin beharrekoa.

Ordubeteko bidaia hau, hasiera batean luze eta aspergarria dirudiena, ez da horrelakoa izaten. Autoan esertzearekin batera, oroitzapenak etortzen zaizkit burura. Lanera iritsi baino lehen jada hamaika bizipen errepasatzen ditut neure buruan. Ordubete baino ez dut behar izaten atzera salto egiteko eta txikia nintzeneko poztasuna sentitzeko. Poztasun horri esker, haur bat nintzenean, txikia izan arren handi sentitzen nintzen. Adibidez hona hemen gaurko oroitzapenetariko bat: larunbata zen, lehengusinarekin urtebetetzea zen eta haren desioa denok pirataz jantzita joatea izan zen. Beraz, amak jositako pirata mozorroa jantzi eta haren urtebetetzea ospatzera joan ginen. Pirata mozorroarekin ausart eta indartsu sentitzen ginen denok. Lehengusu-lehengusinarekin artean ezpata jokoetara jolastu ginen, baita paperezko itsasontzien lasterketa egin ere, a zelako algarak!

Oroitzapen honek aurpegian irribarre gozo bat irudikatu dit. Amak loak hartzerakoan laztantzen zidanean sentitzen nuen gozotasunaren bezain gozoa. Baina, irribarre hori ez da oraingoa. Pirata mozorroarekin sentitutako indarra ez da orain bizitzeko dudanaren bezalakoa. Eta, egun hartan pirataz mozorrotu nintzen moduan, orain, eguneroko ordubeteko bidaian oroitzapenek mozorrotzen naute ni. Autoan sartzen naizeneko goibeltasuna irribarrez mozorrotzen da iraganerako jauzia egiten dudanean. Agian, Celia Cruz abeslariak arrazoi osoa dauka bizitza inauteriak direla esaten duenean. Baina arrazoi hori ez da pozteko modukoa baizik hausnarketa sakon bat egitekoa baino.

Sinesgaitza da bizitzaren gorabehera. Haurtzaroan, txikiak izanagatik, handi sentitzen nintzen pozaren pozez. Pirataz janztean, munduko pertsonarik ausartena eta indartsuena sentitu nintzen bezala. Aldiz, nagusitzen nindoan heinean, handia naizen arren ez dut poztasun jariorik. Oroitzapenak baino ez zaizkit geratzen. Momentu liluragarriak birbizi eta irribarre gozoa sentitzearekin ados nagoela esan liteke. Ume alaia izan nintzela gogoratzearekin konforme nagoela dirudi.

Beharbada, ez naiz mozorro hori kentzeko gai. Poztasun ezaren beldur naiz eta mozorro honek nire babesa suposatzen du, irribarre gozo baten transmititzen dena. Hain nago babes horri lotuta ez naizela oraina ikusteko eta bizitzeko gai. Ez diot ihes egiten utzi nahi poztasun horri. Badakit erraza dirudiela ihes egiten uztea. Mozorroa kenduko banu, oroitzapenen irribarre samur eta maitekor hura ez litzateke berriz nire aurpegian marraztuko. Baina, ez badiot alde egiten uzten sentitzen dudana poza ez da inoiz oraingoa izango, umetako poza baizik. Eta nik poztasuna dut maite. Momentuko poztasuna.

Oroitzapen eta poztasun honen arteko hizka-mizka alde batera utzirik, laneko egun goibelari ekin behar diot. Aurpegiko irribarre gozoa baztertu eta mozorro horri uko egingez, poztasun horretatik urruntzen noa autoa aparkatu eta laneko atera heltzen noan heinean. Umetan jaietan gurasoek erosten zidaten heliozko puxika erraldoia eskuetatik ihes egin eta zerurantz aldentzen ikusten nuenean, puxika batek baino zerbait gehiagok alde egingo balit bezala sentitzen nintzen. Oraintxe bezala. Oraintxe autoa utzi eta urruntzen noan heinean, autoa baino zerbait gehiago uzten dudala sentitzen dut: bizi poza. Eta, puxika hura hain urrun zegoenean non desagertzen zen bezala, lanerako atea gurutzatzearekin batera autoan sentiarazitako gozotasun eta alaitasuna desagertu zaizkit. Momentu honetan ez dut mozorrorik, ez. Ez dut poztasun hori ahalbidetzen didan oroitzapenik, ezta ume alaia izan nintzela gogoratzean aurpegian marrazten zaidan irribarre gozorik.

Laneko egun goibela bukatu ostean berriz naiz hemen, autoan. Nire gotorlekuan. Oroitzapenen eta irribarre gozoen artean. Poztasunaren mozorroa janzteko prest. Goibeltasun honetatik alde egiteko nahian. Badakit auto bidai honetako poztasuna ez dela oraingoa. Baina zer egin dezaket oroitzapen hauek sortutako mozorroa bada gaurko irribarre gozo bakarra?

Oroitzapenetan murgildurik geratu naizen heldu bat baino ez naiz. Hauei uko egiteko beldur estuki lotuta geratu naiz. Haurtzaroko zein gazte denboran bizi izandako momentuek elikatzen naute orain. Begiak estalita izango banitu bezala neure buruan dagoena baino ez dut behar aurpegian barretxo gozoa izateko.



Leire Gordo Badiola
BATX 2. maila

*“Zer litzateke bizitza gauza berriak egiteko
ausardia izango ez bagenu?”*

HUTSUNEA

Ondo baino hobeto gogoratzen dut sentrazio hura, sabelean tximeletak banitu bezala. Urtero errepikatzen zen Gabon parterantz nire aitonaarekin San Pedro mendia igotzen nuenean, bertako baselizaren teilatuan Olentzeroren gutuna uzteko. Banekien egun berezi baten hasierako erritua baino ez zela eta emozio sentimendu hori bizi nahi dudanean edota neure buruarekin lasai sentitu beharra dudanean berriro bueltatzen naiz. Gaur horrelako eguna da, baina ez dakit zein izango den amaiera.

Mendiaren hasieran aurkitzen naiz, bakar-bakarrik eta inurri sentitzen naiz nire munduan bezala, ezereza. Lehen pausuari bigarrenak jarraitzen dio, hirugarrenak, laugarrenak eta horrela, automata baten legez, hilkutxa baten atzean doan ume baten legez gorantz egiten dut. Azkenean hartu dut erabakia. Igotzen hasi bezain laster, bide estuak besarkatu egiten nau, eta momentu horretan, besarkadek duten garrantzia datorrit burura. Besarkada bat baino ez eta mila sentimendu. Beste pertsona batekin kontaktuan egoteak dakarren poztasuna eta hain gutxitan praktikatzen duguna. Aldats goran nire pausuak motelagoak dira eta bihotza azkarrago doa bularretik ihes egin nahi izango balu bezala. Urduri nago. Basoan entzuten diren kilkerrek nire urduritasuna areagotzen dute. Dantza egiteko orduan, eszenatokira atera baino lehen dudan sentrazio bera da. “Bai, mutilok ere dantza egin dezakegu” pentsatzen dut estereotipoz blai dagoen mundu puta honetako edozein inozok entzun ez nizan.

Berdea da nagusi, esperantzaren kolorea baina egia esan esperantzak ez du lekurik nire baitan jada. Aspaldi joan zen esperantza amets mingotsen erreinura . Nola bizi daiteke itxaropenaren hazia hain krudela den munduan? Zelan egin dezaket aurrera egunerokotasunean bizi behar ditudan egoerek zaunka egiten didatenean?

Aldatsa bukatzen ari da, eta horrekin batera amaiera dator. Bai, amaiera gordina izango da nirea ere, agian jendeari zer pentsa emango diona. Azken malda igo eta ermitarekin egiten dut topo, nire zain dagoela dirudi eta ongi etorri goxo-goxoa ematen dit txikia nintzenean bezala; azken bolada honetan hain faltan botatzen dudan ongietorri eta maitasuna. Behealdean, Urdaibaiko padurak marrazki magiko baten antza du, harearen kolore marroiak eta uraren turkesak topo egiten dute dantza amaigabean. Padura inguratzen duten urruneko mendi berdeek zeruarekin hitz egiten dute.

Ermitaren aurrealdean jesartzen naiz naturaren miraria den paisaia hura begiratzen. Edertasunak hunkitu egiten nau pentsamenduek burrunba itzela ateratzen dute nire buruan. Iraganak ateak zabaltzen dizkit eta sartzeko gonbitea egiten dit...

.....

2007ko urtarrilaren 17a da eta sei urte bete ditut gaur. Nire aitona etxean agertu da eta harro-harro pakete bat luzatu dit. Aittitteren opariak beti dira bereziak eta papera guztiz apurtu orduko Athletic-eko futbol ekipazioa dela ikusi dut. “Iker, ea egunen batean San Mamesen jolasten duen jokalaria profesionala bilakatzen zaren. Han egongo da zure aitona”. Nire bihotzean ziztada bat sentitu dut. Sei urte baino ez eta dagoeneko badakit zer den ariman min sentitzea. “Hori ba! Ea futbolari famatua egiten zaren eta ama eta aita lanetik jubilatzen dituzun” dio aitak. Barre algarak. Jai giroa. Nire begiak lainoz eta euriz gainezka daude baina ez dakit zer esan behar dudan. Ez dut ezer ulertzen eta oso txikia izan arren badakit “zerbait” ez dagoela ondo eta “zerbait” horrek sarri zapuztuko duela nire bizitza. Badirudi aurpegi arraroa jarri dudala eta aitonak zer gertatzen zaidan galdetu didanean “Aitona, nik dantzaria izan nahi dut” erantzun diot. Barre algarak. Jai giroa. Nire begietan ekaitza egiten da jaun eta jabe logelako bidea hartzen dudanean korrikan. Amaren begirada ulerkorra sentitzen dut nire lepora josita. Ohean etzanda neure buruari galdetzen diot zer den hain barregarria. Akaso nagusiek txiste modukoren bat kontatu dute eta ez dut ulertu. Sarri egiten dituzte holakoak nagusiek. Lo geratzen naiz eta bukatzen da eguna. Bai, hor geratzen da dena.

Zortzi urte ditut eta etxera heldu naiz beste entrenamendu amaigabe eta nazkagarri batetik. Afaltzen gaudela nire gurasoei so egin eta bihotza askatu dut “Futbola utzi eta dantzan egin nahi dut”. Isiltasuna eta aitaren begirada zorrotza. Elkarriketak lehengo haritik jarraitzen du eta esnea amaitzen dudanean nire logelara sartu naizenaren plantak egiten ditut baina eskaileretako goiko partean geratzen naiz nire gurasoen berbak entzuteko. Ahopeka egiten dute berba. Aitak: “Baina ezagutzen al duzu beren adineko beste inor dantzan egiten duenik?” “Zuk badakizu zelako infernua pasatu beharko duen?” Eta amak : “Txikitatik agertu du horretarako grina. Zer egingo dugu ba? Ez duzu uste infernuan egoteko era asko daudela, gizona?” Luzaroan jarraitzen dute hitz egiten baina nik ez dut aditzen. Infernu hitza aipatu dute eta ez dakit arrazoa. Lo geratzen naiz eta gau horretan sutan kiskaltzen da nire ohea. Handik eta aste betera futbola utzi eta ballet klaseak hartzen hasten naiz.

Hamahiru urte bete ditut eta dantza egiten jarraitzen dut benetan zoriontsu egiten nauen gauza bakarra baita. Dantzan nagoenean, arazo guztiak alde batera utzi eta zeharo ahazten ditut. Zeru amaigabea askatasun osoz eta inongo trabarik gabe bizi den txoria sentitzen naiz. Lurrera bueltatzen naizenean, aldiz, errealitateak zaplazteko itzelak ematen dizkit. Nire adineko mutilek ez dute ulertzen dantzarekiko dudak pasioa eta beraien zirrikak nire bizitzaren parte bihurtu dira. Goizero izartu eta ikastolara joateko beldur naiz, “Ea gaurkoan zer tokatzen den” pentsatzen dut. Jolastordua heldu eta “marikoi” esaten didate barre algara artean, eta hori gutxi ez balitz ukabilkada bat edo beste ere jasan behar izaten dut. Txikitan sentitzen nuen “zerbait” hori behin eta berriz agertzen da baina gero eta ezagunagoa egiten zait , gero eta lagunagoa sentitzen dut. Etxera bueltatzen naizenean gurasoen begirada arduratsua igartzen dut. Askotan pentsatu dut nire amari ditudan arazoak kontatzea, baina zertarako? Lo geratzen naiz eta egunak argitzen du.

Hamazortzi urte egingo ditut laster eta irailean Unibertsitatean hastera noa jada. Askok institutu garaia zoragarritzat gogoratuko duten arren, nik infernutzat dut. Orain arazoa ni neu naiz. Dantzan egiten jarraitzen dut, ez dut inoiz utziko, argi daukat. Alde horretatik dena dago ondo, baina badut barruan harra moduko bat gauzeekin disfrutatzen uzten ez nauena eta buruari mila buelta ematen dizkiot. Urteak betetzen joan ahala normala ei da norbere buruari galderak egitea eta hori da niri gertatzen ari zaidana. Zergatik izan ote dut harreman hobea txikitatik neskekin mutilekin baino? Zergatik sentitzen naiz eroso haien elkarriketetan eta mutilen artean atzerritar hizkuntza baten aurrean bezalaxe sentitzen? Zergatik naiz nire sentimenduen beldur? Txarra al da nik sentitzen dudana sentitzea? Eta txarra ez bada... Zergatik ezkutatzen dut ? Milaka duda-muda izan ditut nire buruarekin azken urteotan, baina orain ez dut ulertzen zergatik, azkenean bakoitzaren burua hobeen ezagutzen duena norbera da eta.

Gau asko igaro ditut pentsamendu eta galdera artean eta bat-batean, egun batean, orain dela bi hilabete erantzuna heldu zen niganaino. Maitemindu egin naiz, tira, maitemindu baino gehiago mutil batenganako erakarpen sentimendu izugarria sentitu dut eta guztiz nahastuta nago. Ezin dut ulertu nola den posiblea barruak jaten nauen sentimendu honen diana mutil bat izatea nire bizitzan gizonezkoek hain presentzia gutxi izan dutenean. Baina ez dago zalantzarik. Bihotzak danbor baten legeztotzen du nire bularra, bere albotik pasatzen naizen bakoitzean. Jasanezina egiten zait hura ikusi barik egun bat igarotzea eta ikusten dudana bakoitzean lotsa sentitzen dut eta ezin dut onartu gauzak honela direnik. Batzuetan desagertzea iruditzen zait irteerarik errazena, beste batzuetan aldiz koldar zikin baten moduan sentitzen naiz horrela pentsatzearren. Nola esango diet nire gurasoei nor den euren semea? Amak zer edo zer badakielakoaren susmoa dut baina aitak... Zer sentituko du nire aitak? Berdinak izango ote dira gure besarkadak? Zer pentsatuko zuen aitonak nitaz? Mila galdera, mila zalantza, beldur nazkagarria...

.....

Haize bolada batek nire ilea astintzen du eta oroitzapenetatik ateratzen nau. Urrutirantz begiratu eta itsaso erraldoiaren aurrean arkakusoa sentitzen naiz. Nire eskuturraren barrualdeko tatuajea ukitu dut; aitonaren omenez egin nuen olatu txikia da. Eta iruditxoak igurtzen dudana bitartean aitona marinelaren hitzak gogoratzen ditut: “Hamabost urterekin joan nintzen ni Terranobara txo moduen barku baten. Egurrezko maleta baten sartu zizkidana amak hiruzpalau arropa eta han joan nintzen mundua konkistatzera! Hotz izugarria egiten zuen. Oso ondo gogoratzen dut. Goizaldeko bostetan altxatzen ninduten eta orduak eta orduak ematen nituen bakailaoak garbitzen itsasontziaren kubiartan. Tripulazioko gazteena nintzen eta bakardadea zer zen ikasi nuen. Horrela zen bizitza sasoi hartan. Oso gogorra Iker. Baina ez da deus gertatzen. Aurrera egin genuen eta horrela egin behar da beti, aurrerantz. Ez ahaztu inoiz...”

“Zerbait” berria jaiotzen ari da nire barruan. Sabela bero sentitzen dut, bularra indartsu. Badirudi antzinako amets batetik esnatzen nagoela eta ondo nago. Nire begietan ez dago trumoirik nire arimaren ekaitza baretzen ari delako eta eguzkiaren izpiak nonahi agertzen dira. Hutsunea betetzen ari da.

Bueltatuko naiz eta bizitzari adarretatik oratuko diot. Horrela egin behar da beti, aurrerantz.



Ibai Zobaran Díez
BATX 2. maila
“Hil orduko bizi”

BIZITZAREN OINARRIA

PAPEREAN IDATZIA

Horrela esan zion

Egiak gezurrari

Bizitza zu zara

Heriotza neuri dagokit

Bata gezurrezko egia zen

Bestea egiazko errealitate gordina.

Batak bai, besteak ez,

Orain dena inoiz ez zen

Baina izango da

Egia ta gezurra bezala

Askatasun haizea da kresala
Olatuek bizitza ekartzen dutenean.

Segi aurrera bidean,
Askatasunaren haizean
Ametsekin jolasean
Gezurra saihestu nahian
Maitasuna delakoan
Oinarri bizitzerakoan.

Orain ez etxe
Ez maitasun
Are gutxiago askatasun
Besteen menpe
Gezuraren arduradun
Egiaren jakitun.

Baina zurekin beti bidean
Ez ezazu ahaztu lagun
Besoa eskaini zenidan eta
Segituan hartu nun,
Behin lotu ginen eta
Ez dago nork askatuko gaitun.

Atzera begiratu

Agian aurrera

Ez saihestu

Bizitzaren nekea

Besteena ez aipatu

Egin ezazu zeurea.

Bizitza eta heriotza

Biak bat askatasunean

Beroa eta hotza

Biak bat maitasunean

Amorrua eta poza

Biak bat ametsen munduan.



Lierni Gregorio Zabala
BATX. 2. maila

“Bizitzari soinu-banda jartzea komeni da”.

ZERUMUGA

Kartulina urdina aukeratu dut, kolore hori baita bere gustukoena, eta halaxe dauzka begiak ere. Eskolakideek artazi, gometsa eta kolore guztietako errotulkiekin dekoratu eta koro itxura eman diote. Klasea amaitzeko hamar minutu besterik falta ez direnean, hogeitahortasek Zorionak zuri abesteari ekin diote. Lore eta Ekain hurbildu zaizkit eta neure masailek marrubi antza hartzen duten bitartean, koroa buru gainean jarri didate. “Zorionak Ane!”

Txirrinak jo bezain laster, koaderno eta liburu guztiak ziztu bizian batu, bizkar-zorroan gorde eta korrika batean abiatu naiz irteerarantz. “Bertan itxaroten egongo al da jada?”. Eskolako atetik irten eta burua batetik bestera mugitzen hasi naiz. “Non ote dago?”. Masailetak goritasuna lausotzen hasi eta buruan daramadan kartulinaren kolore berdineko begiekin topo egin bezain laster, bere besoetara salto egin dut. “Amona!”

Arrosa- lurrin usaineko besarkada goxo horretatik askatu eta poltsara eraman du eskua. Bertatik ogi kurruskoa atera eta etxerako bideari ekin diogu, betiko legez, bata bestearen eskutik helduta.

Kontu-kontari, azkenean iritsi gara. Atea zeharkatzeko pauso bakar bat eman eta kanela usaina iritsi da nire sudurzuloetara. Hats hartu dut neure indar guztiekin, etxe osoa inbaditzen duen kanela perfume guztia neureganatu nahi banu bezala.

- Ezetz asmatu zer prestat...
- ARROZ- ESNEA! - oihukatu dut lau haizeetara.
- Bai abila geure neskati! Zeure postre gustukoena prestatu dut, hamar urte behin baino ez dira betetzen eta! - erantzun du amonak barre-algaraka.

Kaleko arropak erantzi eta pijama erdi jantzia dudala, Kaxianoren ahotsa aditu dut, eta handik segundo gutxira, amonarena. Arrapaladan beste hanka jantzi, zapatilak hartu eta korrikan abiatu naiz eskatzera. Bertan aurkitu dut amona, itsasontzi batean nora ez dakiela bidaiatzen. Begirada konplize bat bota elkarri eta dantzatzeari ekin diogu, baina ez edonola: neure oin txikiak amonaren oinen gainean jarri, gogor gerritik heldu eta biraka hasi gara sukalde osoan zehar, Kaxianorekin batera, Euskal-Herritik kanpora.

Halaxe igaro da eguna. Bazkalostean izeba-osabak etorri dira lehengusu-lehengusinekin batera opariak ekartzera. Azkenean lortu dut hainbeste desiratzen nuen auto telegidatua!

Arratsaldean iritsi dira gurasoak beharretik, berriro ere, opariz leporaino: prakak, kamisetak, soinekoak, sukaldatzeko kit-a, futboleko baloia... Egundokoa da hamar urte betetzea, aizu!

Oheratu eta eguneko errepassoa egiten ari naizela, amona sartu da gabon-musua ematera.

- Jan dezaket beste arroz-esne bat?
- Ez laztana, oso berandu da.
- Kontatuko zure ipuinetako bat?

Azken honi ez dio ezetzik esan. Neure alboan lekutxo bat egin eta ipuin-kontalari bihurtu da.

Itsasoaren hotsa entzuten dut, olatuen joan-etorria. Begiak astun. Egurrezko belaontzi bat nabigatzen ikusten dut urrunean, zeruertza zeharkatzen. Begiak ixteko imintzioka. Pirata baten oihuak entzun ditudala iruditzen zait, pixkanaka-pixkanaka leuntzen ari direnak. Itxi ditut begiak.

Txirrin hots batekin hasi da hamalagarren urtebetetzea. Gurasoak lanean daudela gogoratu eta ziztu bizian jaiki nahiz ohetik. Ilea pixka bat atondu eta atea ireki dut: “Ez, berriro ez”.

Azken bolada honetan sarritan gertatu den bezala, auzokoa agertu da ate parean. Baina gaurkoan bakarrik dago, ez amonarekin. Igaro diren lau urte hauek ez dira onenak izan amonarentzat. Dena hasi zen estropezu tentel batzuekin. “Noiz kenduko dituzue etxeko alfonbra ziztrin hauek?” madarikatzen gintuen amonak jausten zen bakoitzean. Laguntza pixka batez zutitzen lagundu, eta kito.

Alabaina, egoera larritzen hasi zen. Hasierako behaztopa inuzenteak istripu larri bihurtzen hasi ziren eta etengabeko madarikazioak marmar ulertezin.

Hemen ezagutzen dugu Joxe. Egun batean kalean botata topatu zintuela esanez gurean agertu zen auzokoa, eta geroztik, behin baino gehiagotan jo du etxeko txirrina, arazo berbera dela eta; “Ez nuen Joxe delako horren laguntzarik behar” zenioen behin eta berriro. “Gai naiz neu bakarrik lurretik altxatzeko”. Ondo dakigu denok ezetz.

Baina oraingoan, ohikotasunetik ihesi, Joxe bera bakarrik agertu da etxeko atean.

- Zer da ba, Joxe? Non da amona?
- Horregatik nago hemen. Non dira gurasoak?
- Lanean. Esadazu zer gertatzen den, faborez.

Anbulantzia eta amona esaldi berean aditu ondoren, Joxeri milagarren biderrez eskerrak eman, arin batean telefonoa hartu eta aitari deitu diot. Erantzunik ez. Amari deitu diot. Erantzunik ez.

Zer egin ez dakidala, sofan eseri naiz. Gorputzeko atal guztiak izoztuta daude, lepotik irristaka ari diren izerdi tanten antzera. Isiltasun gorgarri honetan soilik hortzen dardarak entzuten ditut, hotzak eraginak. Hotzak baino, beldurak.

Ia-ia azazkal gabe geratzeko nagoela, aitak deitu du, lasai egoteko esanez. Ama jada ospitalean dagoela eta oraintxe datorrela neure bila, biok bertara joateko.

Izerditan blai nagoela ohartu eta dutxan sartu naiz. Gustuko dut uraren jarioa entzutea. Baina are gehiago lasaitzen nau ur beroak, hotzak hozmindutako gorputza nola biziberritzen duen sentitzeak.

Iritsi gara ospitalera. Aita sartu da gelara, kanpoan itxaroteko esan dit. Ate ondoko eserlekuetan nagoela, ama entzun dut oihuka: “Nola ez dakizuela zer daukan? Ez al zarete ba, medikuak?”. Badakit negarrez ari dela, gauero lege. Milaka ospitale eta kontsulta zeharkatu ostean, eta milaka mediku eta sendagileren ahoetatik hitz berdinak entzutean: “Ez, ez dakigu zer duen eta momentuz, ez dauka sendabiderik”, ama amore emateko zorian dago, eman ez badu jada. Nola sendatu oraindik ia existitzen ez den gaitz bat? Nola aurrera egin inoren laguntzarik gabe? Nola zaindu ama inoiz sendatuko ez dela dakizunean? Halakoxea da amaren eguneroko borroka, eta baita etxekoena ere.

Kandela batekin konparatzen du amak amona Eburne, behinugarra piztuta ez da atzera bueltarik. Hasieran, indartsu eta kementsu, aurrean aurkitzen duen argizari guztia paretik kenduz. Amaieran, ahul eta unaturik, geratzen den argizari pittina errauts bihurtzeko gorputzeko zirrikitu txikienetik ere indarrak ateratzen saiatuz. Eta azkenean, eginbeharreko guztiak egin ondoren, jaio den bezala desagertuko daugarra.

Alboan dudan ateak irekitzean egin duen kirrinkak izartu nau, ama eta aita irten dira gelatik, eta dakarten aurpegiera ikusita, ez ditut berri onak espero.

Senak ez dit ba kalerik egin. Amak negarrari eman eta aita azaldu behar izan dit dena: amonak aldaka apurtu du eta bihar bertan egingo diote ebakuntza. Bere osasun-egoera ikusita, ebakuntza oso gogorra izango dela aurreikusi dute. Gurasoak besarkatu ditut.

Aita eta biok etxera itzuli gara. Isil-isilik arropak erantzi, hortzak garbitu eta ohera sartu gara. Gaur ez da gabon-musurik egongo.

Ebakuntza espero zen bezala irten zen. Pare bat egun ospitalean igaro eta etxera itzuli zen amona. Geroztik, bizitza odisea bilakatu zen. Azkenean gaixotasun ezezagunak geure gogoz kontra eboluzionatu eta amonak zeukan independentzia guztia galdu zuen. Ezin ibili ezta gorputzeko atal bat bera ere ez mugitu, begiak izan ezik, urdin koloreko itsasoaren islada ziren begiek irmo ziharduten oraindik. Mintzamina ere desagertu zen, lehen ziren hitzak, jakiak irensteko zailtasunak sorrarazitako eztul larderiazko bihurtu ziren. Egoera jasangaitz bilakatu eta, erremediorik ezean, amona adinekoen egoitza batera eramatea erabaki zen.

“Ez, ez, nik zain dezaket” zioen alabak, bere bizitza alde batera uzteko prest, norbera nor zen ahazteko prest.

Lasaitu txiki bat izan zen adinekoen egoitza amonarentzat, eta baita familiakoontzat ere. Amonaren beharrian guztiak, holan edo halan asetuta zeudela ikusita, etxeko giroa ere ondu zen. Ia amona hobetuko zela sinetsiak geunden baina, gauren batean edo bestean aldameneko logelatik zetozen amaren lantuek errealitatera bueltatzen ninduten.

Sugarrak piztuta dirau, baina noiz arte?

Urdin argi koloreko hormek beti sorrarazi didate ondoeza, egon ezina. Badakit urdin kolorea asko gustuko duzula, baina onartu beharra dago horma-pintura gisa ez duela balio. Hotza dakarkidate gogora, tristura, haize hotz putz batek bizkarra lastantzean kausatzen duen hotzikararen pareko sentsazioa, ez hamasei urte bete berri dituen emakume batek sentitu beharko lukeena.

Horma liso horren erdialdean bada leiho bat, bertara begiratzen dut noizean behin. Zuhaitz hostotsuek ikuspegi guztia estaltzen duten arren, noizbehinka eguzki-izpi ahulek leihoa zeharkatzea lortu eta zeu estaltzen zaituzten izara zurietan pausatzen dira. Aita, ama eta hirurok gaude gelan, eguzki izpiekin batera, elkarri berotasun pixka bat ematen. Aldizka erizainen bat sartzen da, begirada labur bat bota, zeuri pultsua hartu, eta berriz ere uzten dute gela. Telebista ere badaukagu piztuta, gelan nagusi den isiltasuna uxatzeko edo.

Behin edo behin, geure begiradek elkarrekin egiten dute topo, kanela koloreko begiek, lehen zeukaten bizitasuna galdu duten urdin koloreko begiekin, eta estuago heltzen dizut eskutik.

Telebistaren zurrumurruen gainetik zure arnasa entzuten da, motela eta sakona.

Begirada aurrean duzun hormara zuzendu duzula ohartu naiz. Begietara begiratu eta irmo daudela ikusi dut, itsasoak eta zeruak mugatzen duten zeruertzero begira egongo balira bezala. Orduan, egurrezko belaontzia nabigatzen ikusi duzula imajinatu dut, itsaso urdina zeharkatzen. Eguzkiaren azken sugar ahulek egunari amaiera ematen dioten bitartean, pirata baten oihu ozenak entzuten dituzula. Eta neure indar guztiarekin heldu dizut eskutik.

Itxi dituzu begiak.



Irantzu Idoiaga Zelaia

BATX. 2. maila

"Egin irri, barrea baita arimaren soinua"

BAKARDADEA

Trena berandu zetorren; zehatz-mehatz 3 minutu. Oso arraroa zen, trena beti baitator ordurako. Nahiz eta uda izan, euria ari zuen, eta ni, tren geltokian busti-bustita nengoen. Ez zitzaidan gehiegi axola, gaueko oroitzapenek irribarrea eraginarazten baitzidaten. Ez nintzen logura, eta ez zen ohikoa, gau guztia eman bainuen parrandan. Jaiak ziren, eta kontzertu ikaragarriak etorri zitzaizkidan gogora. Giro oso gozoa egon zen tabernetan gau guztian zehar. Baina berriz ere, hor nengoen ni, trenbidearen alboan, momentu horiek guztiak gogoratzuz.

Goizeko 8ak ziren. Berandu helduko nintzen etxera; oso berandu. Beno, edo oso goiz, ikuspuntuaren arabera, jada eguzkia ateratzen baitzegoen. Momentu horretan, ez zitzaidan gehiegi axola. Azkenean, trena iritsi zen; Oier esnatu eta barrura sartu ginen. Nekatuta nengoen; bai, baina ezin lorik egin. Oier bestalde, bidaia hasi eta 5 minutura berriz ere lo gelditu zen. Beste ordu eta erdi zituen lo egiteko gure geralekura iritsi aurretik.

Bi geltoki igaro ondoren, agure bat nire aurreko eserlekuan jarri zen. Jakin-minez begiratu zidan eta irribarre egin zuen. Jarraian, hizketan hasi zitzaidan. Ez nuenez beste zereginik, neu ere berbetan hasi nintzen. Oso pertsona atsegina zen. Konfiantza osoz kontatzen zizkidan bere istoriotxoak. Eta nik adi-adi entzuten nituen, oso interesgarriak baitziren. Bakarrik zegoela kontatu zidan, seme-alabak eta ilobak oporretan zeudela Kanariar uharteetan, eta bera bakarrik gelditu zela etxean. Ez zituela asko ikusten aitortu zidan, beste herri batean bizi zirelako.

Tristura nabaritu nion begiradan, bakardadea, nahiz eta aurpegian irribarre bat izan. Bere emaztea nolakoa zen azaldu zidan, baita faltan botatzen zuela ere. Denbora luzez bera aritu zenez hizketan, nire bizitzari buruz galdetu zidan. Neuk, neure familia eta ikasketei buruz hitz egin nion; oso pozik nengoela, nahiz eta ikaslearen bizitza gogorra izan. Sekretuak ere elkartrukatu genituen, inoiz argira aterako ez zirenaren ziurtasuna izanez.

Bat-batean, barre egin zuen eta begira gelditu zitzaidan. Ez zuen ezer esan hurrengo minutuan. Ondoren, barre egiteari utzi gabe, gaztea zeneko garai hartaz gogorazten niola aitortu zidan. Ez nion esan gaupasa egitetik nentorrela, baina berak, nola edo hala, bazekien. Bihotz-bihotzetik esan zidan: "Orain gaztea zarela aprobetxatu denbora, egin zorakeriak, eta ez egin kasurik gurasoei. Jai guztietara joan, disfrutatu, jende berria ezagutu, eta ez arduratu gehiegi etorkizunagatik; dena dela etorri egingo da, eta beraz zentzugabekeria da kezkatzea. Gastatu dirua, erosi nahi duzun guztia, baina batez ere, sortu oroitzapenak, horiek baitira ni bezalako zaharra zarenean bizirik mantentzen zaituztenak".

Isiltasunean eman genituen hurrengo bost minutuak; baina isiltasun gozo batean, isiltasun erosoan. Trenean ezagutu berri nuen aguretxo hark esandakoan pentsatu nuen. Poztu egin nintzen. Berbetan jarraitu genuen, bere geltokira iritsi ginen arte. Askoz ere euri gehiago zen, baina aterkia zeukan. Altxatu, eta aterkia eman zidan, nik berak baino gehiago beharko nuela esanez. Ezezko keinua egin nion, baina aterkia eskuetan jarriz, aterantz abiatu zen, astiro-astiro. Eguna poztu niola esan zidan, ez zuela norekin hitz egin eta jendeak gehienetan hizketan hasten zenean ez ziola jaramonik egiten. Bere hitzek hunkitu egin ninduten. Azken agur bat esan eta joan egin zen, bere txapel beltza buruan jarriz. Leihotik agurtu nuen, trena martxan jarri eta bistatik galdu nuen arte.

Ordu erdi falta zen oraindik, eta lo egiten saiatu nintzen arren, ez nuen lortu. Ezin izan nuen irribarrea aurpegitik kendu, gizontxo hartan pentsatuz. Bitxia zen, nola jakin nezakeen agure hark indabak bazkalduko zituela, baina ez nekien ezta bere izena.

Azkenean, loetan iritsi nintzen etxera, leher eginda; baina ez bustita. Oier ez zen konturatu agurea gurekin eserita zegoenik ere.

Oraindik, aterkia erabiltzen dut, eta trenean berba egiteko norbaiten bila zebilen agure hartaz gogoratzen naiz. Harrigarria da, nola elkarrizketa bat izatearekin norbaiten eguna alai dezakezun, eta nola bakarrik sentitzeak tren batean elkarrizketa bilatzera bultzatzen dezakeen pertsona bat. Ez dakit non egongo den, baina alaiarazi egiten nau pentsatzeak oraindik trenean bidaiatzen duela, ezezagunekin bere sekretu ezkutuenak partekatuz. Pozik nago gizon hura ezagutu izanaz.



Markel Goitia Pertika
BATX 2. maila

ERRUTINA

Bertsoak eta poemak ez zaizkit gustatzen
baina lan hau egitera naute derrigortzen
orduak igaro beharko ditut idazten
zer ondo egongo nintzateke ni jolasten.

Sarritako goiz jaikiak ez zaizkit gustatzen
trenerako bidean begiak irekitzen
Gernikako herria ikustean goibeltzen.
institutua ta ikasketak gorrotatzen.

Testu iruzkinak asko ez zaizkit gustatzen
buruketak ebaztea zaila iruditzen
ordu bietako klasean goseak hiltzen
azkenean autobusa beti itxaroten.

Lekak eta espinakak ez zaizkit gustatzen
kaneloiak eta hanburgesak desiratzen
kokakola tragoak zamatik bera jaisten
siesta botatzeko gogo oso handia eusten.

Arrastiko ikaslanak ez zaizkit gustatzen
umeak kalean jolasten zarata sortzen
etxeko ordenagailua ez da martxan jartzen
liburutegira joan beharra ikasten.

Teleko programa txarrak ez zaizkit gustatzen
gaueko entsaladak ez nau ezer betetzen
zapatuko kalimotxoa faltan botatzen
jadanik gaueko oheaz nik bai gozatzen!

MAITEA

Faltan botatzen zaitut
nire laztan txikia
eguna gau bihurtuz
- bihotza minduta dut.

Zure irribarrea
nire poztasuna da,
zure ile horia
nire eguzkia da.

Zu ikusteko gogoz
nabil egun osoan,
baina itxarotea
eskatzen nau buruak.

Ez zaitut ito gura
Neugan itsaso zabal,
bare eta baketsu
duzu betiko leku.

Zuregana hurbiltzen
nire bizitza pizten
orduan ni betiko,
zurekin ni bizitzen.

Nire kuttuna zara
Oh! Bai, hau, zoriona!
Nigandik ez urrundu,
orduan bai hilgura.

DESIRAK

Azkarragoa izatea nahiko nuke,
nota onak ateratzeko.
Arinagoa izatea nahiko nuke,
berandu inoiz ez heltzeko.
Isilagoa izatea nahiko nuke,
besteon esanak hobeto entzuteko.
Ausartagoa izatea nahiko nuke,
irainei aurre egiteko.

NIRE HERRIA

Nire herria, hain txikia
eta bertan bizi da piztia
Atsoak beti kuxkuxean,
umeak jolasean
eta helduak berriz lanean.
Nire herria, hain zaharra
ez dakite denbora aurrera doala
guztiok aske garela
eta erdi-aroa bukatu zela.

ITSASOA

Itsasoa beti gu zaintzen
bitartean gu, zu kutsatzen.
Horrela jarraituko dugu bizitzen?
Urteetan nire familiaren etxea
gaur egun zaborrez betea.
Zure arrainak erdi gaixorik
eta inori ez axolarik.
Urtero handitzen zoaz
lurra desagertuko delarik.
Haserre ahal zaude gurekin?
Lurra urez josiko duzu gainetik?



Olatz Robles Irigoien
BATX 2. maila

*“Artea dugu bizitzaren oinarri, bizitzaren motor.
Goza dezagun”*

ISPILU FIDELENA

Arteari buruz galdezka dabiltza.

Mila erantzun dituelarik ere, erantzun eza dut ahoan. Idaztea, marraztea, abestea... baina bizitza bera ere artea da. Begiradak, laztanak...arte dira.

Beraz, zer dugu arte? Ideiak dantzaz jartzea, hauek aske uztea. Txikitatik margotzen traketsa zela esan zaionak, margolari txartzat izango du bere burua. Baina zeinek dio, pintzelada batean espresaturikoa ez dela nahiko?

Barne ezagutzarako beharrezkoa dugu artea. Beraz, utzi kritikatzeari, eta bizi ezazu zurea. Marraztu, idatzi, bizi, egin beharrezkoa duzun dena. Zeren azken batean maitea, gu geu gara gure artea.

Arteari buruz galdezka dabiltza,
neure gorputz biluzia datorkit burura.
Hodeien negarralditik eroritako malkoek
Aurpegian irrist egiterako sentrazio hura.
Baita zure ezpaineak askatzen duten lilura.
Barne biluztea dut arte,
irtenbide bakar.
Arima minduaren huste magiko,
sakon eta azkar.

Mundua denean itsusi, zakar
jartzen dut beti luma dantzan.
Irribarre batean
ezkutatzen dena,
Orri zuriaren aurrean
Askatzen dut dena.
Hau baitugu gure
Ispilu fidelena.
Gordetzen dituen
mila poz eta bi mila pena.

Arte nauzu ni, arte zaitut zu.
Arte dit amaren musu.
Arte gizakia duzu,
hain ezberdin, hain misteriotsu.

Lagunen irribarra.
Gauerdiko negarra.
Olatu hautsien aparra.
Urraturiko paparra.
Udaberri udatarra.
Galdutako kantu zaharra.
Musu epelen zirrara

Milaka aberats, milaka pobre.
Noizbait ematen digu denok amore.
Horregatik kantatzen dut bizitza,
margozten dut hitza.
Noizbait hemen ez banintza,
ez daiten herdoildu haritza,
Har ezazu dena nire arte
Eta egun arte zure

Halakoa baita bizitza.

Dunixe Goenaga Cochon
Helduen ikastegiko ikaslea (EPA)
“Eskerrik asko Nereari, barneko ateak zabaltzeagatik”



Laurogeita bi urte igaro dira momentu hartatik eta nire alabak ez zekien ezer, baina pixkanaka-pixkanaka nire oroitzapenak ahanzturaren lagun egiten hasi ziren. Batzuetan ez nekien nor zen neskaxa hura, ezta bere izena ere, edo zer egiten zuen nire etxean, baina zerbaitek esaten zidan ezer ere ez galdetzeko; banekien hori egiten banuen, zerbait txarto egongo zela. Egun horretan ezagutu nuen, Bego zela, nire alaba. Lorategian kafesne bat hartzen geunden . Eguzki izpi haiek, arrosen usaina... Nire istorioa kontatzeko ordua zela konturatu nintzen, beraz, Begori esan nion ;

- *Bego entzuidazu arretaz.*
- *Zer nahi duzu Ama? Ondo al zaude?*

- *Ez, ez nago ondo baina ez arduratu, ez naiz hilko eta- esan nion barrezka- orain dela denbora bat konturatu naiz gauzak ahaztu egiten ditudala eta gauza garrantzitsu bat nahi dizut esan, ekarri logelan dagoen egunekoa, nire bizitzako aldi bat irakurriko dizut, ez dut nahi zu goitik ikusi hau irakurri gabe.*
- *Ama, nola... Zer esaten ari zara?*
- *Mesedez, ekartzeko esan dizut.*
- *Hemen duzu, baina ez dut ulertzen zer ari den gertatzen...*
- *Adi Bego; ze nire istorioak horrela esaten du:*

XX. mendean gaude, zehazki 1936an, estatu-kolpea txarto irten da, beraz, Franco dago Espainiaren karguan, beldurra daukat ea hona bere armadako gizonak etorriko diren.

Donostian bizi naiz, eta hemen euskaraz hitz egiten dugu, nire aita frankista izan arren. Mutil lagun bat daukat, Roberto izenekoa, ez dut nahi berarekin egon, baina nire aitak derrigortu egin nau, haurdun geratu naiz eta. Lehenengotik ez nuen nahi berarekin egon, frankista bat delako, nire aita bezala, horregatik ere derrigortu ninduela uste dut nik. Nik nire Euskal Herria dut maite. Nire zalantzak egia bihurtu dira, Francoren armadak Euskal Herrira datoz.

Egun hori uste dut ez dudala inoiz ahaztuko; Uztailak 18, gerra zibila, Euskal Herriraino heldu da, batez ere Donostiara edo frankistak nahi duten bezala deitu, San Sebastian. Egun hartan oso goiz esnatu nintzen, ez dakit zergatik, ez nuen lanera joan behar eta. Kafesnea hartzen nengoela hainbat txilio entzuten nuen, beraz, korrika joan nintzen leihoraino kalean zer gertatzen zen ikusi ahal izateko, orduan nire aurreikuspenek bizia hartu zuten, ezin nuen galarazi nire malkoak ezpainetara heltzea, oilo-ipurdi jarri zitzaidan, ezin nuen hura sinistu, hainbat jende lurrean, adineko andreak eta gizonak, umeak, gazteak. Banekien nire ordua heldu zela, ez hiltzeko, zeren nire odola ez zuen ukituko frankista batek, baizik eta haiei aurre egiteko ordua zela, galtzak ondo estutu, nire aitaren pistola hartu, eta eskaileretatik korrika jaitsi nintzen, ez neukan beldurrik, inoiz ez dudalako.

Kalera iritzi nintzenean, gauzak ez ziren aldatu, ez nengoen ametsetan, hori dena egia zen. Begirada behera jaitsi zitzaidan eta han ikusi nuen neskaxa bat, hile beltza zeukan, aurpegia minduta, jesarrita zegoen nire auzoko atean. Ez nuen pentsatu segundu bat ere, eta lasterka berarengana joan nintzen; galdetu nion nola zuen izena, baina ez zuen nahi erantzun. Beraz, berriro saiatu nintzen. Momentu horretan bai erantzun zidan;

- *Alde hemendik frankista osti hori- esan zuen haserretuta.*
- *Ez naiz frankista bat, Miren dut izena eta hor aurrean bizi naiz.*
- *Bego dut izena, lorategira joan naiz amari lora batzuk eramateko eta honekin topatu naiz, egia esan, beldur handia daukat....*
- *Beldurra ez da inoiz eduki beh...*

Ezin nuen esaldia amaitu, bonbardaketa hasi zen, oso hurbil guregandik, zalantzan jarri nuen nire esaldia; “ Ez dut beldurrik, inoiz ez dudalako”.

Arineketan ihes egin genuen, umeen oihuak, andren negarrek, gizonen eskariak... Lagundu egin nahi nuen baina ezinezkoa zen, Francoren armadak kaleak hartu zituen. Mendira heldu ginen behingoz, kobazulo bat ikusi genuen, pentsatu gabe barrura joan ginen, pentsatzen seguru egongo ginelakoan. Orduan hurbiletik ikusi nuen bere zauriak, ahal nuen bezala lagundu nion, nire alkandora hautsi eta zatitxo bat hartu nuen zauriak garbitzeko. Ez zuen ezer esaten, kexatzen ere ez, ez zen derrigorrezkoa oso gogorra zela esatea. Hainbat ordu igaro genituen bertan, gure istorioak kontatzen, gure bizia... Argi esan nion haurdun nengoela, baina ez nahi nuelako, nire mutil-lagunak nahi zuelako baizik, horrela bazekielako aitak ezkontzera derrigortuko ninduela. Harrituta geratu zen, ez zidan ezer galdetu, baina bai galdetu zidan ea beste bikoteren bat eduki nuen. Logikoki ezetz esan nion, berak esan zidan moduan niri; biok hasi ginen barrezka eta, egia esan, ez genekien zergatik.

Oso gustura geunden, baina ezin nuen ahaztu gertatzen ari zena. Ondo al zegoen nire ama? Aitak ez zidan axola egia esan eta, Begoren gurasoak? Esan zidan amari lorak eramatera zihoala; bere urteak izango ziren? Gaixorik zegoen? Ala... bat-batean konturatu nintzen Bego ez zegoela. Nora demontre joan da neska hau? Pentsatu nuen. Errekan pixa egiten zegoela uste dut, ez zegoen hainbeste konfiantzarik, hamasei ordu igaro arren. Prest nengoen afaria prestatzeko, fruitu batzuk, igelak... Momentu hartan edozer jango nukeen.

Ez nuen igaro ezta ehun metro ere, entzun nuenean:

- *¡Alto ahí!, ¿ Es usted Miren Vázquez Mendiguren verdad?*

Ez nuen mugitu muskulu bat ere. Buelta eman nuenean, segidan hartu ninduen besotik eta bere lagun bat etorri zen, jkaina, guardia zibila, edo nik esaten dudana bezala, Espainiako titereak. Bere lagun hori nire aita zen, nola osti zekien hemen nengoela?

- *Prepárate cuando llegues a casa-* esan zidan.
- *Ez naiz etxera joango! Utzidazu bakean, frankista ustel hori!*
- *¡ A mi me hablas en castellano! Puñetera niña mal criada..*

Segidan zaplasteko bat eman eta lurrera erori nintzen. Bitartean Bego dena ikusten ari zen, baina Mirenek ez zekien Bego beragaz maiteminduta zegoenik. Bego, bitartean, ur azpian ezkutatu zen; urak izotza ematen zuen, hezurak kiskaltzean balira bezala, baina hori ez zen ezer, Miren galtzearekin konparatuz.

Begok handik ihes egin behar zuen, guardia zibilak ez harrapatzeko, baina gehien bat Miren bila joateko, zeren bere sentimenduak adierazi nahi zizkion, baina, nola aurkituko zuen Miren? Nola hartuko zuen berri hori?

Esnatu nintzenean etxean nengoen amarekin, aitarekin eta Robertorekin. Hirurak niri begira, ez nuen ezer ulertzen, zertara datoz aurpegi horiek? Pentsatu nuen. Segidan, konturatu nintzen ezkontzeko ordua zela baina banuen beste plan bat; ezkontzatik ihes egingo nuen, eta ahalegina egin bizi berri bat edukitzeko.

- *Te vas a casa la semana que viene, y no quiero ninguna palabra más.*
- *Seremos felices ya lo verás.*

Hori esaldia entzun nuenean, barnetik hainbat sentimendu nituen ez nekielako zer egin, baina segidan konturatu nintzen hobeto zela kasu egin eta bertan egunean ihes egitea.

- *¿ No vas a decir nada? ¡Soy tu padre, más te vale responderme!*
- *¿ Cómo va hablar? Si tiene los labios hinchados, cortados, la mejilla llena de moratones... - Uste dut amak defendatu nahi ninduela.*
- *¡ Tu callate si no quieres verte como ella! Siempre estás abriendo la boca para nada, bueno en sí no vales para nada.*

Haiek hitzak nire barnerako sua ziren. Zelako nazka ematen zidan.

Lokartu egin nintzen ohean, entzun nuenean harriak leihoaren kontra, hurbildu egin nintzen zer gertatzen zen ikusi ahal izateko. Bego zen, nire salbatzailea, horixe zen momentua ihes egiteko.

- *Bego! Zer egiten duzu hemen? Nire aitak ikusten bazaitu atxilotu egingo zaitu!*
- *Zure aita titerea da? Bueno ez dio axola, jaitsi hona, gauza bat esan behar dizut.*
- *Zer gertatzen da? Ondo zaude? Janaria behar duzu?*
- *Mesedez, isildu behingoz eta jaitsi!*

Eskailerak binaka-binaka jaitsi nituen, ez dakit arduragatik edo Bego ikustegatik.

- *Gauza garrantzitsu bat esan behar dizut; adi egon eta ez ahaztu inoiz nire hitzak. Ezin izan dut zure begirada ahaztu, zure irribarrea, zure hitzak...*
- *Baina ... Bego... Nik...*
- *Ez duzu ezer esan behar, mutil-laguna duzu, ume bat bidean... Orain joan beharra daukat , noizbait elkartzen bagara, bizitzak nahi duelako izango da, zaindu Miren eta zoriontsu izan.*

Ordua heldu zen, nire ezkontzeko eguna, ezin nituen Begoren hitzak ahaztu, inoiz inork ez zidan horrelakorik esan. Nire itxaropena bertatik ihes egitea zen, nire bizitza bakarrik egiteko, Begorekin egoteko edo guda honetatik ihes egiteko? Ez dakit zergatik pentsatzen nuen hainbeste Begori buruz; egia esan badakit, maitemindu egin nintzen, hortik ihes egin behar nuen. Eliza barruan geunden , apaiza hizketan, jendea urduri, negarrez eta ni Begori zain.

Orduan geratu zen, elizako ateak zabaldu egin ziren eta han zegoen Bego, zaldi zuri baten gainean. Segidan esan zidan;

- *Esan nizun noizbait elkartzen bagara, biziak nahi zuelako izango zela eta hemen nago, biziari kontra egiten, goazen hemendik.*

Inork ez zuen ulertzen, bakarrik apaizak eta nire amak, baina ez zuten ezer esan. Korrika joan nintzen beregana, zaldi gainera salto batean iritsi nintzen, bizitza askearen norabidean joateko.

Zaldi gainean gindoazen, askeak ginen, bakarrik Bego eta ni, ni eta Bego. Ezin nuen sinistu bakarrik geundela leku hartan. Haizea oso gogorra zen, nire ilea haizearen norabidean zihoan, zaldiaren trapalada entzuten zen bakarrik; hau da trankilitatea eta poza pentsatu nuen, arrosen kanpo aldetik pasatzen gindoazen, usain hori ez nuen inoiz ahaztuko, eguzki izpiak aurpegian, Bego nire alboan, hura zen zoriontasuna. Baina hau istorioa ezin zen horrela bukatu. Urrunetik tiro bat entzun genuen, zaldiak salto egin zuen eta lurrera erori nintzen. Konturatu nintzenean, nire hanka tartetik odoletan nengoen, Begok segidan esan zidan ez zela ezer gertatzen baina nik banekien ume hori galdu nuela. Erreka batean garbitu egin nintzen eta aurrera egin genuen; oraingoan bai irten zen oso txarto, tiroak Begori eman zion eta lurrera erori zen, zaldia karguan hartu nuen, atzera begiratu nuenean hainbat guardia zibil zegoen eta, eurretako bat, nire aita.

- *Bego! igo bizkor! Mesedez Bego...* - Esan nion negarrez baina ez zuen erantzun,

Aitari entzun nion esaten;

- *Aunque sea mi hija, ¡Disparar!*

Bertan entzun nituen Begoren azken hitzak; Jarri nire izena itxaroten zauden umeari.

Ez nuen nahi atzera begiratu, nire bizi osoa bertan geratu zen, Bego nire bizia zelako.

- *Bego gorde hau ondo eta ez galdu inoiz eta gogoratu, iraganari ez galdetu inoiz zer gertatu zen.*
- *Ama, baina zer da liburu hori? Orduan Bego ez da zure laguna bakarrik? Ze ostia... Orduan, nola jaio naiz ni? Ama!*

Mirenek ezin zuen alaba goitik ikusi hori irakurri gabe, oraingoan Miren eta Bego bai izango dira libreak behingoz.



Julene Lauzirika Gutiez
Helduen Ikastegiko ikaslea (EPA)

“Ez utzi atzean zure ametsak, ametsen bila joan egia bihurtu arte”

AZKENEAN DANTZARIA

Bazen behin 15 urteko neska bat, Jone izenekoa. Ile marroi argia, luzea eta lisoa zeukan. Begi urdin handiak eta oso distiratsuak. Itxura argala zeukan eta izaeraz oso lotsatia zen.

Busturiako baserri batean bizi zen bere guraso eta aitite amonarekin.

Joneren gurasoak oso onak ziren. Jonen gauza guztietan berarekin zeuden .

Jone ez zen oso ona ikasketetan baina bera ahalegintzen zen eta bere gurasoak lagundu egiten zioten.





Txikitatik Joneri dantza egitea asko gustatzen zitzaionez, bost urtekin gimnasia erritmikoko taldean sartu zen. Gimnasia erritmikoko entrenamenduak bere herriko kiroldegian egiten ziren arratsaldeetan. Joneren inguruko lagunak ekintza horietan ez ziren sartzen kirolak gustuko ez zutelako. Hala ere, Joneri ez zitzaion arduratzen berari kirolari buruzko ekintzak gustatzen zitzaizkiolako. Oso pozik zegoen gimnasia erritmikoan. Lau urte egon zen, arazo larri bat eduki zuen arte. Lepoko garezurraren eskoliosis bat eduki zuen.

Medikura joan zen eta gimnasia erritmikoa egiten ezin zuela jarraitu eta bere garezurrarentzat igeriketa egitea ondo etorriko zitzaiola esan zion. Jone oso minduta zegoen eta negar asko egin zuen ez zuelako utzi nahi bere bizitzako kirola. Bere ametsa horretara dedikatzea zen edo gimnasia erritmikoko andereñoa izatea. Momentu horretan bere aitak esan zion:

- *Eta ni joaten banaiz zurekin igerilekura eta biok elkarrekin igeri egiten badugu ?*

Zer iruditzen zaizu maitea?

- Ez zen ideia txarra izango aita.

Igerilekura joaten hasi ziren baina aitak lan asko zeukan eta ezin zuen joan, orduan igerilekura joateari utzi zioten. Jonek argi zuen ez zuela nahi kirola utzi. Bere amak dantzak gustuko zituela jakin zuenez ideia bat bururatu zitzaion. Bere kabuz interneten dantzako taldeak ikusten hasi zen baina Bartzelonakoak edo Madrilekoak ziren. Apur bat triste geratu zen ez zuelako topatzen. Egun batean YouTube-en talde oso ona ikusi zuen. Ona eta itxura oso arraroa zeukan aldi berean. Amak Joneri gustatuko zitzaiola pentsatu zuen. Ikertu ondoren nongoak ziren, non zegoen beraien eskola, andereñoa nor zen... Bilbokoak zirela konturatu zen. Ez zuen sinisten. Informazio gehiago



irakurri, argazkiak ikusi...jarraitzen zuen amak, bere senarrari esan baino arinago dena oso seguru eduki nahi zuen. Gero familiako besteei ere esateko asmoa zuen amak. Egun batean senarrari dena komentatu zion. Oso ideia ona iruditu zitzaion bere alabarentzat hoberena nahi zutelako. Egun berberean Jonerekin hitz egin zuen eta argazkiak, bideoak... erakutsi zizkieten. Momentu hartan liluratuta zegoen amak erakutsitako guztiarekin.

Bi aste barru talde horretako eskolara joango zirela esan zion amak informazio gehiago hartzeko edo bere alaba hor sartzeko. Jone oso hunkituta zegoen. Aste bat lehenago medikura joan zen dantza modernoa egin ahal zuen galdetzeko. Baietza eman zion medikuak baina osteopata batera joan egin behar zela noizean behin.

Heldu zen bigarren astea eta joan ziren bertara. Zuzendariak hartu zituen lehenengo momentutik eta oso atsegina zen. Amak zituen galdera guztiak berak argitu zituen. Bi dantza estilo basikoetan sartu zuten Jone, erdiko mailan. Lehenengo egunetan oso urduri zegoen baina lotsatia zen arren oso arin egin zituen lagunak.

Urte berberean talderako lehiaketa kastinga egiten zuten beti hirugarren hiruhilabetekoa eta gero.

Joneren amak esan zion Joneri:

- *Jone, egin ezazu kastinga!!*

Jonek erantzun zion:

- *Ama, hemen urte bat ez dut egin oraindik, nire lehenengo urtea da eta horretarako oso preparatuta edo oso ona izan behar zara.*

Amak kasu egin zion eta bakean utzi zuen, baina hurrengo egunean dantzako eskolatik deitu zioten eta zuzendaria zen. Holaxe esan zion amari zuzendariak:

- *Zergaitik ez da apuntatu konpetizio frogara Jone?*



Amak erantzun zion:

- *Berak esan dit bere lehen urtea dela eta arinegia zela apuntatzeko.*

Baina zuzendariak bere amari berriro esan zion:



- Ez du inporta zenbat urte egon den, berak egin *dezala kastinga eta ez badugu aukeratzen hurrengo urtean apuntatzea dauka. Baina nik zure alaba hiruhilabete honetan zehar dantzan ikusi dut eta kastinga egitea nahi dut.*

Azkenean amak andereñoak esan zuena esanez, Jone konbentzitu egin zuen . Heldu zen eguna eta oso urduri jarri zen Jone. Proba horretatik negarrez irten zen. Berak espero bezala ez zitzaion irten dantza. Amak lasaitu egin zuen bere alaba.

Zuzendariak itxaron behar zutela egun batzuk esan zien. Astelehenean beti bezala Jone bere amarekin dantza eskolara joan zen. Oso arin heldu zirenez, alboko tabernara kafetxo bat hartzera joan ziren. Bertan zuzendaria aurkitu zuten eta kastinga pasatu zuela esan zien. Oso pozik ipini zen eta bi musu eta eskerrak eman zizkion zuzendariari. Orduan, konpetizioko taldekidea zen Jone. Bere gurasoak oso pozik zeuden. Bere azkenengo ametsa dantzari profesionala izatea edo koreografa handia izatea izango zen.

**ALA BAZAN ALA EZ BAZAN, SAR DADILA KALABAZAN ETA
IRTEN DADILA JONEREN DANTZAN !!!**

Babesleak

